

puntua

50 urte bete dira Vasco-Navarro trenaren itxi zutela

Elkarriketa Iñaki Lasagabasterri, Sareko kideari



Aramaio ezagutu eta ezagutarazten

Herriko ondarea 'eskutik eskura' zabaltzen ari dira Aramaion, Herri Curriculum landuz / 16

Aramaio San Martin Herri Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak, eta beste hainbat herritar, eskolan bertan.

XABIER URZELAI

Bilbora, presoan eskubideen alde

Urtarril hasierako hitzorduarekin bat egingo dute ehunka debagoiendarrek bihar, zapatua, dagoeneko 24 autobus antolatu dituzte eta / 3

Arrasateko Udalak lursaila erosteko lehen zatia ordainduta, Etxezarreta publiko izatetik gertuago / 10

Antzuolako gazte eta nerabeendako proiektua aurrera, gaztelekua abian jarrita / 30

Kirol ekipamenduak erabiltzearen erdia ordainduko dute herriko familia ugariak Oñatin / 36

Domekan aurkeztuko dute Debagoieneko hockey taldea, Burdinola, Bergarako kiroldegian / 39

SINADURAK

 ANARTZ AGIRRE / 8	 IOSU ELORZA / 24
 AITOR ORO BENGOA / 11	 MARIJO DEOGRACIAS / 31
 ANDONI ELEJALDE / 17	 IDOIA ETXEBERRIA / 48



Bertako enpresako hainbat teknikari, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

Ospakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien aldeko hautua.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Euren sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango baliabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu zuten pertsonak.

Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute; hau da, larrialdietan bakarrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, astelehenetik igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariek egiten duten lan onak, gerora dauden abisuen aldeko hautua.

BENETAKO 24 ORDUKO ZERBITZUA EMATEN DUTE, ASTELEHENETIK IGANDERA, 365 EGUNETAN

kopurua txikitu egiten du, nabarmen.

Euskararen garrantzia

Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egiterakoak, komertzialen bisitatan, administrazioekin berba egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Askok eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteko. Kontratu librean egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik.

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute eskaintzen dituen tarifen-gatik. Oinarrizko kontratua hileko 80 euro ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. “Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzuaren-gatik eta inguruko eskualdeetan prezio hau ia erdira jaitea, berton ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan”, diote enpresakoek.

Larrialdi zerbitzua

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastatsuetara heltzeko: bezero guztiek dute igogailuaren larrialdi sistema telefonoetara lotuta eta guztiek dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabal-kundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara.

Gipuzkoan, Arrasaten eta Anoetan biltegiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa.

943-90 34 50 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota.

Hobekuntza teknologikoak igogailu zaharretan

1- Telefono zaharretako instalazioak berritzen dituzte. Hori horrela, uneoro daude kontaktuan bezeroekin. Berehalako erantzuna ematen diete abisuei eta ezustekoei.

2- Igogailua modernizatzeko aukera ematen dute. Aukera ematen duten maniobretan igogailuak monitorizatuta dituzte.

3- Igogailu zaharrak modernizatzeko eta berritzeko elektronika osoa eta motorra aldatzen dituzte. Era berean, ordaintzeko erraztasunak ematen ditu Bertakok. Igogailu batek arazo asko dituenean, ezinbestekoa da elektronika zati osoa aldatzea.

Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

- 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat
- Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan
- Iraupen-konpromiso gabeko kontratua
- Larrialdi telefona doan, instalazio guztietan
- Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikusapena



2017ko urtarrileko manifestazioa. DANI BLANCO/ARGIA

Bilbora, presoan eskubideen alde

Euskal Herriko hainbat txokotatik milaka herritar joango dira bihar, zapatua, Bilbora, euskal presoan eta giza eskubideen defentsan egingo den manifestaziora. Debagoienetik, azken urteetan bezala, ehunka herritar batuko dira aldarrikapenera

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Elkarrekin aurrera egiteko prest gaude lelopean Sare Herritarrak "euskal gizarteari" dei egin dio, "ideologia atzean utzita, bihar, urtarrilak 13, Bilboko kaleak bete ditzan, hiria, urtero moduan, mobilizazio-gune bilakatu dezan eta bakearen eta ebazpenaren alde egiten duen gizartearen isla izan dadin". Manifestazioa Casillatik irtengo da, ohiko lez, 17:30ean. Hala ere, egun osorako egitaraua prestatu dute antolatzaileek. Besteak beste, 11:15ean, *Gizarte zibila subjektu aktibo* konferentzia La Bolsa eraikinean. Bertan, Joseba Azkarragak, David Fernandez katalanak, Anais Funosas Bakegileen mugimenduko kideak eta Mario Calixto kolonbiarrak parte hartuko dute. Gainera, 12:30ean, kantuez eta irriez gozatzeko aukera egongo da, Porrotxen eskutik, Areatzan.

Karpa horretan, bertso saioak eta kontzertuak egongo dira egunean zehar.

Euskal Herriko hainbat txokotatik milaka lagun batzea espero dute antolatzaileek, beste behin, eta Debagoienetik ere hainbat herritar batuko dira aldarrikapenera. Izan ere, euren kasa mugituko diren herritarrez gain, herrietatik autobusak antolatu dituzte bihar Bilbora gerturatzeko. "Urtero esaten da azkena izan behar dela, baina, tamalez, beste urte batez, esperoan benetan azkena izango dela, Bilbon egongo gara. Aldarrikapen nagusiak dira nahi ditugula preso eta iheslari guztiak etxetik gertu, kilometro zerora; larri dauden gaixoak etxeratzea berehala; eta *motxiladun ume* horien zama ea arintzea lortzen dugun", dio Naiara Olabarriak, Aretxabaletako Sareko kideak.

Pausoak emateko ordua

"Agertoki eta momentu berri baten gaude. Gizarteak gatazkaren ebazpenean aurrera egiteko pausoak eman ditu ETaren armagabetzea egiaztatuz. Frantziako erakundeak ere egungo espetxe politikari irtenbidea emateko pausoak ematen ari dira. Hemen, Euskal Herrian ere, Gasteizko eta Iruñeko parlamentuetan emandako gehiengoek honen inguruan akordio berriak lortzea eta pausoak ematea bideratzen dute", azaldu du Sare plataformak. "Inori ez diogu bortizkeria desberdinek

MANIFESTAZIOAZ GAIN, SAREK EGUN OSORAKO EGITARAUA PRESTATU DU BILBOKO AREATZAN

eragindako mina ahazterik eskatzen, baina etorkizunari begiratu eta aurrera egiteko eskatzen dugu, guztion artean, mendeku eta gorrotorik gabeko gizartea eraikitzeko. Horren harira, euskal presoek jasotzen dituzten eskubideen urratzei eta urruntze politikari amaiera ematea ezinbestekoa da, hauen eskubideak ez ezik, beraien familien eskubideak ere urratzen baitira. Beharrezkoa da salbuespeneko legediari amaiera ematea eta gaixo dauden presoak kartzeletan mantentzea bideratzen duen mendeku politikaria amaiera ematea", gaineratu dute Sareko bozeramaileek.

Bestalde, Iñaki Lasagabaster administrazio zuzenbidean adituari egindako elkarrizketa kaleratu du gaur *Puntua* aldizkariak. Bertan, manifestazioaren gainean berba egin du: "Garrantzitsua da mobilizazioari jarraipena ematea. Duela sei urte guztiz aldatu zen egoera politikoa. Orain, herri mobilizazioa piztu beharra dugu, kontzientziak astindu. Esaterako, euskal presoek nabari beharra dute ez daudela bakarrik; eta, era berean, botere publikoek jakin behar dute gure gizarteak ez duela giza eskubideak urratzea onartzen. Munduko gizarteari argi adierazi behar diogu kexu garela egoeraz, ez dutela gure babesik. Baina argi, ez baita komeni aldarria egun bakarrera mugatzea; egunerokotasunean jardun behar dugu lanean".

Debagoienetik irtengo diren 24 autobusak

Izena eman daiteke autobusetan joateko.

Antzuola

- 15:30 Geltokitik.

Aramaio

- 15:30 Biribilgunetik.

Aretxabaleta

- 11:15 eta 15:15 Sarek antolatuta.
- 12:00 Ernaik antolatuta.

Arrasate

- 11:00 eta 15:00 Hiruna autobus Garibaitik.

Bergara

- 11:00 eta 15:30 Goizean autobus bat eta arratsaldean hiru.

Elgeta

- 16:00 Herriko plazatik.

Eskoriatza

- 11:00 eta 15:00 Autobus bana.

Oñati

- 10:00 eta 15:00 Bi eta lau autobus, Enpresagintzako parkingetik.



Edesa Industrialeko eta Geyser Gastecheko langileak, Arrasateko egoitzaren aurrean, martitzenean. IKER OÑATE

Iker Oñate DEBAGOIENA

Auzibide berria ireki da Edesa Industrialen bueltan; aste hasieran jakinarazi du CNAk kontratu amaiera espedientea aurkezteko asmoa duela. Modu horretan, 160 kide geldituko lirake lan barik; Arrasateko 100 langile inguru leudeke horien artean. Gainerakoak, bestetik, Eskoriatzako eta Basauriko egoitzetan dihardutenak eta komertzialak lirakeke –Espainiako Estatuko egoitzetan daude banatuta–.

Gauzak horrela, orain, ohiko prozedura jarraitu behar luke kontratua eteteko eskaerak. Eta epaileak onartzekotan, hilabete pasako negoziazio mahaia sortuko litzateke, langile eta enpresaren arteko hizketaldi-rako. "Tarte horretan irtenbiderik topatuko ez bagenu, kalera joango ginateke", argitu du Ricardo Perezek, Enpresa Batzordeko presidentek.

Izan ere, langileek ez dute CNAREN ekinbide berria ulertzen; batez ere, "epaileak markaren auzian zer esango zain" daudelako". Alegia, Edesa Industrialek bere marka erabiltzen ez segitzeko auzi eskea aurkeztu zuen Fagor Kooperatiba El-

Lanik gabe geratzeko zorian

Edesa Industrialeko eta Geyser Gastecheko langile guztientzat kontratu bukaera espedientea aurkeztuko duela iragarri du CNAk; 160 langile geldituko lirakeke lan barik. Hori dela eta, erakundeen eta Fagorren babesa eskatu dute langileek

karteak abenduan. Epaileak oraindik ez du horren gainean erabakirik hartu. "Ez dakigu Edesak Fagor marka erabiltzeko aukera baztertuta duen edo. Hori bai, prentsan irakurri dugunez, pentsa dezakegu enpresak uko egiten diola Arrasaten produzitzen segitzeari.

AURRERA BEGIRA, ERAKUNDEEN ETA FAGORREN INPLIKAZIOA ESKATU DUTE LANGILEEK

Egoera honetan, hori ez da onargarria, inolaz ere ez", argitu du Perezek.

Dena dela, aurrera begira, "itxaropentsu" azaldu dira langileak: "Enpresa bideragarria dela uste dugu. Baditugu etxetresnak ekoizten segitzeko eza-gutzak, baita bitartekoak; ka-

ARRASATEKO UDALAK "BABESA ETA ELKARTASUNA" ADIERAZI DIE LANGILEEI

litatezko produktuak ekoizten dihardugu. Egitasmoa sostengatuko duen norbait besterik ez dugu behar". Horren alde borrokatuko dira, beraz.

Horrekin lotuta, Edesa Industrialeko eta Geyser Gastecheko langileek dei egiten diete Eusko Jaurlaritzari, gainerako

INBERTSIO PROPOSAMEN "SERIO ETA BIDERAGARRIAK" AZTERTZEKO PREST LEGOKE FAGOR

erakundeei eta Fagor Kooperatiba Elkarteari auzian inplika daitezten. "Testuinguru honetan, prozesu berri bat has dezakegu. Bada, horretan lagundu dezaten eskatzen diegu erakunde eta kooperatiba elkarteari. Uste baitugu posible dela egitasmo bideragarria bultzatzea", azaldu du Perezek.

'Fagor' markaren auzia

Besteak beste, esan bezala, Fagor Kooperatiba Elkarteari inplikazioa eskatu dute langileek, "balizko inbertsioak" bultzatzeko, marka lagatzea "lagungarri" izan daitekeelakoan. "Jakin badakigu marka entzutetsua dela Fagorrena. Beraz, euren laguntza izan gura genuke etorkizuneko ekinbideetan", nabarmendu du Enpresa Batzordeko kideak.

Fagor Kooperatiba Elkartek, berriz, jakinarazi du negoziatziorako atea "itxi gabe" dituela: "Proposamen bideragarriak eta serioak badatoz kigu, prest geundeko horiek aztertzeke". Dena den, gogorarazi dute zabalik dutela markaren auzia, epaileak oraindik ez duela Edesa Industrialek marka erabiltzen segitu ez dezan aurkezturiko

auzi eskeari buruzko ebazpenik helarazi. "Beraz, gaur-gaurkoz, lotuta ditugu eskuak. Edozein negoziazio prozesuri ekin aurretik, beharrezko genuke aurretik sinatuta dugun hitzarmena bertan behera uztea. Ordura arte, ezin dugu ezer egin", gaineratu dute.

Langileak, protestan

Euren kontratuak eteteko asmoaren aurrean, protestaldia hasi dute langileek. Eta hiru elkarretaratze egin dituzte aste honetan; lehena, Edesa Industrialeko egoitza aurrean –Arrasate–; Enpresa Batzordea langileekin batzartu zenean hartu zuten erabaki hori. Bada, euren lanpostuen alde "borrokatzeko" asmoa berretsi zuten orduan; eta bi protesta-hitzordu berri finkatu zituzten osteko egunetarako: Basaurin –eguaztana– eta Arrasaten –eguna–. Eta jakinarazi dute sindikatuak datorren astean iragarriko dituztela aurrera begirako urratsak.

Erakundeen babesa

Bestetik, erakundeen parte hartzea eskatu dute Edesa Industrialeko eta Geyser Gastecheko langileek. Bada, gaur-gaurkoz, legebiltzarreko alderdi politikoko gehienek babesa dute. Martitzenean bertan –lehen protesta egunean–, esaterako, Arrasateko hainbat udal ordezkariak egin zuten bat protestarekin; EAJko, EH Bilduko, Baleikeko eta Irabaziko ordezkariak izan ziren eurekin. Horiez aparte, Iker Casanova legebiltzarkideak eta Judit Garcia Gipuzkoako batzarkideak ere esku hartu zuten protestan; EH Bildukoak horiek biak.

Arrasateko Udalak, berriz, "babesa eta elkartasuna" azaldu die Edesa Industrialeko eta Geyser Gastecheko langileei. Besteak beste, adierazi du ez datorrela bat CNako zuzendaritzak hartutako erabakiarekin, eta "kezka" azaldu du egoeraren aurrean. Horrenbestez, "borondate eta konpromiso irmoa" adierazi du kaleratzei –eta, halaber, egoerari– aurre egiteko geratzen diren ekimenetan "Euskadiko instituzio ezberdinekin elkarlanean aritzeko".

Alderdiek bat egin dute

Bestetik, esan bezala, hainbat alderdi izan dira langileek deitutako protesta hitzorduetan.

Eta egin dute egoeraren bueltako baloraziorik. Adibidez, Juan Karlos Garitanok, Arrasateko Udaleko Enplegu zinegotziak (EAJ), azaldu du gaurkoak "une gogorrak" direla, baina baikor azaldu da aurrera begira: "Testuinguruak beste aukera batzuk ekar ditzake, eta baikorki hartuko ditugu zabaltzen diren ate horiek". Gaineratu du Eusko Jaurlaritzak badituela "laguntzarako tresnak"; eta, era berean, uste du "zerbaitetan" badabil-tzala, "isilean".

Gabonen aurreko gertakariak

Edesa Industrialeko bueltako zenbait albiste izan ziren abenduan. Adibidez, inbertsore bat aurkeztu zuen Edesak: Amica Group. Jakinarazi zuenez, 26,8 milioi euroko inbertsioa egiteko prest legoke enpresa poloniarra. Horren truke, baina, Fagor marka erabiltzeko eskubidea izan gura zuen. Edesaren esanetan, likidazioa saihestea eta industria jarduerarekin jarraitzea ahalbidetuko zien inbertsioak. Besteak beste, 140 lanpostu mantentzea aurreikusten zuten horri esker.

Fagor Kooperatiba Elkarteak, berriz, azaldu zuen "oinarri sendorik gabeko proposamena" zela. Eta Edesa Industrialek bere marka erabiltzen ez segitzeko auzi eskea aurkeztu zuen epaitegian. Esate baterako, hitzartutakoa bete ez izana egotzi zion Edesa Industrialei. "Ez du markaren erabileraren eta posizionamenduari inguruan adosturikoa bete; ezta lanpostuak sortzearen inguruan hitzartutakoa ere", argitu zuen.

Fagor Kooperatiba Elkartearen oharrari erantzunez, Edesak geurtatu egin zituen hari leporatutakoak. Eta, hain zuzen, azaldu zuen Fagor marka ezingo balu erabili, ezingo lukeela Euskal Herrian jarraitu.

Iker Casanova EH Bilduko legebiltzarkideak ere eman du auziaren inguruko iritzirik. Izan ere, haren esanetan, badaude jarduerarekin segitzeko baldintzak: "Langile prestatuak, instalazioak, produktua, eta abar daude. Honi forma eman-go liokeen egitasmoa falta da", azaldu du. Gauzak horrela, erakundeek "inplikazio totala" eskatu du, "sostengu ekonomikoa eta politikoa" emateko.

Bestalde, Igor Urizar Baleikeko zinegotziak azaldu du enpresako zuzendaritzak ez duela zuzen jokatu langile eta erakundeekin. Eta, horrez gain, Eusko Jaurlaritzari ere egin dio aipamen. "Egoera honetara eramane gaituen negoziazioan esku hartu zuen Eusko Jaurlaritzak; badu zeresana, beraz", dio. Horrez gain, adierazi du egoerak ez diela soilik langileei eragiten, Arrasateko eta, oro har, Debagoieneko ekonomian ere izango duela ondorioak.

Irabazi alderdiko zinegotzi Juan Luis Merino, baina, ez da horren baikor azaldu: "Uste dut egoera honek ez duela atzera bueltarik; izan ere, zorritzarekin, inork ez du proiektuaren aldeko apusturik egingo". Eta, hain zuzen ere, "Eusko Jaurlaritzaren sostengu politikoa falta eta inbertsorearen kudeaketa eskasa" aipatu ditu gaur egun Fagor Industrial murgildurik dagoen egoeraren eragiletzat.

Etorkizuneko proposamena

Beste alde batetik, etorkizunerako proposamen bat iragarri du CNak; langileen esanetan, "lanposturik gabekoa eta soilik produktuen merkaturatzean oinarriturikoa". Bada, Fagor Industrialeko eta Geyser Gastecheko langileek ez dute proposamen hori onartzen. "Kalean utzi nahi gaituzte; eta jarduera industrialaren eten gura dute. Langileok ezin dugu hori onartu", diote. Horrenbestez, "borrokan" segitzeko konpromisoa berretsi du Enpresa Batzordeak. "CNA alde batera geratuta, eta, enplegu plan bideragarri batekin, gaurko langileentzat eta aurrez kaleratutakoentzat etorkizuna egon badagoela uste dugu", azaldu dute. Horrenbestez, proiektu "bideragarri" bat eraikitzeak aukera dagoen ustea berretsi dute.



Joseba Belaustegi eta Joxe Mari Izeta, Gurasoseko kideak. ENEKO AZKARATE

Hondakinen kudeaketa adostu guran 'Hitzartu' egitasmoarekin

Parte-hartze prozesua jarriko dute martxan, eta abendura arte iraungo du. Hainbat fasetan banatuko dute

I.O. DEBAGOIENA

Gipuzkoan hondakinen kudeaketaren bueltan irekita dagoen auziari irtenbidea eman guran, parte hartze prozesuari ekingo dio Gurasos kolektiboak; *Hitzartu* bataiatu dute egitasmoa. "Hondakinen auzia gertuko dugun aldetik, uste dugu herritarroiek dagokigula horren inguruan ados jartzea", azaldu du Joxe Mari Izetak, Gurasoseko kideak. Ostean, eraikitako proposamena erakundeek esku uztea da asmoa. Eta *crowdfunding* kanpaina abiatu dute, horrek dakartzan gastuei aurre egiteko.

Hain zuzen ere, hondakinen kudeaketaren bueltako plan integrala "gaurkotzeko" beharra azpimarratu dute Gurasosekoek: "Hamalau urtean behin gaurkotu beharra dago. Gipuzkoari, 2016an zegokion hori egitea. Baina ez du halako prozesurik zabaldu. Beraz, ardura geure gain hartzea erabaki dugu. Beharrezkoa delako herritarrek horren inguruan erabakitzea". Horrekin lotuta, bi erabaki-bide nagusi daude: orain bezala jarraitzea edo egindakoa bertan behera uztea.

Gauzak horrela, *send@tzeko* leloari heldu diote, *sendotu* eta *sendatu* terminoei erreferentzia eginez. "Alde batetik, sendotu beharra dugu demokratikoki herriari galdetuz; eta, bestetik, orain arteko planteamenduak utzi dituen zauriak sendatu behar ditugu. 35 urte iraun dezakete horiek", esan du Joseba Belaustegik, Gurasoseko kideak.

Parte-hartze prozesua, fasea

Egitasmoaren bultzatzaileek hainbat fasetan banatuko dute parte-hartze prozesua. Hala, herriari galdetzen hasiko dute prozesua, otsailean. Ostean, iradokizunak jasota, beroriek idazteari eta adosteari ekingo diote; ondoren, berriz ere, herritarrei bueltan itzultzeko. "Herritarrek oniritzia eman beharko diote proposamenari, erakundeetara helarazi aurretik", azaldu du Belaustegik. Abenduan aurkeztuko dute proposamena.

Hori guztia egiteko, bestalde, hiru bloke nagusi dituzte egitasmoaren bultzatzaileek: mahai teknikoa –osasunaren edo hondakinen kudeaketan aditu direnek osaturikoa–, gizarte mahaia –gizarte eragileak ordezkaturakoa– eta berme taldea. Aipatu beharrezkoa da hainbat alorreko jendeak osatuko duela azken hori, "sona handikoak", bultzatzaileen esanetan. Besteak beste, Juanjo Alvarez, Garbiñe Biurrun, Bernardo Atxaga eta Ernesto Ganuza daude berme taldean.

Diru biltzea

Orain, dirua biltzen dihardute parte-hartze prozesurako, *crowdfunding* kanpainaren bidez. "Zenbat eta diru gehiago batu, orduan eta osoagoa izango da prozesua", dio Izetak. Gaur-gaurkoz, 80.000 euro lortu gura dituzte. Interesa duenak abenduren 24ra arte du ekarpen ekonomikoa egiteko aukera, *www.hitzartu.eus* webgunean.



%30eko deskontuekin hasi dituzte denda askok eta askok beherapenak. GOIENA

Iritsi da merkealdia Debagoieneko dendetara

Domekan hasi ziren ofizialki, eta, astelehena ezker, asko izan dira eskaintza bila Debagoieneko komertzioetara gerturatu diren herritarrak. Martxoaren 31ra arte iraungo duten merkealdietan, %70era arteko deskontuak ipiniko dituzte saltokiek

Miren Arregi ARRASATE

Ofizialki domekan hasi baziren ere, astelehenekoa izan zen –domekan dendak itxita baitaude– herritarrak mauka bila saltokietara gerturatu ziren lehen eguna. Saltoki askotan egunak zeramatzaten eskaintza bereziak egiten eta astelehena ezker erakusleho guztietan daude deskontuen karteltxoak.

Arrasateko Garraxi eta Bergarako Subijai dendetan, esaterako, mugimendu dezenterekin hasi dute merkealdia. Batean zein bestean, ondo joan dira Gabonetako salmentak, baina generoa badute oraindik eta baikor ekin diote merkealdi sasoiari.

Merkealdia, erreferentzia

Arrasateko Garraxi dendako Eider Bolinagaren esanetan, urtarrilaren hasieran %20ko deskontuak egiteari ekin zioten eta gaurtik, %30ekoak: "Egia da, gaur egun, urtean zehar ere hainbat eskaintza egoten direla,

baina merkealdia merkealdia da, eta oraindik ere badago jende multzo bat sasoi horren zain egoten dena. Gainera, %30eko deskontua oso erakargarria da eta negua oso luzea".

Oñatiko Chic arropa dendako Irma Juaristik adierazi du Gabonetako kanpaina, orokorrean, beste urte batzuetakoa baino "apur bat pattalagoa" izan dela, erosketa ohiturak aldatu egin direla eta horrek komertzio txikian eragina duela. Merkealdiari dagokionez, "lehengoak ez" izan arren, jendea beti ibiltzen dela jakinarazi du.

Bestalde, Bergarako Bedelkar merkataria elkartek azaldu du herriko denda batzuetan kexu azaldu direla eta badela aspal-

diko urteetako kanpainarik txarrena izan duela dioenik ere. Beste batzuek, aldiz, ondo saldu dutela baietsi dute. Hori da, esaterako, Amua dendako Maitane Azkarateren kasua: "Gabonak ondo joan dira eta orain ere badabil mugimendua".

Eusko Jaurlaritzaren bonua

Eusko Jaurlaritzak komertzio txikiei bultzada emateko ateratako bonuak –30 euroko gastuarekin, 10 euroko deskontu zuzena– hizpide izan dituzte batek zein besteak; Gabonetako salmentak sustatzen lagundu dutela esan dute.

Merkealdiari probetxua atera

Euskal Kontsumitzaileen Alkarteak hainbat aholku eman ditu beherapenei begira: esaterako, aurrekontua eta erosketa zerrenda bat zehaztea, kalitateari erreparatzea, bermeetan murrizketarik ez onartzea eta artikulua aldatzeko edo itzultzeko aukeraz galdetzea.

**EUSKO JAURLARITZAK
KOMERTZIO TXIKIAK
BULTZATZEKO
ATERATAKO BONUAK
ASKO LAGUNDU DU**

Pesako langileek gogoan izan dute istripuan hildako lankidea

Motor baten eta autobus baten arteko talkaren ondorioz hil ziren, joan den egunean, bi ibilgailuetako gidariak

M.A ARRASATE

Joan den egunean Aretxabaletan gertatutako istripuan hildako lankidea gogoan dutela adierazten zuten bi pankartaren atzean elkarretaratzea egin zuten astelehen eguerdian, Pesa autobus konpainiako Enpresa Batzordeak deituta, Arrasateko Laubide plazan.

Pesa konpainiako Enpresa Batzordean ELA, LAB eta UGT daude ordezkatuta, eta, horiez gain, beste sindikatu batzuetako delegatuek ere hartu dute parte bilkuran, langileekin batera. Arrasateko udalbatzako EH Bilduko eta Baleikeko ordezkariek ere izan dira, eta Irabaziko Debagoieneko ordezkariek.

Ana Sebal Agirregabiriak, eskualdeko zerbitzuetako arduradunak, LAB sindikatuaren izenean hitz egin zuen elkarretaratzearen amaieran. Doluminak ematearekin batera, aldarrikapenok egin zituen: "Garraiolariak errepideetan ematen dute euren lanaldia, baina istripuok ez dira lan istripuztat hartzen, datu ofizialetarako zirkulazio istripu moduan hartzen dira, eta hor ikusten dugu arazoa sektore honetan, ze horregatik ez dira hartzen benetako neurriak egoera hauei aurre egiteko". Neurri prebentiboak ere eskatu zituen LABek: "Neurri prebentiboak diogunean da ikerketa sakonak egitea jakiteko zergatik eta nola gertatzen diren istripuok. Balorazio horretatik irteten diren arazoak

ikusita, neurri prebentiboak zehaztuko lirateke; berez, Osalari dagokio neurri prebentiboak hartzea, baina errepideko istripuak gertatzen direnean Ertzaintzaren esku geratzen da ikerketa –eta lan istripuetan, Osalari esku–. Arazoa hor dago: Ertzaintzak modu batera egiten du ikerketa, baina egokiagoa litzateke Osalari egitea, neurri prebentibo horiek hartu ahal izateko".

Ezbeharra, egunean

Motor batek eta autobus batek aurrez aurre talka egin zuten Aretxabaletakosaihesbidean joan den egunean, hilaren 4an. Gaueko bederatziak eta hogeian gertatu zen istripua, eta bertan hil ziren motorraren gidaria, 36 urteko gizonetako arrasatearra, eta autobusarena, Bergaran jaio eta Eskoriatzan bizi zen 44 urteko gizonetako. Ertzaintzaren hipotesien arabera, motor gidariak kontrola galdu zuen, lurre-ra erori zen eta autobus azpira sartu. Motorrak, oster, aurrez aurre jo zuen autobusaren kabinaren aurka, gidaria bete-bete harrapatuz. Bi gidariak unean bertan hil ziren istripuaren ondorioz. Larrialdi zerbitzuak bertaratu ziren; tartean, suhiltzaileak, baina osasun-langileek bi biktimen heriotza egiaztatu besterik ez zuten egin ahal izan. Hurrengo egunean, Lurraldeubeseo autobusek lazo beltza eraman zuten, hildako langilearen omenez.

Zabalik dago Hazilan egitasmoan izena emateko epea

Gaspe langabe kualifikatuak lan mundura hurbiltzen laguntzea helburu duen Debagoieneko Mankomunitatearen egitasmoa da Hazilan. Aurten bosgarren edizioa egingo da eta interesatuek otsailaren 2a baino lehen eman beharko dute izena. Prestakuntza saioak, berriz, otsailaren 19an hasiko dira eta lau hilabete iraungo dute.

Goi mailako titulazio bat duten eta euren alorrean esperientzia esanguratsurik ez duten 20 eta 44 urte bitarteko eskualdeko gazteei zuzenduta dago Hazilan. Bi fase izango ditu: lehenengoan, lan merkatuak horrenbeste baloratzen dituen zeharkako kompetentziak landuko dira; konpetentzia pertsonalak, profesionalak eta lan merkatuan kokatzeko beharrezko diren baliabideak. Bigarren, berriz, lanpostu baten trebatuz, praktikak egingo dira enpresa baten.

Elgetakoa atzera bota digute

JUAN RAMON GARAI

INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA
ARRASATE

2017ko azaroaren 14an publikoki zoriondu genuen geure burua, baita Bergarako 4. Epaitegia ere, Elgetako Udalak hartu zuen erabaki ausartagatik, non 1936tik aurrera frankismoak udalerrian eragindako krimen guztiengatik aurkeztu zuen kereila onartu zen.

Kereila horretan salatzen diren krimenengatik justizia eskaerak lehen aldiz izan zuen erantzun baikor bat, hainbat biktimak eta senitartekok urteetan zehar, diktadura garaian lehenengo eta egungo sasi-demokrazia honetan geroago, eskatzen zutena aintzat hartuaz, hainbeste urtetan ezereztuak, ahaztuak eta isilarazitakoak izan eta gero.

Kereilaren onespentak izugarrizko arrakasta soziala izan zuen Euskal Herrian eta Estatuan. Baina 38 egun bakarrik iraun du: abenduaren 22an, beste epaile batek kereilaren artxibatze agindua eman zuen, betiko aitzakiak jarriaz: delituen preskripzioa, eta, gainera, hor dagoela 1977ko Amnistiaren Legea edozein gauza barkatzeko prest. Kereilaren abokatuek aurkeztu dute jadanik helegitea.

Bergarako 4. Epaitegi horretan izan diren epaileen arteko prozedura-arrazoi edo tirabiretatik harago, garbi ikusten dugu esku politikoa izan dela epailearen aldaketa azkarra eragin duena, iniziatiba bertan behera utziaz. Esku-hartze honek agerian uzten du, berriz ere, Espainiako epailetzak duen gabezia, interes politiko atzerakoi eta demokraziaren aurkako indarrez inguratutik dagoena, estatu eta gobernu demokratikoekin zerikusirik ez duena.

Ez da lehendabiziko udala justiziaren eskaera bat bertan behera geratzen dela ikusten

duena. Ezta azkena izango ere. Baina asko dira aurrera jarraitzeko prest dauden udalak frankismoaren krimenek eragindakoak salatzeko, eta seguru gaude jarrera honek sekulako uholdea ekarriko duela frankismoak oraindik dituen lege-zirrikitu babesleak medio duen inpunitatea salatuaz, hainbat erakunde nazional eta internazionalak egiten duten moduan. Zentzu honetan, aipatzekoa da urrian Madrilgo Kongresuan oposizioko alderdiek aurkeztutako lege proposamen bat, aldaketa batzuk onartuak izan daitezen 1977ko Amnistiaren Legean eta Kode Penaleko legalitate-printzipioan.

Bergarako Epaitegian gertatutako jokaera politikoa Estatuko botereek justiziari dioten beldurraren eragina izan da. Baina frogatzen digu, baita ere, badaudela, zalantzazko legalitateen gainetik, duintasunez eta gogoz justizia ezartzeko prest dauden epaileak. Denon artean irekiko dugu egiaren, justiziaren eta erreparazioaren aldeko arrail geroz eta handiagoa, frankismoaren ehunka-milaka biktimei zor zaiena. Azken finean, benetako gizarte demokratiko batek bere buruari zor diona.

Erregeei eskutitza, Ointxe! elkartearen 50. urteurrenean

OIHANE AGIRRE

OINTXE! ELKARTEKO PRESIDENTEA
ARRASATE

Gabonetan eman diegu hasiera Ointxe! klubaren 50. urteurrenako ekitaldiei. Abenduaren 23an, 400 neska-mutil elkartu ziren Iturripen, Gipuzkoan urtero egiten den saskibaloiares festan. Abenduaren 28rako, hiruko txapelketa antolatu genuen eskualdeko gaztetxoendako. Eta oporraldi hauetan saskibaloiaz gozatzen jarraitzeko azken zita urtarrilaren 3rako antolatu genuen: lagunarteko goi

mailako partidua, Araski eta IDK Gipuzkoa taldeen artean. Emakumezkoen saskibaloia ikusarazi nahi genuen, Iturripera Dia Ligako bi euskal talde gonbidatuta.

Klubeko lehen ordezkariak arratsaldeko 6etan gerturatu ziren Iturripera; orduan konturatu ziren kondentsazioaz, eta berau arazo izan zitekeela partidua jokatzeko; zorua oso labainkor zegoen. Iturripeko arduradunei baimena eskatu zitzairen aldameneko atea eta larrialdietarako atea zabaltzeko, kondentsazio arazoa konpontzeko asmoz.

Jokalaria heldu ziren eta berotzen hasi ziren. Ikusleak ere iristen hasi ziren, eta harmailak betetzen. Guztia prest goi mailako saskibaloiaz gozatzeko!

Baina Iturripe jendez betetzen hasi zenean, tenperaturak gora egin zuen eta kondentsazio arazoak okerrera egin zuen. Partidua hasteaz bat, konturatu ginen jokalaria arriskuan jarriko genituela, eta, horregatik,

Ointxe!-ko ordezkariok epaileekin eta entrenatzaileekin bildu ginen, partidua bertan behera uzteko; harmailak beteta ikusita eta klubarekiko begirunea erakusteko asmoz, bi taldeek ahalegin berezia egin nahi izan zuten, eta jokatzeko jarraitzea erabaki zuten. Baina bigarren laurdenaren amaieran, partidua etetea erabaki zuten.

Eskerrak eman IDK Gipuzkoa, Araski eta epaileei beraien ahaleginagatik eta egoeraren aurrean erakutsitako begiruneagatik. Eskerrak Iturripera hurbildutako zaleei ere. Eta eskerrak ekitaldi hau antolatzen aritu ziren kolaboratzaile guztiei.

Klubarentzat hain garrantzitsua zen ekitaldi hartan izandako zorte txarraz berba egin dezakegu, edo aztertu gure herriak dituen kirol-instalazioen benetako egoera.

Antoñan jokatzeko dugu, eta entrenatu; Iturripen ikusi dugun kondentsazio arazoa

ohikoa da Antoñan. Musakolako kantxa nagusian dagoen argia ez da nahikoa izaten arratsaldeko azken ordurako. Urteak dira bertako markagailuak ez duela funtzionatzen.

Eta Iturripen, zorua egoera kezagarrian dago, itzelezko hotza egiten du, urteetan itoginak izan ditugu eta orain, kondentsazio arazoak.

Arrasateko kirol elkarteek eskatzen dituzten kirol-instalazioak ikuspuntu estrategiko eta estrukturaletik aztertzeko unea heldu dela uste dugu. Baloratu beharko ditugu kirola eta beronen balioak sustatzen dituzten kirol-taldeen eta norbanako herritarren kirolerako egokiak izango diren kirol-instalazio egokiak Arrasaterako. Baina erantzun egokia emateko arazoa mahai gainean jarri behar da, helburuak finkatu behar dira, eta adostasuna lortu ekintza lerroetan kirol elkarteekin batera.

Ointxe! Ointxe! Ointxe! Mondra!



Eibar Coworking

JARDUNALDIA

"RGPD: GURE PRIBATUTASUNA BABESTEKO ERRONKA BERRIA"

Eduard Domingok emango du, SEGURDADES enpresakoa; datuak babesteko arloan aditua da. Enpresa txikiei zuzendua

Urtarrilaren 18a • 10:30-12:00 • Eibarko Txikito 8, behea • Eibar

Tel.: 688 734 292 • E-posta: eibarcoworking@gmail.com

BAZATOZ?

Eibarcoworking.com

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



ZABALIK

ANARTZ AGIRRE

Orkatz

Zazpi urte igaro dira dagoeneko ETak, zorionez, behin betiko armak isildu zituenetik.

Zazpi urte luze joan dira, baina, hala eta guztiz ere, badira oraindik aldatu ez diren gauzak.

Tartean, euskal presoan eta hauen senideen egoera.

Aitzolek 15 urte daramatza kartzelan. Alcalako, Caceresko, Aranjuezko eta Huelvako ziegen hotza ezagutu du. Gaur egun, Huelvako kartzelan da, Euskal Herritik 1.000 kilometrora, bere senideengandik 1.000 kilometrora, Orkatzengandik 1.000 kilometrora.

Bost hilabete pasatxo ditu Orkatzek, Aitzolen eta Olatzen semeak.

Aita ikusteko hilabetero egiten du Bergaratik Huelvarako bide luze eta neketsua.

Hilean behin, bost hilabeteko haurrak 1.000 kilometro egin behar aitarekin tarte batean egoteko. Horrek dakartzan arrisku, kostu ekonomiko eta gainontzeko arazo guztiekin.

Garai bateko kontuak dirudite, baina oraindik ere bizirik jarraitzen duen errealitate bat da. 1.000 kilometro, 1.000 musu, 1.000 besarkada eta 1.000 negar.

Espainiako Gobernuaren mendeku goseak ez du akaberarik. 1989an martxan jarritako dispertsio politikak

1989AN MARTXAN JARRITAKO DISPERSIO POLITIKAK BERDINEAN DIRAU

berdinean dirau.

Egun, aita edo ama kartzelan duten 18 urte arteko 113 haur edo nerabe daude Euskal Herrian. Motxiladun haurrak dira. Motxila astuna ezarri diete bizkarrean, inolako ardura edo erantzukizunik izan gabe. Horieta bat da Orkatz.

Larunbateko Bilboko manifestaziorako *Prest gaude*. Euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten aldarrikatzeko. Giza eskubideak, konponbidea eta bakea behar ditugulako. Bada garaia Euskal Herrira benetako bakea iritsi dadin.


Ea gauzak aldatzeko ahalmena dutenek behingoz ulertzen duten, eta larunbatekoa azken aldia izan dadila arrazoi horregatik Bilbora joaten garena.

Orkatzek eta bera bezalako motxiladun haurrek merezi dute hainbeste.

1.000 musu, Orkatz.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Aktorea falta

JOKIN LABAIE

HTTPS://LABUR.EUS/BAPIA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Argazkia dakar albisteak. Denbora asko igaro dut hari begira, bertan ageri den detaile bat ulertu eta digeritu nahian. Hamasei pertsona azaltzen dira, sei emakume eta zortzi gizon. Denak kameraren inguruari begira, irribarrez. [...]

Denak esan dut. Ez da horrela. Arreta eman didan detaileak gainontzekoek eskaintzen duten irudia hausten du. Beheko lerroan, erdialdean, ezkerrean zein eskuinera beste pertsona bat kabitzeko moduko tartearekin,

bere izen-abizenekin ageri ez den aktorea dago. Bera da karakterizatuta azaltzen den bakarra. Aspaldian, *Gure Kasa* telebista saioan ohi duen bezala, gotikoz edo jantzita dago. Ilea tindatuta, hankak zabalik, eskuekin deabruaren keinua eginez, mingaina hozkatzen bezala. Zurine da, Aitziber Garmendiaren kaltetan.

Eta nekeza egiten zait, oso nekeza, aurkezpen egunez, gainontzeko guztiek haien dotorezia edo naturaltasuna azaltzeko eta dagokien rola betetzeko ahalegina egiten duten bitartean, aktoreak, bere kabuz, pertsonaia erakustea erabaki duela imajinatzea. [...]

Ez da saioan esketx desberdinak antzeztera platora ateratzen den aktorea. Normalean, Zurine izaten da. Eta saio osoa pasatzen du bertan, publikoan eserita, aurkezle, kolaboratzaile eta gonbidatuen tartean, gotiko, pasota eta xelebrearen papera jokatzen. Nahikoa lan esker txarrekoa duela iruditu zait.

Lan desberdinetan ikusi dut, eta iruditzen zait, ikusleen aurrean, haren talentu ikaragarria galtzea dakarrela erabaki horrek. Baina, noski, erabakia hartu duenarentzat, nerabeen saiorako, nerabearen irudia gainetik kendu ezin duen emakume txikia da; ziur asko, bere ilusioen kalterako.

goiena“

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.
Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Estrasburgoraino heltzeko asmoa dugu, urratsez urrats"

JOSU IBARGUTXI FRANKISMOAREN KRIMENEN AURKAKO KEREILEN PLATAFORMAKOA

Mireia Bikuña ARRASATE

Frankismoaren krimenen kontra Arrasateko eta Elgetako Udalek aurkeztutako kereilak bertan behera utzi ditu epaileak, hasieran Elgetakoak aurrera egin bazuen ere. "Kolpe latza" da biktimen eskubideendako. **Maider Imaz epaileak Elgetako kereila onartu ostean, orain heldu da kolpea. Nola baloratzen duzue azken erabaki hori?**

Pena handien biktimen egoerak ematen digu. Jakitun ginen halako kereila batek oso zaila izango zuela aurrera egitea. Epaile ausart batek bidea zabaltu arren, bagenekien trabaren bat topatuko genuela bidean. Baina ez genuen uste horren azkar izango zenik. Beste epaile batek prozesu osoa zapuztuko zuenik.

Epaile aldaketa nahita egin dutela uste duzue?

Ez daukagu frogarik hori horrela izan denik esateko, baina ziur gaude nahita egindako aldaketa izan dela.



Josu Ibargutxi, Elgetako Mendizaleen plazan. LARRAITZ ZEBERIO

Hilabete batera aldatu dute epailea. Edozer egiteko gai dira gure borroka tratatzeko. Egiaren, justiziaren eta erreparazioaren borrokari oztopoak ipintzeko edozer egiteko kapaz dira. Eta esango

dute epaile aldaketa hori legeko prozedura bateko parte dela. Legea betetzen ari direla. Antza, guztia egiten dute legearen barruan, lege horrek justiziarekin zerikusirik ez duen arren.

Eta, orain, zer?

Hilaren 4rako, errekurtsioa aurkeztu genuen, eta bere ibilbidea egingo du. Lurralde Auzitegiak erabaki beharko du. Seguruenez, fiskaltzak ez du onartuko. Hurrengo urratsa Auzitegi Gorena izango litzateke, eta handik, Estrasburgora.

Azkenera arte heltzeko asmotan zaudete, hortaz?

Hala da, bai. Legeak berak, bai hemengoak eta baita nazioartekoak, ematen dizkigun bide eta zirrikitu guztiak erabiltzeko asmotan gaude. Hortik aurrera, zer? Bada, ikusi beharko genuke ordurako zenbat udalek aurkeztu dituzten kereilak eta horrekin zer gehiago egin dezakegun.

Espainiako justiziaren portaera behin baino gehiagotan salatu izan da nazioartean, baita Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluan ere.

Biktimendako kolpe latza izan da, beste behin.

Bai. Esperantzara zabaldutako bidea, derrepente itxi diete. Gogorra izan da. Guk garbi daukagu: gizarteak exijitzen ez badu, biktimen arazoa erabaki barik geratuko da. Eta hori, gizartearen porrota izango da, ez biktimen porrota.

HAU BE BADOGU!

Esker eta zorion mezuak Altsasurendako



Azken urtean hizpide izan da *#Altsasu*, urtebete ondoren atxilotuta jarraitzen duten gazteak direla eta. Hala ere, asteen elurtearen ondorioz herritarrek izandako jarrera txalotu eta eskertu egin dute sarean. Errepidean ezin mugiturik gelditu ziren 1.400 lagun inguru hartu baitzituzten herritarrek kiroldegian eta euren etxeetan:

@Burundakogaztia:

"Pozgarria altsasuarren elkartasuna ikustea! Zorionak! *#Altsasu*".

Politikarien zurrunbiloa Katalunian

PDECat-eko presidente Artur Masek bere dimisioa aurkeztu zuen martitzenean, eta atzo, ERC alderdiko Carme Forcadellek Parlamenteko presidentetzan errepikatzeari uko egin zion.

Horrela, erreferenduma gauzatzeko eta Kataluniako independentzia prozesuan zutabe izan direnen dimisioek sare sozialak aztoratu dituzte, aldeko eta kontrako iruzkinekin. Biak, gainera, *trending topic* izan dira Twitterren.

Deia, '#Prestgaude' traolarekin

Bihar, zapatua, Bilbon presoen eskubideen alde Sarek deitutako manifestaziorako dei egin dute hainbat eta hainbat erabiltzailek sare sozialetan ere, *#Prestgaude* eta *#u13Bilbo* traolekin, eta gaia *trending topic* izan da aste osoan. Baita *#MotxiladunUmeak* traola ere, martitzenean ETBko *Ur handitan* saioak preso dauden gurasoak bisitatzeraz doazen umeen gaineko erreportaje berezia eskaini zuen eta.

ITURRI ONETIK

Euskal lizeorako kros solidarioa

Martxoaren 23rako, Iparraldeko Bernart Etxepare Euskal Lizeoaren aldeko kros solidarioa antolatuko du Arizmendi Ikastolak, Bergarako Aranzadi eta Oñatiko Txantxiku ikastolekin batera *Hazten gaitu hazten dugu* egitasmoari erantzun nahian. Arlo teknologiko eta profesionalarendako Baionan eraikiko den lizeo berria finantzatzeko laguntzeko ekimena izango da. Ikastola horietako ikasle eta langileek hartuko dute parte eta herritarrek ere izango dute aukerarik parte hartzeko.

GORA ETA BEHERA



Edukiontziak lekuz aldatzeko eskean

Arrasateko Maalako biribilgunetik gertu, beirazko edukiontziaren kokalekuak espaloia asko estutzen duela dio arrasatear batek: "Ez da pasatzen bikien aulkirik eta gurpil aulkia, berriz, zailtasunez". Dio autobusaren geralekua ondoan dagoenez, aurrekoan umeak takarraran zihoazela autobusa ez galtzeko, ume bat errepideko aldetik joan zela eta autobusak ia harrapatu egin zuela.





Javier Mendia, Maria Ubarretxena eta Aitor Zubiaga notariotza kanpoan. MIREIA BIKUÑA

Etxezarretako 'altxorra', publiko izatetik gertuago

Lursaila erosteko adostutako prezioaren erdia astelehenean ordaindu zion Udalak lurren jabe den Mendia familiari. 135.000 euroko ordainketa izan da, eta beste erdia bertako pinudiak kendutakoan ordainduko zaie, abenduaren 31 baino lehen

Xabi Gorostidi ARRASATE

Etxezarreta eremuaren erabilpena publikoa izan dadin urrats garrantzitsua egin zen astelehenean. Lurren jabea den Mendia familiako ordezkari bat, Maria Ubarretxena alkatea eta Besaide Mendi Elkarteko Aitor Zubiaga Arrasateko Notariotza batu ziren, orain arte adostutakoak sinatzeko. Hala, Mendia familiak

eta Arrasateko Udalak kontratua sinatu zuten, Udalari lurra erosteko lehentasuna emanez. Horren truke, Udalak adostutako prezioaren %50 ordaindu du, 135.000 euro, eta Mendia familiak bertako pinuak kendu ostean ordainduko du geratzen den beste erdia.

Azken ordainketa hori abenduaren 31 baino lehen egitea da

asmoa, eta, behin lursaila Udalaren jabegokoa denean, Ingurumen Mahaia hartuko ditu bertako erabilpenari buruzko erabakiak.

2016ko abenduan hainbat eragilek 83 hektareako lursaila erosteko eskatu zioten Udalari. Tartean zeuden Besaide Mendi Elkartea, Arrasate Zientzia Elkartea eta Naturtzaindia.



MIREIA BIKUÑA

"Formalki konprometitu dira gurekin"


MARIA UBARETXENA
ARRASATEKO ALKATEA

Zein baldintzatan sinatu duzue bi aldeko kontratua?

Lurren jabea den Mendia familia formalki konprometitu da gurekin, lur horiek Udalari saltzeko. Urtea amaitu aurretik bertako pinuak kendu beharko dituzte, eta tarte horretan ezin izango dute beste ezer landatu. Hala, hemendik aurrera, Udalak erabakiko du bertan zein espezie landutako diren.

Behin pinuak kenduta, eta bigarren ordainketa eginda, zer egingo da eremu horretan?

Hainbat adituk osatutako Ingurumen Mahaian erabakiko da bertan zer eta nola egin. Oso eremu zabala da, eta erabilera asko egiteko aukera ematen duena: erreka du, jardín botanikoa, bertako eraikin historikoak, eta abar.



MIREIA BIKUÑA

"Harizti eder bat egiteko aproposa da"

AITOR ZUBIAGA
BESAIDE ME

Borrokatu zarete, eta Etxezarreta jada herrira zabaltzeko gertuago dago.

Ez da behin betiko urratsa, erosteko aukera bat sinatu dugu eta; baina, guretzako, asko da. Oso atomizaturik dagoen probintzia baten bizi gara, eta Gipuzkoan 83 hektareako gunek bat publiko egitea gauza handia da.

Zein potentzialtasun dauka Etxezarretak?

Altzor bat da, eta horregatik egin dugu hura publiko bihurtzearen aldeko lana. Historia handia daukan eremua da, Vasco-Navarro trenaren bertatik igarotzen zen eta. Baina, horrez gain, harizti eder bat egiteko gunek aproposa izan daitezke. Etorkizun handia dauka, eta pausoz pauso joango gara bertako erabilerak zehazten.

Urtarrileko baserritarren azokan zuhaitzak izango dira aukeran

Urtarrilaren 20an zuhaitzen feria egongo da Seber Altuben, eta sei mintegitako produktuak izango dira

X.G. ARRASATE

2018an jarraipena izango du hirugarren zapatuetako baserritarren azokak. Gainera, urtarilekoa berezia izango da, zuhaitzek protagonismoa hartuko dute eta aurten ere.

Sei mintegi aukeran

Zuhaitz mota ugari izango dira aukeran, eta jada egin daitezke erreserbak. Bizkaitik etorriko dira gehienak, eta, mintegiz mintegi, hauek dira aukeran dauden zuhaitzak.

Areitio-Zaldibar mintegitik, fruta-arbolak, koniferoak eta basoko landare autoktonoak. Erreserbak egin nahi izanez gero, deitu ondorengo telefono zenbakira: 608 87 93 52. Artadi Igorre mintegikoek basoko landare autoktonoak jarriko dituzte Seber Altuben, eta, erreserbak egin nahi izanez gero, 680 93 78 75 telefonora deitu beharko da.

Belar-Zaldibar mintegikoek Areitio-Zaldibarko eskaintza bera izango dute; fruta-arbolak, koniferoak eta basoko landare

autoktonoak. Erreserbetarako telefonoa: 629 48 41 51.

Etxeberria-Gatika mintegitik fruta-arbolak egongo dira aukeran. Erreserbetarako telefonoa: 646 51 41 54.

Lurberry-Zarautz eta Udalatx-Arrasate mintegien kasuan, basoko fruitu txikiak eta ekologikoak jarriko dituzte salgai. Azken horiek alde aurretik enkargatu nahi izanez gero, 657 71 96 85 edo 690 61 08 22 telefonotara deitu beharko da, hurrenez hurren.

Aratusteetako kartel lehiaketa zabalik urtarilaren 17ra arte

Aratusteak gero eta gertuago daude, eta jaiak ilustratuko dituen kartel irabazlearen bila dabil Udalak.

Diseinu bertikalak izan beharko dute, eta halaberharrez eduki beharko dute 2018 Inauterietako Arrasate esaldia. Debagoienarrak eta aramioarrek parte har dezakete, eta irabazleak 400 euroko saria eskuratuko du.

Mozambiqueko lana herrira zabaltzeko saioa

Harreman GKEk hitzaldia antolatu du gaur, Mundukideko kideek Mozambiken egiten duten lana arrasatearrekin partekatzeke. Diru emaille berriak erakartzea eta egungoei informazioa ematea da asmoa, eta Txorbela otxoteak abestu egingo du

Xabi Gorostidi ARRASATE

Harreman gobernuz kanpoko erakundeak arrasatearrak sensibilizatzeko asmoarekin jarraitzen du buru-belarri, eta, helburu horretan sakontzeko, hitzaldi interesgarria antolatu du gaurko. Hitzordua Kultura-teko areto nagusian izango da, 19:00etan, eta, besteak beste, 2017ak utzitako balantzea aztertuko dute.

"Urtean zehar hainbat ekintza antolatzen ditugu gure proiektuetarako dirua batzeko: Elkartasun Eguna, zarzuela... eta gaurko bileran, batutako diru horiek non inbertitu ditugun azalduko dugu", adierazi du Andoni Uribetxebarriak, elkarte-kideak.

Horren harira, Harremanentzat estrategikoa den proiektu bati buruzko xehetasunak emango dituzte; hain zuzen, Mundukide mozambiketarren garapen ekonomikoa ahalbidetzeko garatzen ari den programari buruzkoak. Programa horren gidari Beñat Arzadunek hartuko du hitza, orain arte landutakoak azaltzeko eta etorkizunerako dauzkaten erronkak zehazteko.

Baserritar eraginkorrak

Hamasei urteko ibilbidea dauka Mundukidek Mozambiqueko Marrupa eskualdean. Hain zuzen ere, programa horren helburu nagusia da bertako baserritarren ahalmen ekonomikoa eta bizimaila hobetzea, batez ere, dituzten baliabideei etekin handiena ateratzeko.

Hasieran, aldaketa txiki eta praktikoen bitartez, nekazaritza eraginkorrako bat garatzen hasi ziren. Adibide bat jartzearen, lehen, euri sasoiaren egiten zen nekazaritza ekoizpen handiena, baina, urak kanalizatuta eta putzuak sortuta, urte osoan zehar ekoizteko aukera izaten hasi ziren, eta horrek onura asko dakartza.



Mundukideko kide bat Marrupako gazteekin hizketan. MUNDUKIDE

12 URTEKO EPEAN 500 BASERRITARREKIN LAN EGITETIK 12.000REKIN LAN EGITERA PASA DIRA

Ekoizpena handitzeak baserritarren gaitasun ekonomikoa handitu du, eta, horrekin batera, gizartearentzako hainbat oinarritzko zerbitzu martxan jartzea ere bai. "Duela hamabost urte ez zegoen medikurik, ez ospitalerik, ez telefonorik, ezta argindarrik ere. Eskolak kuartel zahar batean zeunden eta distritu barruan ez zen biderik. Baina urte hauetan hainbat hobekuntza egin dira: 400 ikaslerentzako eskola barnetegia, ospitale berrirako ingeniari- itza plana, 200 kilometro errepide, edo mikrokreditu plana" azaldu du Arzadunek.


Gaur egun, 24 pertsonako lan taldea dago bertan, 12.000 baserritarri negozio aukerak bilatzeko, asistentzia tekniko emateko inputak eskuratzen laguntzeko eta ekoiztutako produktuak saltzen laguntzeko.

Mundukideren ekarpena zenbakitan

2002an heldu eta gaur egunera arte egindako lanak emaitza oparoak utzi ditu Mozambiqueko Marrupa eskualdean.

"Orain dela hamar urte 500 baserritarrekin lan egiten genuen, eta gaur egun 12.000 baserritarrekin baino gehiagorekin dihardugu. Enplegu sortzaile eragile garrantzitsua gara bertan. Gure lanaren bidez baserritarrak irabazten ari diren dirua 5.000 lanposturen soldatarekin pareka daiteke. Ondorioz, Marrupan eraldaketa bat abiatu zen. Inongo negoziarik ez izatetik ia miloi bat euroko nekazari komertzializazioa edukitzera pasa da. Mundukide erreferentzia bat da Marrupan".

NIRE USTEZ



AITOR OROBENKOA

Eusko Jaurlaritzak eta CAF

Eustaten arabera, Euskadiko ikerkuntza gastuak beherantz egin zuen 2016an, azken lau urteetan bezala. Bereziki, administrazio publikoek ez dutelako behar beste baliabiderik erabiltzen. Europar Batasunak helburutzat jarri izan du ikerkuntzan emandako gastua barne produktu gordinaren (BPG) %3, baina Euskadik 2016an BPGren %1,82 besterik ez du erabili.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu jarduera berri bat abian jartzeko Jaurlaritzak eta foru aldundiek *Txekintek-Ekintzaile* izeneko diru laguntzen bitartez, batez beste, 15.000 euroko laguntzak ematen dituztela proiektu bakoitzeko.

Horren aurrean, deigarria da Arantza Tapiak iragartzea Eusko Jaurlaritzak 15 miloi euro "estrategikoki" inbertituko dituela Kutxak CAFen dituen akzioak erosteko. Kalkulu erraz batekin, esan genezake 15 miloi euro horiekin, *Txekintek-Ekintzaile* laguntzekin 1.000 proiektu berri sustatu ahal izango lirakeela.

Hona hemen behin eta berriro gogora datorkidan ideia: Euskadiko ekonomia lau haritik dingilizka dagoen honetan, politika ekonomiko zentzudunagoa garatu beharko genuke.

Meatzerreka auzoko jaiak, mendi irteera interesgarri batekin

San Valerio zainduaren omenez Meatzerreka auzoko jaiak egingo dituzte urtarilaren 20an. Aurtengo ekintzen barruan, mendi irteera bat antolatu du jai batzordeak. Ibilbidea urtarilaren 20an egingo da 08:30etik 13:00etara bitartean.

Hasiera eta amaiera leku berean egingo da, Meatzerrekako elkartean, hain zuzen. Parte-hartzaileek, ibilbidea amaitzean, elkartean mokadutxoia jateko aukera izango dute.

Ibilbidea Jesus Mari Zuazu-biskar auzotarrak gidatuko du eta Arrasateko meatzarien lan-esparruak ezagutzeko aukera izango dute auzora hurbiltzen diren guztiek.

'Familian jolasean', domekero, urtarriletik martxora bitartean

Negu parteko eguraldi pattalaren eraginez, zaila izaten da haurrek eta gurasoek espazio ludiko aproposak aurkitzea. Horri erantzuna emateko asmoz dator, beste behin, Udaleko Gazteria Sailaren *Familian jolasean* programa, 0 eta 8 urte arteko haurrak dituztenentzat.

Aurreko urteetan, hitzordua hilean behin bazen ere, aurtengo berrikuntzetako bat da neguko igandeetan saioak egitea. Horrela, urtarilaren 14tik martxoaren 11ra bitartean, zortzi saio egingo dituzte Okendoko ludotekan.

Antolatzaileak gertu daude familien proposamenak jasotzeko, eta programa osatzeko.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Konxiki Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13



Eva Abuin, Juan Luis Merino eta Piter Encinas lehen sinadurak batzen Garibaiko geltokian. XABI GOROSTIDI

Lurraldebusen aldaketen aurka, sinadura bilketa

Abenduko osoko bilkuran, Lurraldebusen ordutegi aldaketaren aurkako mozioa jarri zuten mahai gainean oposizioa hiru alderdiek. Ez zuen aurrera egin, eta, hori dela eta, sinadura bilketa jarri dute martxan, herritarren iritzia kuantifikatzeko asmoz

Xabi Gorostidi ARRASATE

EH Bilduk, Baleiek eta Irabazik sinadura bilketa jarri dute martxan, Lurraldebusen egin-dako ordutegi aldaketen aurka dauden herritarren kuantifikatzeko.

Aurrez Oñatin eta Eskoriatzan ere egin dituzte antzerako bilketak, eta 1.500 eta 600 sinadura jaso, hurrenez hurren. Hala, urtarilaren 31ra arte martxan jarri dute bilketa kanpaina, autobus geltokietan eta herriko beste guzti batzuetan. Ez da beharrezkoa izango Arrasaten erroldatuta egotea, eta 16 urtetik gorakoa izatea izango da baldintza bakarra.

"Kezkatuta gaude gure eskualdean Lurraldebus zerbitzuak izan duen murrizketarekin. DG10 linean autobusen maiztasuna %35 jaitsi da astegunetan eta %25 asteburuetan. Aurreko legealdian, 100 batzar egin eta 5.000 ekarpen jaso ostean, hoge minutuan behingo maiztasunak adostu ziren herritarrekin, eta

ordutegi aldaketa honekin eze-rezean geratu da aurreko prozesu parte hartzailea. Orain, maiztasunak, batez beste, 30 minutuan behingoak dira, eta ez zaigu justua iruditzen, batez ere, hirietako auzoetako maiztasunak 10 eta 15 minutu artekoak direnean", azaldu zuen Baleieko Eva Abuinek.

Piter Encinasek adierazi zuen neurri horiek ez dituztela Arrasateko biztanleak bakarrik kalteztzen, baita Arrasatera datozen beste herri batzuetako erabiltzaileak ere. "Ospitalera edo ikastera datozenentzat kalteak, adibidez, nabariak dira. Institutuko irakasleen aldetik jakin dugu ikasleetako batzuk berandu edo arinegi heltzen direla,


GAI HONETAN BERGARAN ALDE ETA ARRASATEN AURKA BOTATZEA LEPORATU DIOTE GOBERNUARI

autobusen maiztasuna jaistea-gatik", gaineratu zuen Juan Luis Merinok.

EAJren eta PSE-EEren jarrera

Udal Gobernuak auzi honetan izandako jarrera kritikatu zuten, abenduko osoko bilkuran oposizioak planteatutako mozioaren aurka botatu zutelako. "Udal Gobernuak murrizketak ukatu zituen. Harrigarria da, bereziki, egun batzuk geroago, Bergaran, alderdi guztiek herritarren eskubideak defendatzea onartu zutelako gai honen inguruan, EAJ eta PSE-EE barne zeudela".

Maria Ubarretxenak esan du abenduaren 23an batzartu zirela Aldundiarekin arazoari konponbidea aurkitzeko. "Oñatin ere egin zuten sinadura bilketa, baina segituan Aldundiarekin bilerak egiten hasi ziren. Guk ere gauza bera egin dugu. Herritarren kezak heldu zaizkigu, eta horiek Foru Aldundiari helarazi dizkiogu, eurek dute-eta gai honi dagokion eskumena".



Kepa Arkauz, aske geratu ostean, bere argazkia kentzen. MAITE TXINTXURRETA

Hiru preso arrasatearretatik bat aske geratuko da 2018an

Julen Mendizabalek maiatzaren 7rako dauka ezarrita irteera data, bost urteko espetxealdia bete ostean

X. G. ARRASATE

2017an zehar lau preso arrasatear geratu dira aske. Kepa Arkauz izan zen horietan lehena, irailaren 21ean; gero, Aratz Gomezen txanda izan zen, urriaren 19an; eta azkenik, Premín Sanpedro eta Txus Goikoetxearena, abenduaren 20an. Irailtik abendura preso kopurua zazpitik hirura pasa da. Unai Parot, Josu Arkauz eta Julen Mendizabal dira espetxean jarraitzen dutenak, eta hau da haien egoera.

Mendizabal aske maiatzean

Julen Mendizabal Osnyko espetxean dago preso, eta maiatzeko du ezarrita irteera-data. 2013ko maiatzaren 7an atxilotu zuten, eta justu bost urte geroago geratuko da aske. Zazpi urteko espetxe zigorra bete behar zuen, baina ikasketengatik hainbat egunetako erredentzioa jasotzeko eskubidea dagokio.

Josu Arkauz izango litzateke, hasiera batean, aske geratzen hurrengoa. Gaur egun, Murcia II espetxean dago, eta 2023rako dauka ezarrita irteera-data. Ordurako, 32 urte egingo litzuzke preso. Presoen aldeko eragileek jakinarazi dutenez, Europako legediak dioena betez gero, 2015a ezkeron egon beharko luke aske, Frantzia egindako espetxe urteak eta Espainiako zigor kode zaharrak barne zituen erredentzioak kontuan izanda.

Unai Parotek 2020an aske geratu beharko luke, 30 urte preso egon ostean. Baina espetxean ustez aurkitutako gutun baten ondorioz, 2020an hamabi urteko beste espetxe zigor bat hasiko luke, "mendekuz sorturiko" zigor kodearen aldaketa baten ondorioz, presoen aldeko eragileek adierazi dutenez. Gaur egun, Puerto III espetxean dago: "Oso baldintza gogorretan".

Emakume raketisten erakusketa, urtarila amaitu bitartean

Kulturateko klaustroak erakusketa bat jasoko du, raketekin ibiltzen ziren emakumei buruzkoa. Erakusketa hilaren 16tik 28ra bitartean eongo da ikusgai, 17:30etik 20:30era. Hilaren 23an (martitzena) dokumentala proiektatuko dute, 18:00etan, Kultureteko areto nagusian, eta azken egunean, partida erakustaldiak izango dira.

15.045 euro batu dira Arrasaten 'Tripontzia' sariaren salmentan

Herriko Gure Esku Dagoko ki-deak pozik eta eskertuta daude Tripontzia Urteberriko Sariak Arrasaten izan duen harrera ikusita.

Guztira 3.009 txartel saldu dira, eta 15.045 euro batu. Zozketa urtarilaren 15ean izango da eta saritutako zenbakia saltokietan eta GEDren Facebook orrietan jarriko dute.

Kooperatibismoa ardatz hartuta, judoa barneratu

Arrasateko Desoreka Judo Klubak badaramatza urte batzuk Judo Koop ekimena lantzen, dinamika kooperatiboen bitartez ikasleek judoa ahalik eta modu zabalenean barneratzeko; orain, ekimen horren zabalkundea aztertzen ari da elkarte

Eneko Azurmendi ARRASATE

2012an sortu zen Desoreka Judo Kluba, eta azken lau urteetan Judo Koop izeneko ekimenarekin buru-belarri ari dira. Hezkuntza arlotik hartutako dinamika bat da, eta, denbora honetan, judoan txertatzeko ahalegina egiten ari dira. "Taldea sortu genuenok hezkuntzarekiko sentsibilizazio maila handia dugu eta nire kasuan, behintzat, unibertsitatean eta hortik kanpo egin ditudan lan asko eta asko judoan eta hezkuntzan zentratu dira. Metodologia ezberdinak ikusteaz gain, aztertu ditugu judoa lantzeko erabili izan diren tendentziak kirolaren historian zehar. Hori dela eta, pentsatu genuen judoa dinamika kooperatiboen bitartez barneratzeko baliabide baten beharra zegoela, eta horren emaitza da Judo Koop", azaldu du Markel Urrutiak, Desoreka elkarte-ko koordinatzaile eta arduradun teknikoak.

Urrutiaren esanetan, dinamika kooperatiboen funtsa da talde lana eta taldeko kide bakoitzak helburu berberak izatea. Hori aintzat hartuta eta konpetentzia digitalak-ordenagailuak, tabletak, eta abar-erabiliz, hurrek judoaren gaineko ahalik eta pertzepzio zabalena izatea da ekimen horren helburua. "Euren artean dinamizatzuz, hurrek lortzen dute kirolaren ezaugarriak barneratzea: puntuazio sistema ezagutzea, denbora kudeatzea, zigorrak erabiltzea taktika bat sortzeko... Beraz, iruditzen zaigu baliabide oso interesgarria dela judoa bere osotasunean ulertu ahal izateko", azaldu du Urrutiak.

Zabalkunde prozesuan

Orain arte, talde barruan garatu izan dute ekimena, eta, Urrutiaren arabera, "oso erantzun ona" izan du. "Ikasleek ondo barneratu dituzte judoaren ezau-



Aretxabaletako Judo Topaketa, Ibarra kiroldegian. ENEKO AZURMENDI

garriak", adierazi du. Hori kontuan hartuta, taldetik harago zabaltzea da helburua, eta horretarako lehen saiakera abenduaren 28an egin zuten, Aretxabaletan egindako Judo Topaketan -Ermuko Sonkei, Zarauzko Lizardi eta Desoreka izan ziren topaketa hartan-. "*Lehiaketa sistema moduan ezartzeko ideia izango bagenu, zein arazo edukiko genituzke?* Galdera horri erantzuten saiatzen ari gara. Izan ere, ikusi genuen bestela edukitzen ez ditugun arazo txiki batzuk sortzen direla, anto-

lakuntzari eta baliabideei lotutakoak. Oraindik Aretxabaletako saioaren balorazioa egiten ari gara eta ondorengo aste-hilabeteetan ikusiko dugu modu hau talde barruan bakarrik lantzen jarraitu, hobeto gartzeko, edota zabalkundea ematen hasi, lehiaketa edo txapelketetan", dio Urrutiak.

'Puntua' aldizkarian

Gaur, egubakoitza, *Puntua* aldizkarian Desoreka Judo Klubaren gaineko artikulua dago irakurgai, 26. orrialdean.

Sailkapeneko azkena hartuko du Kanpanzar ARTk, Mojategin

Etzi, domeka, izango da partidua, 12:30ean, Mojategin, Baztango BTR-Menditarrek RT taldearen aurka

E.A. ARRASATE

Inor gutxi aurreikusiko lukeen denboraldia egiten ari da Kanpanzar ART. Izan ere, mailaz igo berri eta jendez justu ibilita, aukera asko zituen sailkapeneko azkeneko postuetan ibiltzeko. Baina ez. Seigarren postuan dira arrasatearrak, eta domekan hitzordu garrantzitsua dute kategoria eusteko bidean.

Bigarren itzuliko lehen partidua izango da Igor Isasiren mutilentzat domekakoa. Baztanten garaipen batekin abiatu zuten liga, eta oraingoan ere ez dute hutsik egin nahi arrasatearrek, etxean, aurkari beraren aurka. "Egutegian gorritz markatuta daukagu partidua hau aspalditik. Han irabazi egin bagenuen; hemen ezin dugu hutsik egin", azaldu du entrenatzaileak.

Azpmarratu du taldea egiten ari den denboraldia ikaragarria



Kanpanzar ARTko jokalaria bat. I.S.

dela, eta oso pozik dagoela onartu du. "Ez genuen espero horrelako emaitzak lortuko genituenik. Lesioek ere errespetatu gaituzte, oraingoz. Motibatuta gaude. Bigarren itzuliko partidua gehienak erabakigarriak izango dira mailari eusteko".

Arrasate-Udalatxen izena emateko aukera hilaren 27tik aurrera

Urtarrilaren 27an, 00:00etan -egubakoitzetik zaptura bitartean- zabalduko dute aurtengo Arrasate-Udalatx lasterketarako izen-ematea. *Herrikrosa.eus* webgunean egongo da horretarako aukera. 350 lasterkarik parte hartu ahal izango dute, gehienez. Kopuru hori gaindituz gero, aurten ere itxarote-zerrenda egongo da.

2018ko kiroldegiko abonua doan aterako zaio herritar bati

Udaleko Kirol Sailak kanpaina bat abiatu du, *on line* zerbitzua sustatzeko. Kanpaina parte hartzeko, kirol abonua duen edonork *on line* zerbitzua erabiltzeko alta eskaera egin behar du, eta bere datu pertsonalak eguneratu behar ditu urtarrilaren 31a baino lehen *Kirolaonline. arrasate.eus* helbidean. Otsailaren 2an egingo da zozketa.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta

beinke

arrasate



Esto no me lo esperaba emanaldia. ZANGUANGO ANTZERKI TALDEA

Amaia antzokia, ekitaldiz beteta martxora arte

Kontzertuak, antzerkiak, opera, bertsoak, eta abar izango dira datozen hiru hilabeteetan; 'Esto no me lo esperaba', 'Ergela' eta 'La casa de Bernarda Alba' antzezlanak eta haurrendako 'Kontukantari 2' dira emanaldi garrantzitsuenetakoak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Inpernuko emanaldiak estreinatuko du 2018a Amaia antzokian –informazio gehiago 40. orrian–, eta martxora bitartean publiko ezberdinarentzako eskaintza zabala egongo da.

Urtarrilaren 28an –domeka–, 19:30ean, *Esto no me lo esperaba* izeneko antzezlanak izango da ikusgai, Zanguango antzerki taldearen eskutik. Emiliano Zapataren bizitza ardatz hartzen duen antzezlanak da, eta figuranteen rola gainera hausnarketa bultzatzen duena. Sarrerak salgai daude *Arrasate.eus* webgunean, 10 eurotan.

Otsailari *Kontukantari 2* haurrendako antzezlanak emango dio hasiera. Hilaren 3an –zapatua– izango da emanaldia, 17:00etan. Emanaldi horrek oroimenean dauzkagun abestiak biltzen ditu, eta betiko euskal kantak erritmo ezberdinetara eramanez, protagonista bilakatzen diren txotxongiloak bidelagun direla.

Otsailaren 11n –domeka–, 19:30ean, Sara Cozar eta Joseba Apaolaza aktoreek *Ergela* umorezko antzezlan eskainiko dute. Proba psikologiko batzuetara aurkeztu da protagonista, diru pixka bat irabazteko asmoz. Bere arazo ekonomikoak konpontzeko diru erraza irabazteko joan da, baina tranpa eta iruzurra aurkituko ditu ordainetan. Halaber, bere onenak eman beharko ditu zorritzarako amaierarik gerta ez dadin.

Otsailaren 25ean –domeka–, 19:30ean, *Los visitantes* antzerkia egongo da. Sei artista handik –tartean Asier Etxeandia eta Jon Maia–, maistra batek gidatuta, ikus-entzuleekin partekatzen dute beren begirada gai

**MARTXOAREN 24AN
ETA 25EAN KANTARI
TELEBISTA SAIOAREN
SEIGARREN EDIZIOA
GRABATUKO DUTE**

aukeratu batzuei buruz. Hausnarketak, elkarrizketak, musika, eta abar uztartuko dira.

Martxoan sartuta, *Izar* haurrentzako antzerkiak gozatzeko aukera izango da hilaren 3an –zapatua–, 17:00etan. Izar 9 urteko neskato bat da, gurasoen diziplina zorrotzaren ondorioz, piano-jole ospetsua da mundu mailan. Arazo bakarra dago: ez da zoriontsu.

Martxoaren 10ean –domeka–, *La casa de Bernarda Alba* antzezlanak izango da, 19:30ean. Iraganera egindako bidaia horrek berdintasunik ezaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren gainera salaketa egiten du.

Martxoaren 24an eta 25ean –zapatua eta domeka–, Kantari saioaren seigarren edizioa grabatuko dute, 11:00etan.

Beste hainbat ekitza

Azpimarragarrienak horiek diren arren, beste zenbait ekitza ere hartuko ditu Amaia antzokiak urtariletik martxora bitartean.

"Negu Gorriak eta Kortatu gure erreferenteak izan dira"

JUAN ROJAS 1280 ALMAS TALDEKO BAXU-JOLEA
Eguenean gaztetxean izango dira kolonbiarrak

E.A. ARRASATE

Kooltur Ostegunetako hurrengo gonbidatua da 1280 almas talde kolonbiarra. Diskoa grabatzen ari dira Usurbilgo Higain estudioan, eta, hori aprobetxatuta, Arrasaten egingo dute geldialdia. Kontzertua egunean izango da, gaztetxean, 22:00etan.

Disko berriarekin ari zarete.


Hori da. Urtarrila grabatzen pasako dugu, eta Kolonbiara disko berriarekin itzuliko gara. Gero, masterizatu eta hori guztia egin ostean, espero dugu maiatzerako argitaratzea, eta irailean Europara itzuliko gara, disko berria aurkeztera.

Ze izen izango du zuen zortzigarren lana izango den horrek?

Oraingo, *Lluvias de Marte*. Baina, agian, aldatu egingo dugu. Oso pozik gaude Euskal Herrian jendeak eskaini digun arreta adeitsuagatik. Oso gustura sentitzen gara hemen, eta, agian, euskarazko hitz bat erabiliko dugu, nolabaiteko omenaldia egiteko Euskal Herriari.

Nola definituko zenuke egiten duen musika?

Esan daiteke kolonbiar rockaren aitzindariak garela. Izan ere, gure taldea sortu zenean (1992), rocka lantzen zuten oso talde gutxi zeuden Kolonbian, eta gure ostean, *boom* handia gertatu zen, talde ugari sortzen hasi ziren. Rocka lantzen dugu, baina barrutik datorkigun etxeke musikarekin ere hainbat fusio egiten dugu. Horregatik diogu rock kolonbiarra egiten dugula.



Juan Rojas. JANQUEST

Influentzia tropikala daukagula uste dut. Letrari ere garrantzi handia ematen diogu. Ardura sozial handiko letrak ditugu. Arlo sozialean, justizia egon dadila aldarrikatzen dugu, gure ardura nagusia hori da.

Zergatik ari zarete hemen grabatzen?

90eko hamarkadan gure erreferentzia nagusiak izan ziren Negu Gorriak eta Kortatu. Fermin Muguruzarekin ere kontaktuan egon ginen garai hartan. Sentitzen dugu musika haren tendentzia bera duela gure musikak ere. Beraz, euskal rockaren soinu efektua lortzeko helburuarekin, hainbat estudio aztertu ditugu, eta, azkenean, Higain estudioa aukeratu dugu.

Kontzerturako gogotsu?

Oso motibatuta. Festa hutsa izango da kontzertua eta festa hori ahalik eta herritar gehienekin partekatu gura dugu.

Kalikenyo Rocken izango da aurten ere Arkada Social taldea

Besteak beste, The Badoom Show eta The Casualties nazioarteko taldeekin partekatuko dute oholtza arrasatearrek ekainaren 7an, 8an eta 9an Lleidan (Katalunia) egingo den Kalikenyo Rock jaialdiaren XIII. edizioan –iaz ere jo zuten jaialdi horretan–.

Lehenengo egunean –ekainak 7, eguna–, The Casualties, Kaos Urbano, El Ultimo Ke Zierre,

Arpaviejas, Andanada 7 eta Dekadentes taldeak ariko dira.

Bigarren egunean –ekainak 8, egubakoitza–, Ilegales, Narco, Rat-Zinger, Gospel Punk, DCD, Trashtucada eta Penadas Por La Ley taldeak ariko dira.

Azkenengo egunean –ekainak 9, zapatua– izango da arrasatearren txanda. Beraiekin batera, The Badoom Show, Non Servium, Hamlet, Skakeitan, Milenrama eta Las Tipex izango dira.

Oraindik konfirmatzeke daude beste talde batzuk.

Amaia antzokia

Musika
Antzerkia
Haur antzerkia
Opera

Urtarrila-Martxoa

2018



MUSIKA

Urtarrilak 14

'Inpernuko' / Xabi Solano Maiza



ANTZERKIA

Urtarrilak 28

'Eso no lo esperaba' / Zanguango



HAUR ANTZERKIA

Otsailak 3

'Kontukantari 2' / La Enana Naranja



ANTZERKIA

Otsailak 11

'Ergela' / Txalo



OPERA

Otsailak 19

'Il Trovatore' / Opera 2001 eta Ozenki



ANTZERKIA

Otsailak 25

'Los visitantes' / Khea Ziater



HAUR ANTZERKIA

Martxoak 3

'Izar' / Marie de Jongh



ANTZERKIA

Martxoak 10

'La casa de Bernarda Alba' / Pabellon 6



MUSIKA

Martxoak 24 eta 25

'Kantari' / Goierna

Laguntzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Kultura Saila ■

Sarrerak: www.arrasate.eus



Eguazten arratsaldean, eskolako irteera ordua aprobetxatuz, talde argazkia atera zuten zenbait ikasle, irakasle eta gurasok, Aramaioko Herri Curriculumari babesa adierazteko. XABI URZELAI

Herriko ondarea, eskutik eskura

Gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute Aramaioko Herri Curriculum, 18:30ean, kultura etxean; proiektuaren muina azaltzen duen dokumentala proiektatuko dute, hainbat sektoretako herritarren testigantzak batzen dituen; Porrotxek girotuko du saioa

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Aramaioko Herri Curriculumaren garapenean ezinbestekoa izan da bi ikaslek emandako laguntza. Izan ere, batetik, Asier Fernandez donostiarra, Ikus-entzunezko Ikasketen Gradu Bukaerako Lan gisa, Aramaioko Herri Curriculumaren gaineko dokumentala sortu du, hainbat sektoretako herritarren testigantzak batzen dituen. Eta, bestetik, Leire Fernandez arrasatearra, hezkuntza arloko ikasketak egiten ari dela aprobetxatuta, Aramaioko ondarearen transmisioa gelaratzeko sekuentzia didaktiko bat sortu du, proiektu gisa.

Lehenari dagokionez, gaurko aurkezpenean proiektatuko den lana da, hoge minutu irauten duena. Errastik adierazi duenez, hasieratik iruditu zitzaion proiektu interesgarria, "herri oso bati"

egindako ekarpena delako. "Egitasmo polita iruditu zitzaidan, herriarekin eta hezkuntzarekin lotura handia zuena. Beraz, ahal izan dudana heinean, nire ekarpena egin dut", azaldu du dokumentalaren egileak.

Hainbat sektore eta arlotan diharduten aramaiotarren testigantzak biltzen ditu Errastiren lanak. "Ikusteko eta balioan jartzeko herriak historikoki izan duen potentzial guztia, gaur egun duena eta aurrerantzean izan beharko lukeena. Hori biltzen saiatu naiz, benetan herritarrei transmititzeko balio hauek guztiak, hainbat urtetan landu direnak, eskolan transmititu behar direla, etorkizuneko aramaiotarrak haurrak direlako. Aramaio herri aberatsa da kultura aldetik, nekazaritza aldetik, artisautza aldetik, eta abar, eta herritarrek benetan kontziente

izan behar dute horretaz, hori bermatzeko eta haurrei balio hori transmititzeko", dio.

Sekuentzia didaktikoa

Bestalde, Leire Fernandez arrasatearra 5 urteko haurrendako sekuentzia didaktiko bat garatu du. "Hasierako asmoa zen 4 eta 5 urteko haurrekin lantzea sekuentzia. Baina arazo batzuk egon ziren, eta, azkenean, 5 urteko gelan bakarrik gauzatu genuen. Egokitzen asko egin behar izan ditugu, eta, azkenean, bi urte iraun du proiektuak, azkeneko bertsio hori gauzatze-

**DOKUMENTALA ASIER
ERRASTIK EGIN DU
ETA SEKUENTZIA
DIDAKTIKOA, BERRIZ,
LEIRE FERNANDEZEK**

ko", azpimarratu du Fernandezek. Elikadura jasagarria eta Aramaioko baserri mundua izan da sekuentzia didaktiko horren ardatza. Honela azaldu du Fernandezek proiektuaren gauzatzeari: "Ikasleei iritsi zitzaion Enma izeneko kanpotar baten bideo bat, esanez munduko leku ezberdinetako bideo bat muntatzen zebilela eta Aramaioko inguruak ezagutu nahi zituela. Baina, kasualitatez, istripu bat izan, eta ezin zen herrira etorri. Hori dela eta, bideoan eskatzen ziren ikasleei proiektua aurrera eramaten laguntzeko. Beraz, proiektu guztia dago zentratuta Enmari laguntzen. Jarduerak egin dira, eta, antzerki baten bidez, abestiekin eta abar, Aramaioko baserri mundua azaldu zioten Enmari ikasleek. Iazko ikasturte bukaeran -2017ko ekainean- egin genuen antzerki hori, kultura etxean. Antzerki hori grabatu eta Enmari bidali genion, eta ikasleek haren erantzuna jaso zuten, eskerrak emanez eta gauza asko ikasi zituela esanez".

Arrasatearra dio "ikaragarria" dela umeen erantzuna Aramaioko eta gertuko gaiak jorratzen direnean. "Hasierako momentutik haurrak oso pozik egon dira. Eurentzako, motibazio gehigarri bat da herriari buruzko gaiak jorratzea. Eta motibazio hori kontuan hartuta, askoz gehiago ikasten dute". Hori horrela, hezkuntzan markatu beharko litzatekeen nora-

bidea hori dela nabarmendu du Fernandezek. "Ahal den neurrian, klasean lantzen diren gaiak herriarekin eta testuinguruarekin loturikoak izan beharko lirateke, haurren interesa asko handitzen delako eta emaitza ikaragarria delako".

Egunerokoan landuz

Sekuentzia didaktiko hori proba pilotu moduan erabili da, baina, Saioa Uriarte irakasleak azaldu duenez, etengabe ari dira Aramaioko gaiak lantzen, hainbat proiekturen bidez. "Irakasleok kontuan hartzen dugu Aramaiok zer eskaintzen digun, eta edozein gai erabili daiteke Aramaiori buruz gehiago ikasteko. Gainera, gaia edozein dela ere, umeek beti dute interesa, eta galdetzen dute: "Eta Aramaion zer?". Eta ez bada hala, irakasleak galdetzen du eta gaia Aramaiora bideratzen du. Umeentzako interesgarrienak euren herriko gauzak dira. Harritzen dira, kezkatzen dira, interesa erakusten dute", dio.

Uriarteren iritziz, modu naturalan egin beharreko gauza bat da. "Umeek ez dakite zer den Herri Curriculum, eta hori ere bada helburua, naturaltasunez egunerokoan Aramaiori buruz gehiago ikastea, Herri Curriculum lantzen ari direla jakin gabe. Berez dute herriko gaien gaineko interesa, eta hori bultzatu nahi dugu, hain zuzen. Oraingoz, gustura gaude emaitzarekin, eta hala jarraitzea espero dugu".



2016ko Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren aurkezpena. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Taldeakako lanaren bidez bertsogintza sustatuz

Bihar, zapatua, aurkeztuko dute Arabako Kuadrilla Arteko Bertso Txapelketa, Gasteizko Amaia zentroan, 11:00etan; bi urtean behin antolatzen den taldekako ekimena da, herrikoia eta Arabako bertso eskolek sortzen duten egituraren oinarritzen dena

Eneko Azurmendi ARAMAIO

2010ean egin zen lehenengoz Arabako Kuadrilla Arteko Bertso Txapelketa, Arabako Bertsozale Elkartek antolatuta, eta, orduz geroztik, bi urtean behin egiten da. 2018koaren aurkezpena bihar, zapatua, egingo dute, Gasteizen, eta martxoaren 17ra arte iraungo du.

Asier Lafuente Arabako Bertsozale Elkarteko kidearen esanetan, taldekako ekimen bat da, bertsogintzarekiko zaletasuna bultzatzea helburu duena. "Ekimen honen berezitasun bat da bertsolariek ez dutela banaka parte hartzen, baizik eta taldeka. Talde bat osatu beharko dute, eta, bertsolariez gain, epaile bat, gai-jartzaile bat, saioa grabatuko duen norbait, argazkiak aterako dituen norbait, kronika idatziko duen norbait, sukaldari bat, musikari bat, eta abar eduki beharko ditu talde horrek. Hamar-hamabi laguneko taldeak osatuko dituzte", azpimarratu du Lafuente.

Bertsozale berriak helburu

Txapelketan parte hartzen duten talde guztiak oinarritzen dira Araban dauden bertso eskoletan, eta bertsoarekiko zaletasuna pizten laguntzen du, bere formatuarengatik, Lafuenteren esanetan. "Halako ekimen batek lortzen duena da jende berria hurbiltzea bertsogintzaren ingurura. Aipatutako talde hori osatzeko behar horrek dakar, denboraldi batean, behintzat, jende berria bertso eskolara hurbiltzea eta bertsoaren gaineko zaletasuna piztea jende berri horrengan", azpimarratu du Bertsozale Elkarteko kideak.

Izan ere, modu batera edo bestera, bertsogintzarekin harremanetan egongo dira parte-har-

tzaileak txapelketak irauten duen hiru hilabeteetan, izan taldeko sukaldaria edo izan taldeko argazkilaria, eta kontaktu horrek ahalbidetuko du, elkarlan horren bitartez, zaletasun hori indartzea, Lafuenteren esanetan.

Berrientzako aukera

Txapelketa horrek, bestalde, oraindik jendaurrean abesteko esperientzia gutxi duten horiei ere laguntzen die. Izan ere, parte hartzeko helburu orokorra dauka txapelketak, Lafuenteren arabera. "Betiko bertsolariek parte hartzen dute, baina baita bertsolari berriek ere. Batzuk gazteak dira eta lehenengo plazarak dituzte oraindik. Euskarekin jolasten ibiltzen diren horiek eta jendaurrean inoiz kantatu ez duten horiek, txapelketaren formatuarengatik, eta taldearen babesarekin, pauso hori emateko aukera izaten dute, eta hori da bultzatu nahi duguna", azaldu du.

BERTSOZALE BERRIAK SORTZEAZ GAIN, BERTSOLARI BERRIEI AUKERA EMATEA DA HELBURU NAGUSIA

Santa eskean ateratzeko entseguak, 18tik aurrera

Urtarrilaren 18an eta 25ean eta otsailaren 1ean egingo dituzte entseguak, kultura etxean, 19:00etan

E.A. ARAMAIO

Otsailaren 3an –zapatua– egingo dute Aramaioko Bertso Eskolak, Triki Kalejira Trikiti Taldeak, Bizente Goikoetxea Abesbatzak eta Papargorri Abesbatzak antolatutako 2018ko santa eskea, eta, ezdarriak prestatzen joateko, hiru entsegu egingo dituzte: urtarrilaren 18an eta 25ean eta otsailaren 1ean –eguenak–, kultura etxean, 19:00etan.

Esan bezala, otsailaren 3an izango da egun handia. 09:45ean abiatuko dute santa eskea, plazan, eta Ibarran eta zenbait auzotan ibili ostean –Zalgo, Arraga, Eguzkierripa...–, Iturrieta sagardotegian egingo dute bazkaria, 13:45ean. Bazkarian izena emateko azken eguna urtarrilaren 25eko entsegu izango da. Helduek 20 euro ordaindu beharko dute eta haurrek, 13.

Iaz bezala, batutako dirua Aramaioko elkarteetara bideratuko dute, gero haiek ekingizaren bat antolatuz, herrira itzultzeko baldintzarekin.

Aurtengo santa eskea iragaritzeko eta sustatzeko, ondorengo esaldia erabili dute antolatzailleek kartelean: *Pintto eta kuadrillie ederto ibili zien igez... Aurten be badatoz, eta zu?*

Iturrietan egingo dute aurtengo txotx irekiera, hilaren 18an

12:00etan izango da txotx irekiera, eta Alberto Zerain zenaren familiakoek emango diote hasiera sagardo denboraldiari. Familiarekin batera, Zerainen gertukoa izan den beste mendizale bat ere egongo da. Iturrieta sagardotegiko Juanjo Peciña arduradunak aurreratu du kalitatezko sagarra dagoela. "Berme handia dago aurtun".



NIRE USTEZ

ANDONI ELEJALDE

Udalari nire iritzia eskaini

Gaurkoan, Ibargoian aparkalekuekin daukagun arazoaz hitz egin nahi dut; bereziki, zabor-edukiontzia inguruak.

Badira egun batzuk Udalak atari bakoitzean notifikazioa jarri duela arazo honen inguruan informatzeko. Ez aparkatzeko eskatzen du, bestela neurriak hartu behar dituela jakinaraziz.

Ez dakit zertan datzan neurri horiek, baina badakit auzotarrok aspaldi ikasia genuela edukiontzia ondoan aparkatzea ez zegoela ondo, eta ziur nago proposamen berriak ere onartu eta ikasiko ditugula.

Bada oraindik hainbat alditan ahalegindu arren kendu ez diren aparkalekuak. Orain ere, eurekin gabiltza bueltaka!

Arazoak Ibargoia 22an badaude, zabor-biltzaileak ezin duelako zaborra jaso edota auzotar batzuek ezin dutelako autoa euren garajetara sartu, nik neuk onartuko nuke aparkaleku hori benetan kentzea, baina ez diot zentzurik ikusten Ibargoia 24ko atarian gauza bera egiteari.

Eta berdin osaba Santiren etxe ondoko aparkalekuaz, betiere, inork horrekiko arazorik ez badu erakutsi. Jakina!

Ea zertan geratzen den. Beste bat arte.

Astelehenean hasiko dira GAH eskolak kiroldegian

Urtarrilaren 15ean hasiko dituzte gluteoak, abdominalak eta hankak lantzeko saioak kiroldegiko gimnasioan.

Eskolak jasotzeko hiru aukera daude: astelehenetan, martitzenetan edo bi egunetan. Kasu guztietan, 18:30ean izango dira. Guztira, hamazortzi herritarrek hartuko dute parte ikastaro horretan.



Hainbat lagun liburutegiko ordenagailuetan lanean. MIRARI ALTUBE

Hamar urte betetzear, txiki geratu da liburutegia

Arkupe kultura etxeak lehenengo solairuan egin zion lekua 2008an Udal Liburutegiari, eta egoitza berriak aldaketa handiak ekarri zituen: gune bereziak, zerbitzu gehiago eta erabiltzaile berriak. Hamar urte geroago, toki barik gelditzen hasita dago

Mirari Altube ARETXABALETA

Ekainean hamar urte beteko ditu Arkupe kultura etxeak eta harekin batera Udal Liburutegiaren egoitzak. Aldaketa handia ekarri zuen eraikin berriak; leku handiagoa eta aproposagoa eta zerbitzu berriak eskaintzeko aparteko aukera. Hala, erabiltzaile eta langile kopuruak gora egin zuen, baita materialak ere.

Bereizitako guneak

Arratabe jauregiaren alboko eraikinetik egin zuen salto liburutegiak Arkupera. "Egoitza berriarekin aukera izan zen haur txikiendako txoko bat sortzeko -0 eta 5 urte artekoak-, non heldu batekin etorri behar duten eta liburuekin lehen harremanak dituzten", azaldu du Joseba Lopez de Armentiak, hiru liburuzaine-

tako batek. Gainera, helduen eta haurren guneak bereizi zituzten eta zenbait zerbitzuri euren txokoa egin zieten: "Hor daude ordenagailuen aldea, hemeroteka helduen gunean -egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko- eta ikasteko tokia. Ikus-entzunezkoak liburutegi zaharrean ere baziren, baina hemen euren tokia dute", gaineratu du. Helduen gunean

zortzi ordenagailu daude eta haurrenean, lau; horiek erabiltzen dituzte informazioa bilatzeko, lanak egiteko eta inprimatzeko, baita musika entzuteko eta filmak ikusteko ere. Gainera, wifi zerbitzua dago. "Lehen ere ematen ziren zerbitzu horietako asko, baina, batez ere, haurrek erabiltzen zituzten".

3.726 bazkide

Egoitza berriak erabiltzaile berriak ekarri zituen, eta izugarriko igoera erabileran: "Maileguak hirukoiztu egin ziren eta bazkide kopuruak ere igoera handia izan zuen", eta horren adibideak eman ditu: "Dokumentuen maileguak gora egin du adin tarte guztietan eta euskarri guztietan; jende gehiago dator ikastera, egunkariak irakurtzera... Ordenagailuen erabilera ere handia da, beheara egin duen arren azken urtean, eta ipuin kontalarien saioetara jende asko etortzen da. Liburutegien arteko maileguak ere igoera handia izan du". Horren erakusgarri dira iazko datuak: 3.726 bazkide -helduak, 2.774; haurrak, 943; eta erakundeak, bederatzi- eta maileguan hartutakoak 10.329 liburu eta 4.314 ikus-entzunezko.

Herriar gehiagorengana iristeko asmoz, 2010ean ordutegia indartu zuten, eguneroko ordu kopurua luzatuta eta zapatu goizetan zabaldua. 2012an, *Bularretik mintzora* egitasmoarekin bat egin zuten: "Ordutik hona, haur guztiek dute liburutegiko txartela, eta urtez urte goraka doa nabarmen". Irakurzaletasuna bultzatzeko, hain zuzen, ekin-tza mordo egin zituzten iaz; besteak beste, ipuin kontalariekin saioak, umeei bisita gidatuak eta irakurketa gidak argitaratu -*Biblioporrak*...-.

2017ko maileguak

Herriarrek, iaz, maileguan hartutako materiala.

Liburuak

Helduak:	4.952
Umeak:	5.196
Erakundeak:	181
Guztira:	10.329

Ikus-entzunezkoak

DVDak:	4.314
--------	-------

Musika

CDak:	117
-------	-----

Material didaktikoa

CD-ROMak:	80
-----------	----

*Erakundeen barruan daude, batez ere, ikastetxeak.

Moldaketak egin beharrean

Hamar urte betetzear dela, liburutegia txiki geratu dela uste dute Lopez de Armentiak eta haren bi lankideek: "Aldaketa batzuk egiteko asmoa daukagu, lekua irabazte aldera. Adibidez, mahai gehiago jarri haurren gunean irakurtzeko eta helduen gunean ikasleendako, azterketa garaletan berehala betetzen dira eta. Baina, oraingoz, asmoak dira", dio, eta gaineratu du: "Irakurketa suspertzeko egitasmoak egiteko gogoa ere badugu, baina, horretarako, aurrekontua handitu egin beharko da, eta ez dakigu zein izango den Udalak onartuko duena". Egun, hiru langile daude bertan, horietako bi egun erdiko jardunarekin, eta horien lan jarduna handitzea ere bada euren eskaera.

Kantariren seigarren aldirako entseguak bihar Arkupen

Goiena telebistako karaoke saio ezagunean 160 neska-mutiko aretxabaletarrek hartuko dute parte

M.A. ARETXABALETA

Goiena telebistako Kantari karaoke saioaren seigarren aldia hastear da. Eta Eskoriatzako eta Aretxabaletako neska-mutikoei entseguak egingo dituzte aste bukaeran; bihar, zapatua, Arku-

pen elkartuko dira goizez (10:00-14:00) eta arratsaldez (15:00-18:00). Eta domekan, Eskoriatzako Zaldibar aretoan izango dira beste hainbat talde. Bi herrietako ia 200 neska-mutikok hartuko dute parte. "Kantuan egingo dugu,

aholku batzuk eman, zalantzak argitu eta dena prest utziko dugu ikuskizun egunerako", dio Aitor Agirianok, Kantariren ardura-dunetako batek.

Grabaketak hurrengo asteburuan
Saioak urtarilaren 20an eta 21ean grabatuko dituzte, Arkupen; zapatuan bost saio eta domekan gainerako laurak.

Saio horiek otsailaren 3an eta 4an emango dituzte Goiena telebistan, eta gero, *Goiena.eus* atarian ere jarriko dira.

'Eolo 68' antzezlan domekan Zirika Zirkusen eskutik

Zirika Zirkus talde nafarrak *Eolo 68* antzezlan eramango du Arkupeko oholtzara domekan, 12:00etan (sarrera: 3 euro). 15 urte betetzera doan taldeak umorez betetako lana dakar, beste behin, eta akrobazietan, oreka jolasetan eta irudimenean oinarritutako ikuskizuna eskainiko die neska-mutikoei zein familia osoari.

'Asesinato en el Orient Express' eta 'Coco' aste bukaeran

Kenneth Branagh zuzendari eta aktoreak zuzendutako *Asesinato en el Orient Express* filma (AEB, 2017, 116 minutu) izango dute helduek gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenen (16:00); eta umeei *Coco* domekan (17:00). Eguenean, oster, *La higuera de los bastardos* (Espainia, 2017, 106 minutu) emango dute (19:30).

Mozorroak prestatzeko lokala erabilgarri dago

Aratusteetarako mozerroa gertatu gura dutenek aurten ere izango dute horretarako leku egokia, Basabe jatetxearen atzeko partean. Bestalde, bihar, 09:00etan hasiko dira saltzen Aratuste-domekarako bazkarirako txartelak, Arkupen

Imanol Beloki ARETXABALETAKO

Otsailaren 11n, domekan, izango dira munduko Aratuste onenak, Aretxabaletakoak, hain zuzen ere, eta Udaleko Kultura Saila, Karnabalen Lagunak eta Txapel Txin buru-belarri ari dira prestaketa lanetan.

Dagoeneko erabilgarri dago mozerroak prestatzeko lokala, Aratuste-domekako bazkarirako txartelak bihar jarriko dituzte salgai, Arkupen, eta Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa martxan dago.

Basabe jatetxearen atzealdean

Aurten, Aratusteetarako mozerroak prestatzeko, industrialdean, Basabe jatetxearen atzeko partean dagoen lokala erabiltzeko aukera izango dute aretxabaletarrek, eta, hain zuzen, dagoeneko egin daiteke hura erabiltzeko eskaera.

Horretarako, hainbat baldintza bete beharko dira: talde bakoitzak arduradun bat izan beharko du –dokumentua sinatu eta telefonoa eta nortasun agiri zenbakia eman beharko du–; 20 euroko fidantza jarri beharko da, eta lokala erabili ostean bueltatuko zaio fidantzaren dirua; giltza bakarra emango zaio arduradunari; giltzaren kopia ateratzea debekatuta egongo da; lokala gauez ezingo da erabili eta 21:00etatik aurrera itxita egongo da; lokalean istripuren bat gertatzen bada, kaltetua izango da arduraduna; pintatzeko, lurra eta hormak ondo babestu behar dira; otsailaren 13a baino lehen dena jasota utzi behar da eta egun horretan giltzak bueltatu behar dira Arkupe kultur etxean.

**ARATUSTEETAKO
DOMEKARAKO
BAZKARIRAKO
TXARTELAK BIHAR
SALDUKO DITUZTE**

Adingabeei dagokienez, berriz, ardura adinez nagusia den baten gain egongo da; horrenbestez, lokala erabiltzen hasi aurretik, bere datuak eta telefonoa eman beharko ditu eta gurasoak jakinaren gainean jarri beharko dituzte erabiltzaileek. Arduradun horrek, gainera, bertan egon beharko du eurak lokalean dau-den bitartean.

Herri bazkarirako txartelak

Mozorroak prestatzeko lokalaz gainera, Aratuste-domekarako herri bazkarirako txartelak bihar jarriko dituzte salgai, zapatua, 09:00etan, Arkupen. Bi menu egongo dira: helduentzako, 17 eurokoa. Patatak errioxar erara, oilasko-izterra patatekin eta piperrekin eta goxua. Bestea, berriz, haurrentzako menua izango da, 13 eurokoa. Makarroiak, txahal-hanburesak patatekin eta txokolate-pasteltxoak, hain zuzen ere.

Kartel lehiaketa martxan

Aratusteak iragartzeko, Kultura Sailak kartel lehiaketa deitu du, beste behin, eta aurkezteko azken eguna datorren astelehena, urtarilaren 15a, izango da –Arkupe kultura etxera eroanda–.

Edozeinek parte hartu ahal izango du eta teknika librea izango da. Honako testu hau jarri beharko da kartelean: *Aratusteak, Aretxabaleta 2018*. Formatu digitalean aurkeztu ahal izango da eta paperean, berriz, DIN-A3 neurria izan beharko du.

Epaimahaiak hilaren 18an, egunean, emango du sarituaren berri, eta irabazleak 200 euro jasoko ditu. Epaimahai hori osatuko dute Kultura batzordeko kideek eta herriko hainbat lagunek. Kultura batzordeak egoki iritziz gero, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa jarriko dute, ostean, Arkupen.



Iaz, Aretxabaletako Aratusteetako desfilean. IMANOL SORIANO

Amara
Lortzen
Funtzioa
multzoa

6. ALDIA
Kantari
DEBAGOIENA

Aretxabaletako eta Eskoriatzako
partaideok, eman azken errepasoa
abestiari eta koreografiari!

ENTSEGUAK
Aretxabaleta: urtarilaren 13an,
Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan.
Eskoriatza: urtarilaren 14an,
Zaldibar antzokian.

IKUSKIZUNA ARETXABALETAN
Urtarrilaren 20an eta 21ean Aretxabaletako
Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan.

Informazio gehiago: 943 25 05 05 / 688 69 00 04 /
blogak.goiena.eus/kantari

goiena



Wiñak elkarteko kideak, guayusa-hostoak lehortzeko gertatzen. HIRUATX ELKARTEA

Kitxua indigenekin dabil lanean Hiruatx, Ekuadorren

Kakaoa ekoizten eta saltzen duen Wiñak elkarteko kideei laguntzen jardun dute, eta orain, guayusa merkaturatzen hasi dira, infusioak egiteko landarea. Urte berriarekin, asmo berriak ere baditu 25 urtetik gora dituen Aretxabaletako GKEk

Mirari Altube ARETXABALETA

Herrialdeen garapen soziala eta ekonomikoa bultzatzeko 25 urtetik gora lanean diharduen Hiruatx elkarteak Ekuadorren jarri du jomuga azken lau urteotan, Napo probintziako Wiñak elkarteko kitxua indigenen artean, hain zuzen. Izan ere, nekazari txikiekin osatutako elkarteetan elikadura subiranotasuna bultzatzea eta ezagutzak indartzea du helburu Hiruatxek.

Kakaoa eta guayusa

Emakumeak nagusi diren (%70) Wiñak elkarteak kakao ekologikoa ekoizten du: "Bizi baldintzak nabarmen hobetzeko gai izan dira bi urtean; saldutako kakaoa seikoiztu egin dutelako", diote Hiruatxeko kideek. 60 tona kakao ekoiztu dituzte, eta Italian, Japonian eta AEBetan saldu. Horren oinarrian trebakuntza egon dela jakinarazi dute: "Ekoizpen agro-ekologikorako tekniken gainera; eta elkartearen kudeaketa hobetzeko".

Kakaoa alboratu gabe, guayusa, infusioak egiteko basoko landarea, ekoizten hasi dira orain. Horretarako, landarea lehortzeko eguzki-lehorgailuak –bi markesina– eraiki dituzte. Baita guayusa jaso eta gordetzeko tekniken gainera trebakuntza jaso ere –ziurtagiri organikoa lortzeko formakuntza–. Salmentarako, ostera, elkarteak dituen kanalak aprobetxatuko dituzte.

Proiektuaren azken berriak gutun bidez eman die Hiruatxek laguntzaile dituen herritarrei: "Bihotzez eskertzen dizuegu gehien behar dutenei ematen diezuen babesa. Hiruatx lanean jarraituko dugu alternatibak bilatzen eta herri txirotuendako konponbideak bultzatzen". Hala,

EMANDAKO LAGUNTZA ESKERTU DIETE HERRITARREI, ETA LANEAN JARRAITZEKO GOGOA AGERTU DUTE

gogorarazi dute Aretxabaletako elkarteak zabalik dituela laguntzendako kontuak honako hiru kutxa hauetan: Laboral Kutxan, Kutxabanken eta Fiaren.

Ondare publikoko elkarte

Ekuadorko proiektuarekin batera beste hainbat ekimen egin dituzte 2017an; besteak beste, Aretxabaletan egindako Artzain Egunean parte hartu, Oñatiko Hermansoloña GKEekin elkarlanean jardun eta elikadura bankuaren kanpainari lagundu.

Urte berrirako egitasmoak, berriz, ez dituzte guztiz zehaztuta. Esku artean darabiltenen artean daude Bizkaiko Lumaltik lankidetzarako eta herrien garapenerako erakundeak Chiapasen abian duen proiektu batean parte hartzea. Horrez gain, onura publikoko elkarte izendapena jasotzeko lanean jarraituko dute eta otsailerako espero dute Jaur-laritzaren erantzuna; hala, dohaintzak desgrabatu ahal izango dituzte herritarrek.

Arteari zukua atera eta hartu parte gurekin batera!

Kurtzebarri eskolaren fatxada edertu nahi dugu mural parte-hartzaile baten bitartez; prozesua martxan dago

Goiena komunitatea

Gu Haziak Gara Elkarte

/ ARETXABALETA

Datozen lau urteetan zehar Kurtzebarri eskola edertuko dugu, mural parte-hartzaile baten bidez. Prozesua dagoeneko martxan dago eta guztion laguntza ezinbestekoa da. Animatu zu zue ere!

Proposamenendako kutxak

Lehen urrats honetan, zuen ekarpenei esker gaia aukeratuko dugu. Animatu zure ideia idatzi eta kutxan sartzea. Ho-

rretarako epea da urtarrilaren 8tik 19ra, ostirala.

Zerk kezkatzen gaitu? Zer dugu gustuko? Zerk alaitzen gaitu?... Zeure esku gaia proposatzea. Eta ekarpenak egiteko kutxak honako leku hauetan egongo dira: Arkupe kultura etxeko sarreran, Kurtzebarri eskolan, udaletxe zaharreko atarian eta Udal Euskaltegian.

Informazio gehiago jaso nahi baduzu, hona bideak: guhaziak-gara@gmail.com, 688 62 37 18, 649 51 62 81 eta Facebook bidez (Kurtzebarri).

'Gorputza gogoan' dantza ikastaroa hasi dugu kuartelean

Martitzen guztietan izango dira saioak, Aste Santura bitartean, Zuriñe Benavente Claverasek gidatuta

Goiena komunitatea

Jaiki Elkarte / ARETXABALETA

Bat-batekotasuna, konposizioa eta teknika garaikidea uztartuko ditugu martitzenetan, urtarrilaren 9a ezkerro. Eskarmentu handiko Zuriñe Benavente Claveras dantzari gasteiztarak gidatuko du eta gorputzaren eta mugimenduaren bidez landuko ditugu entzumena eta bakoitzaren beharrak; horrela, gorputzarekin komunikatu ahal izateko.

Noiz izango da ikastaroa? Asteartero, 18:30etik 20:30era. Ur-

tarrilaren 9an hasi eta Aste Santura bitartean. Non? Aretxabaletako kuartel zaharrean.

Izena emateko eta argibide gehiagorako, Jaiki elkartera jo; hona hemen bideak: 688 81 96 65, jaikielkarta@yahoo.es eta Facebook bidez. Hiruhileko osoko prezioa hauxe da: 80 euro langileendako eta 70 euro gaintzekoendako.

Ez da eskarmenturik behar bertaratzeko eta ondo pasatzeko. Hortaz, aurtan bai, erosotasun gunetik aterako naiz eta ikastaro honetan izena emango dut!

Jou Díaz

Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK DISEINUA APAINKETA

Bizkaia I - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Intxaurtxueta auzoan, herriko sarrerako lanak amaitzen ari dira. IMANOL BELOKI

Intxaurtxueta lanak amaitzen ari dira

Udalaren eta obrako sustatzailearen arteko akordioari esker, urbanizazioko lanak bukatzen ari dira. Horrez gain, Udalak etxebizitzak egiteko "erraztasunak emanda", egin barik dauden bi etxe blokeetako bat 2018ko amaierarako eginda egongo da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Intxaurtxueta auzoko lanak, herriko sarreran egin ari direnak, hilabete honetan amaituko dituzte; aste honetan ez bada, hurrengoan.

Argiteria, espaloia eta loreak jarrita dituzte dagoeneko, eta azken ukituak ematen ari dira egunotan. Aste honetan, asfaltatzearekin eta aparkalekuak

egiten aritu dira, eta, horrekin, behin betiko amaituko dituzte egin beharrekoak.

Akordioa betetzen

Herriko sarreran dauden bi etxe blokeetako lanak geldi daude duela hamar urtetik hona, 2008ko uztaila ezkerro, eta 2016an obraren sustatzailearen eta Eskoriatzako Udalaren artean sinatu-

tako akordioari esker, urbanizazio lanak bukatzen ari dira. 2017ko urtarrilean, garajerako sarrera bukatu zuten eta orain, falta ziren urbanizazioa lanekin ari dira.

"Akordio honekin, obrako sustatzaileak urbanizazioa bukatzeko konpromisoa hartu zuen, egin beharreko lan guztien kostua bere gain hartuz. Udalak,

berriz, falta diren etxebizitzak egiteko erraztasunak ematen dizkio sustatzaileari; hala ere, obrak atzerapen handiarekin joan dira...", adierazi du Hiri-gintza eta Mugikortasun batzordeburu Josu Ezkurdiak.

Hiri planteamendu aldaketa

Egin barik dauden bi etxe blokeak batera egitekoak ziren. Bloke bakoitzean bi atari daude eta atari bakoitzean zortzi etxebizitza. Horrenbestez, guztira, 32 etxe izango lirateke bi blokeetako etxe guztiak kontuan hartuz.

"Aldaketa honekin, lehenengo, bloke bat egin eta saldu egingo da, eta ondoren, bigarrena egingo da, hauek salduz gero. Aldaketak horrek izugarri erraztu du akordioa; izan ere, promozio batek bestea finantzatzen du", Ezkurdiak adierazi duenez.

Zirkulazio aldaketa

Intxaurtxueta egin dituzten lanekin batera, zirkulazio aldaketa ere izango da auzoan. Obrak guztiz bukatzen dituztenean, auzoko sarrera bide berritik izango da -O'Dogherty taberna ondoko sarreratik- eta irteera, berriro, Eroski supermerkatu paretik; hala, noranzko bakarreko errepide bihurtuko da. Aldaketa horrekin, Eroski parke bidean izaten den zirkulazioa arindu egin nahi dute.

Zirkulazio aldaketarekin batera, 30 aparkaleku gehiago izango dira eremu horretan.

HAMAR URTEZ GELDI EGON DIREN BI ETXE BLOKEETAKO BAT 2018AN AMAITUKO DUTE

Badator Eskoriatzara seigarren Kantari karaoke ikuskizuna

Domekan egingo dituzte entseguak Eskoriatzako parte-hartzaileek, 11:00etatik 13:00etara, Zaldibarren

I.B ESKORIATZA

Asteburu honetan egingo dira Eskoriatzako Aretxabaletan Kantari karaoke ikuskizuna prestatzeko entseguak, eta hurrengo asteburuan saio guztien grabaketak Aretxabaletan izan-

go dira. Eskoriatzan, domeka honetan, 11:00etatik 13:00etara bitartean, Zaldibar antzokian egingo dituzte entseguak Kantarin parte hartuko duten haurrek. Zozketa bidez egokitu zaizkie kantuak, eta garrantzitsua

izango da entsegu egunerako umeek euren kantuaren letra eta dantza ondo ikasita eroatea. Hala, bertan errepaso bat egingo dute, aholku batzuk emango zaizkie grabaketa egunera begira, zalantzak argitu... eta dena prest utziko dute ikuskizun egun handirako.

Eskoriatzako eta Aretxabaletako parte-hartzaileen grabaketak urtarrilaren 20an, zapatuan -5 saio-, eta 21ean, domekan -4 saio-, egingo dira, Zazaia aretoan, Arkupen, arratsaldean.

Hiru txokotan banatutako ekintzak gaztelekuan

Zapatu honetan, hainbat ekintza egingo dituzte Eskoriatzako gaztelekuko nerabeek. Hiru txokotan banatuta, mahai jolasak, *Wii dance* eta karaokea izango dituzte aukeratzeko.

Gazteek ez dute izenik eman behar, eta, txandaka, hiru gunetan jolasteko aukera izango dute, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

2018ari hasiera emateko, gaztelekuko barruan egingo dituzte ekintzak asteburu honetan, baina datorren astean, urtarrilaren 20an, kalera irtengo dira eta beisboleko arituko dira, 17:30etik aurrera.

Kirol horrek dituen arauak, jokalarien izendapen eta kokaguneak, jokaldiren bat edo beste ikasiko dituzte gaztetxoek, eta talde mistoez osatutako partiduak egingo dituzte gaztelekuko aurrean, Luis Ezeiza Herri Eskolako patioan.



Zarus gozoki dendako Andoni Moto –300 euroko sariarekin– eta Jon Usandizaga –100 euroko sariarekin–. ESKORIATZA K2

Erakusleihorik onena, Zarus gozoki dendarena

Merkataritza Mahaiak herriko merkatariei zuzendutako Gabonetako erakusleihen lehiaketaren 300 euroko saria Zarus gozoki dendarentzat izan da. Herritarren artean zozketatutako 100 euroko saria, aldiz, Jon Usandizagak eraman du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Merkataritza Mahaiak abian jarri zuen Gabonetako erakusleihen lehiaketaren 300 euroko saria Zarus gozoki dendak jaso du. Botoa eman duten herritarren artean banatutako 100 euroko saria, berriz, zozketa bidez, Jon Usandizagari egokitu zaio.

Sari banaketa 18:30ean zen egitekoa urtarrilaren 5ean, Fernando Eskoriatza plazan, baina eguraldi iragarpen txarra zela eta, ordu eta leku aldaketa egin zuten antolatzaileek, eta Joseba Iñurrategi frontoian egin zuten sari banaketa, 19:00etan, Errege magoen desfilea amaitu zenean.

Komertzio guztiei irekia

Eskoriatzako Ekonomia Garapeneko batzordeburu Maite Zubiaren esanetan, herriko komertzio guztiei irekitako lehiaketa izan da, hainbat urtetan egin barik egon dena: "Ez zegoen izena eman beharrik, herriko komertzio guztiak sartzen ziren

lehiaketan". Herriko elkarte batzuetako ordezkarien eta herritarren iritzia hartu dute kontuan saria emateko. "Zubiateko, Atxorrotx kultura elkarte eta Olazar erretiratuaren elkarte ordezkariak ibili dira herriko kaleetan gora eta behera, erakusleioak nola dauden apainduta ikusten, eta euren iritzia eman dute. Bestetik, herritarrek ere euren botoa eman dute –guztira, 110 jaso dituzte– eta iritzia hori ere izan da kontuan. Azkenean, alde biak bat eginda, Zarus gozoki dendak irabazi du 300 euroko saria. Botoa eman duten herritarren artean, berriz, 100 euroko saria zozkatu dute, eta hori Jon Usandizagari egokitu zaio", azaldu du Maite Zubiak,

MERKATARITZA MAHAIA OTSAILEAN ELKARTUKO DA 2018KO PLANGINTZA ZEHAZTEKO

Ekonomia Garapeneko batzordeburuak.

Lehiaketa "arrakastatsua" izan dela adierazi du, bestalde, Eneritz Zubiak, Ibarraundi museo langileak, eta datorren urtera begira berriro egingo dutela gaineratu.

2018rako plangintza, otsailean

Gabonetan erakusleihen lehiaketa egin da ekintza nagusi moduan; horrez gain, etxe guztietara komertzio mapa bidali dute. Orain, oporren ostean, urtarrilean berriz elkartzekoak ziren udal ordezkariak eta merkatariek, herriko merkataritza indarberritzeko, eta 2018rako plangintza zehazteko. Hala ere, bilera hori otsailean egitea erabaki dute, bertara ideia edo proposamen garbierkin joateko. Honela adierazi du Eneritz Zubiak: "Otsail hasieran dei egingo diegu herriko merkatariei, eta, ideiak ondo landuta, proposamenak helaraziko dizkiegu, aurrera zer eraman erabakitzeko".

Arlaban-Hiruerreketa-Atxorrotx mendi ibilaldia domekan

11,8 kilometroko bidea egingo dute bertara doazenek, eta ez dago izenik eman beharrik

I.B ESKORIATZA

Hezkuntza Foruak antolatutako urteko lehenengo mendi ibilaldia egingo dute domeka honetan, hilaren 14an, eta aukeratu duten irteera honako hau da: Gatzagatik, Gure Ametsa jatetxetik gora, Hiruerreketa, Deba ibaia-aren sorlekua bisitatu, Atxorrotx zeharkatu eta Eskoriatzara, hain zuzen ere.

Irteerarako, Gorosarri autobus geltokian batuko dira bertara joan nahi dutenak, 09:20an, eta hiru ordu eta erdiko mendi ibilaldia izango dela aurreikusten

dute. Ezinbesteko hainbat baldintza betetzeko, oharra bidali dute antolatzaileek: haurrak ezin dira bakarrik bidali, heldu baten laguntzarekin joan behar dute. Ekintza horretan parte hartzeko ez da izenik eman behar; hamarretakoa eta ura eramatea gomendatzen da; eta autobusaren prezioa, nork berea ordaindu beharko du.

Pesako autobusa hartuko dute mendi ibilaldira joan nahi dutenek, eta, hain zuzen, Mugi txartela duenak eraman dezala aholkatu dute antolatzaileek.



IBONE AREJOLALEIBA

Maite Santamaria irabazle

Kalera! Bakea eta askatasuna irabaztera Inkernu tabernak antolatzen duen Gabonetako zozketako irabazlea Maite Santamaria izan da, 278 zenbakiarekin. Urtarrilaren 7an izan zen sari banaketa, eta, hain zuzen ere, mendiko arropa eta *Errigora* produktuen saskia jaso zituen eskoriatzarrak.

Makinarekin josten ikasteko tailerra astelehenean

Eskoriatzako Udalak antolatuta, josteko makina erabiltzen ikasteko tailerra izango da astelehenean, urtarrilaren 15ean, Eskoriatzako kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Bertan, josteko makinaren inguruko hauek ikasteko arieketak egingo dira: abiadura kontrolatzen, tentsioak, ertzak josten, puntadaren doikuntzak,

botoiak nola josi, praka-barrenak nola hartu...

Ikastaroa gazteleraz emango da eta prezioa bost euro da. Hala, izena eman nahi duenak kultura etxera joan beharko du, edo, bestela, 943 71 46 88 telefonora deitu.

Norbanako bakoitzak josteko makina eraman beharko du tailerrera, eta, oinarritzko jostekintza ikastaroa bada ere, edozein zailtza argitzeko eta informazioa eskuratzeko ere baliagarria izango da.

Eskoriatzako neskak, lidergoaren bila

Lauburu taldearen kontra jokatu dute Eskoriatzako senior mailako neskek 2018ko lehenengo partidua, etxetik kanpora. Etxekoak aurkariarengandik puntu bakarrera daude sailkapenean, eta, garaipena eskuratuz gero, lehenengo postuan izango dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gabonetako oporren ostean, gaur emango diote jarraipena Gipuzkoako Ligari areto futbolako Eskoriatzako senior mailako emakumezkoek. Hala ere, oporretan ez dira gora begira egon, hainbat entrenamendu saio izan dituzte; azkenetarikoa, ohorezko gazte mailako Eskoriatzako mutilekin batera egin-dakoa, besteak beste. Partidua Ibarran (Tolosa) jokatu dute, gaur, 21:00etan.

Liderra, puntu bakarrera

Eskoriatzako neskek Lauburu taldea izango dute aurkari; sailkapenean liderrak dira, eta, etxetik kanpo jokatu arren, lehen postuaren bila joango dira Ibarrara. Eskoriatza aurkariarengandik puntu bakarrera dago, bigarren postuan, eta azken egunetan gogor ari dira prestatzen partidua irabazteko. Hone-lazaz aldu du Eskoriatzako Marta Garcia jokalaria: "Gogotsu



Ane Gai baloia jokatzen. IMANOL BELOKI

gaude gaur jokatu dugu partidurako. Borrokatzen jarraitu nahi dugu, esperantza galdu barik, denboraldi amaieran lehen postuan izateko, baina oraindik goiz da, partidu asko geratzen zaizkigu eta...".

Ane Gai, Euskal Selekzioarekin

Eskoriatzako Ane Gai jokalaria Euskal Selekzioarekin izan da Getxoko kontzentrazioan. Hainbat entrenamendu saio egin ditu bertan, eta laster jakinaraziko diote ea aukeratutako bat den edo ez jokatu dituzten partiduetarako.

Mutilek, datorren astean

Euskal Ligako Eskoriatzako mutilek, berriz, domekan, 17:30ean, jokatu dute lehen bueltako azken partidua, Laudion, Bagituxak taldearen aurka. "Atzeratutako partidua da domekakoa, eta hurrengo astean bigarren buelta gogor hasi nahi dugunez, garaipen beharrean gaude...", adierazi du Iker Molina entrenatzaileak.

Ohorezko gazteek, berriz, datorren astean, urtarrilaren 20an, jokatu dute partidua, Lauburu taldearen aurka, eta astea erabiliko dute partidu hori prestatzeko.



ADRIAN GARNATEO

Jokin Rayo, Euskal selekzioarekin

Ohorezko gazte mailako Eskoriatza taldeko Jokin Rayo eskoriatzarra 19 urtez azpiko Euskal Selekzioarekin izan zen pasa den asteburuan lagunarteko partidu bat jokatzen. Asteburu honetan, berriz, autonomia-selekzioen Espainiako txapelketa jokatu da Ibarran, Belabieta kiroldegian, eta bertan izango da Rayo hainbat partidu jokatzen.

OHARRAK

Urrestilla taberna

Fernando Eskoriatza plaza pareko Urrestilla taberna itxita dago astelehena ezker, ugazabak oporrak hartu ditu eta. Urtarrilaren 29an berriz irekiko dituzte tabernako ateak, eta, horrenbestez, ordura arte itxita egongo da.

Akeita bueltan da

Akeita taberna itxita egon da urtarrilaren 1a ezker. Orain arte alokatuta zeukan pertsonak taberna utzi, eta bertako jabeek berriz zabalduko dute taberna hemendik bi astetara. Denbora horretan, dekorazio aldaketa eta lan txiki batzuk egingo dituzte, aro berri honi jarraipena eman aurretik.

LEINTZ GATZAGA



Errege egunean, arratsaldean, Gatzagako errepide zaharra itxita. OIHANA ELORTZA

Elurrak arazoak sortu zituen zapatuan, Leintz Gatzagan

Errege egunean, Leintz Gatzagara joan ziren asko ezin izan ziren herritik irten, elurraren ondorioz

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Errege Egunean, hainbat lagun Leintz Gatzagan izan ziren bazkaltzen, eta bazkalostean bertatik jaitsi edo igotzerakoan, dena elurtuta zegoenez, ezin izan ziren herritik irten.

Soran Etxeko jangela, esaterako, bezeroz beteta zeukaten, eta elurragatik herritik ezin irtenda gelditu ziren hainbat bezero. Azkenean, bertan gelditu behar izan zen lotan Gasteiz bizi den zortzi laguneko familia bat, bi ume txikirekin.

Iluntzean, argi barik gelditu ziren herrian, eta horrek ere

gauzak zaildu zituen. Hauxe azaldu du Montse Valerio Soraneko arduradunak: "Ez geneukan argirik, ezta berogailurik ere. Sukaldean ere ezin genuen ezer prestatu, argi barik ez dutelako suek funtzionatzen. Eta horrez gain, alaba igogailuan ezin irten gelditu zen".

Inguruko laguntza

Batzuk, gupilendako kateekin poliki-poliki jaistea lortu zuten, beste batzuk aldiz, Patrol baten laguntzaz Eskoriatzara jaitsi ziren, eta beste asko ez aurrera ez atzera geratu ziren.

'Gatza' webgunea zabaldu dute, 204 lagun erretatuekin

Zabalik da Gatza, Leintz Gatzagako herritarren erretatuak batzen dituen webgunea.

Joxefe Diaz de Tuesta argazkilariak Gatzagan egindako lana batzen du, eta webgunea haren alaba Anek egin du. 204 herritarri ateratako argazkiak, liburua, argazkiak ateratzekoan ateratako xehetasunak, *making off*-a, berriak, eta beste hainbat informazio ikusteko aukera dago bertan. Webgunearen helbidea honako hau da: <https://anediaz.github.io/gatza/>.

Webguneaz gainera, 38 herritarren argazkiren eta 204 herritarren mosaikoaren erakusketa ikusgai dago Oñatiko kultura etxean.

Istripua Leintz Gatzagako herriko sarreran

GI-3310 errepidearen bosgarren kilometroan, Leintz Gatzagan, istripua izan zen martitzen goizean, hondakinak biltzen dituen kamioiaren eta haurrak eskolara eramaten dituen autobusa-aren artean, herriko sarreran.

Istripua izotzaren ondorioz gertatu zela adierazi dute bizi-lagunek, gatza bota barik zegoelako. Autobusa gurutzatuta geratu zen, eta, albo batetik autoak pasatzeko bidea zuten arren, kamioia ezin izan zen pasatu; irristatu egin zen. Errepidea itxi egin behar izan zuten, eta ibilgailuak GI-627 errepide-tik desbideratu. Hala ere, ez zen ezer larririk gertatu, eta dagoneko zabalik dago errepidea.

Elkarlanean oinarrituta, bergararrak aktibatzena

2018tik 2021era arteko Udalaren kirol arloko planaren ardatza bergararren artean aktibitate fisikoak gora egitea izanik, hainbat erronka zehazten dira; tartean, emakumeen partaidetza handitzea eta 60 urtetik gorakoendako ekimen espezifikoak diseinatzea

Jokin Bereziartua BERGARA

Udalak badu 2018tik 2021era arteko kirol arloko plan estratetikorako dokumentu gidaria, kirol esparruan aditua den Avento aholkularitza enpresak egin-dakoa. Dokumentu gidari horren ardatza herritar aktiboak lortzearena da, hau da, herritarren artean aktibitate fisikoak gora egitea da helburua.

Hurrengo lau urteetara begirako erronketan bost multzo berezitzen dira: eskola kirola, kirol federatua, partaidetza kirola, kirol ekipamenduak eta kirol zerbitzuaren kudeaketa.

Emakumeen partaidetza handitu

Eskola kirolaren barruan, neska gehiagok parte hartzea da helburuetako bat, besteak beste, neskendako eskaintza bereziak antolatuz eta horretarako baliabideak egokituz –begirale gehiagor jarrita, esaterako-. Izan ere, azken datuen arabera, nesken parte hartzea %26 izan da eskola kirolean. Kirol federatuari dagokionez, elkarleen arteko komunikazioa eta lankidetzaren sendotzea, elkarleen arteko sinergiak aprobetxatzea eta Udalaren partetik tramite administratiboak erraztea dira erronka nagusiak. Emakumezkoendako eskaintza federatuaren barruan, senior mailako taldeak eratzearen garrantzia ere azpimarratzen da, neska gazteek euren kirol ibilbideari jarraipena emateko aukera izan dezaten.

60 urtetik gorakoendako ekintzak

Partaidetzazko kirol ez federatuari dagokionez, 60 urtetik gorakoek aktibitate maila handitzea ekimen espezifikoak diseinatzea eta beste herri eragileekin –San Xosepe erretiratu elkartea, kasu– koordinatzeko konpromisoa jasotzen da. Gainera, inklusio arazoak izan ditzaketen herritarrek kirolera erakartzeko ahalegina ere egin-



Eskola kirolera neska gehiago erakartzea da erronketako bat. IMANOL SORIANO

GAUR EGUN 3.478 KIROL ABONATU DAUDE; AZKEN BOST URTEOTAN %25 HAZI DA BAZKIDE KOPURUA

go da datozen lau urteotan; ezintasuna dutenendako kirol eskaintza berezia landuz, adibidez. Arlo horretan, bestalde, txosteneko datu azpimarragarrietako bat da egun 3.478 kirol abonatu daudela, hau da, biztanleriaren %23,3. Azken bost urteotan %25 hazi da abonatu kopurua.

Hobekuntzak ekipamenduetan

Kirol ekipamenduen hobekuntza da beste ezinbesteko arlo bat. Epe motz edoertainean aldaketa esanguratsuak egongo dira: Labegaraietako kiroldegiko erreforma lanak –kanpoko kantxa estaltzeko proiektua barne– 2019an dira hastekoak; Boluko frontoiak, dena ondo bidean, estalkia izango du uda ostean; San Martin eskolako patioan egokituko den karpa berriak aisialdirako eta kirolerako aukera berriak sortuko ditu... Eta, epe luzeago ba-

tean, Agorrosin berria nabarmentzen du plan estratetikoa. Bergara Kirol Elkartearen eta Udalaren arteko elkarlana bideratu gura da proiektua aurrera eramateko; BKEk proposatutako aurreproiektuan, besteak beste, belar naturaleko zelaia "azken belaunaldiko" belar artifizialeko zelai bihurtzea eta atletismo pista desagerraraziz askotariko kirolak egiteko 3.800 metro koadroko gune bat egokitzea jasotzen da. Padel pistak, saskibalo kan txak edo bestelako jardueretarako eremua litzateke. Horrez gain, instalakuntza osagarri berriak –aldagelak, komunak eta harmailak– aurreikusten dira. Hori posible izateko, baina, 2018-2021 plan estratetikoa jasotzen denez, erakunde ezberdinekin harremana sendotu beharra dago.

Kudeaketa "arduratsua"

Azkenik, kirol zerbitzuaren kudeaketa "arduratsua eta zentzuduna" izateko, jasotzen da, besteak beste, diru laguntzen oinarriak udaleko kirol politikarekin bategiteko beharrezkoak diren aldaketak burutzeko eta Udaleko hainbat sailekin elkarlana bultzatzeko konpromisoa.



NIRE USTEZ

IOSU ELORZA

Mila esker

Urteroko legez, sekula beteko ez ditugun nork daki zenbat asmo onez beteta ekin diogu urteari. Gimnasio, dieta, ingeles eta dantza ikastaro, tabakoa uztea edota arduratsuagoak izatea, ez dira faltako urtero errepikatzen den zerrenda amaigabea.

Asmo onak alde batera utziko ditugu, bizitza honek daraman abiada bizian gehiegi pentsatzeko astirik ere ez baitugu eta. Ez diot hobekuntza handirik eskatu nahi urte berriari; aurrekoa berdintzeko gai bada, konforme. Eskerrak eman nahi dizkizuet nire 2017a urte zoriontsu bilakatu zenuten guztioi, lagun zein ezagunei, arrazoi eta arlo ezberdinak medio nire bizitzako parte bilakatu zaretenoi zein kalean gurutzatzerakoan irribarre bat eskaintzen didazuenoi. 2018an nire alboan beharko zaituztet berri.

Eskerrak eman ere urte hauetan guztietan zutabe honetan jarraitu nauzuen irakurle guztioi, plazer bat izan da urteotan zeuen barnera iritsi ahal izateko ahalegina egitea. Beste norbaiti aukera hori uzteko unea iritsi da. 2018 zoriontsu bat opa dizuet guztioi, zeuen zoriontasuna neurea ere izango baita. Musu handi bat, bihotzez, eta mila esker.



Eguaztenean epaitu zituzten 50 gazteak, Alcala de Henaresen (Madril). TOPATU.EUS

Herri harresiagatik juzgatutako hiru bergararrak, epaiaren zain

Iraitz Salegi, Ane Ruiz de Egin, Ekaitz Aranberri eta beste 47 gazteri bost hilabeteko espetxe zigorra eskatzen diete

J.B. BERGARA

Ernai erakundeko zazpi kideren eta *Topatu.info*-ko kazetari baten kontra Espainiako Auzitegi Nazionalan 2015eko maiatzean egindako epaiketa batean 50 lagunek gauzatutako ekintza desordena delitutzat jo zuen Muriillo epaileak. Hain zuzen ere, herri harresi bat irudikatu zuten 50 gazte. Eguaztenean hasi eta bukatu zen epaiketa, Alcala de Henaresko (Madril) auzitegian, eta gazteak sententziaren zain daude orain. Tartean daude Iraitz Salegi, Ane Ruiz de Egin eta Ekaitz Aranberri bergararrak.

"Epaiketa politikoa" salatu, eta 50ak libre geratzea eskatzen dute.

"Eskera ez du heldulekurik"

Gazte bakoitzarendako bost hilabeteko kartzela zigorra eskatzen du fiskalak. "Zigor eskaerak ez du heldulekurik, ekintza sinbolikoa izan zelako eta ez zuelako desordenarik eragin. Gainera, ezin dute frogatu 50 lagunak publiko moduan egon ginen edo ez. Orain, sententziaren zain gaude. Astebete barru edo hilabete barru jakingo dugu zein den epaia, auskalo", adierazi du Iraitz Salegik.

"Gurasoak han utzi behar izatea ez nuen ulertzen"

MAREN BELASTEGI 'UME MOTXILADUN' IZANDAKOA

5 urte zituela gurasoak espetxeratu ostean, "bidegabekeria" hark bere izaeran eragin diola uste du: "Halako kasu bat entzuterakoan, tripek buelta ematen didate oraindik"

Jokin Bereziartua BERGARA

Ume motxiladun izandakoa da Maren Belastegi (Bergara, 1986), eta eguaztenean Zabalotegin egon zen *Motxilaren umea* dokumentalaren aurkezpenean.

Noiz bihurtu zinen ume motxiladun?

25 bat urte pasatu arren, ez dut sekula ahaztuko. Lau urte pasa egon ginen guraso barik eta ia sei aita barik. Gogorra da horri buelta ematea. Egun batetik bestera, bat-batean, ahizpa eta biok guraso barik geratu ginen. Gertatu zenean, ez nuen ezer ulertzen; kezka eta beldur handia sentitu nituen, eta, era berean, babes handia izan genuen familiaren eta ingurukoen partetik. Zorionez, izeba eta osaba etorri ziren gurekin bizi izatera, eta familian sei izatera pasatu ginen.

Nolako zen zure egunerokoa?

Gogoan daukat egunerokoa ikaskideek gurasoen gainean galdetzen zidatela. Eta gogoratzen dut bereziki irakasle batek –ama irakaslea zen atxilotu zutenean– asko babestu ninduela. Eta oso gogoan ditut asteburuak: zure lagunak gozatuko duten asteburu hori –txokolate-janen batera edo parkera joatea, adibidez– alde batera utzi, eta bidaia luze baten sartu behar nuela. Asteburu osorako bidaia zen; izan ere, dispersioaren ondorioz, zori-



Maren Belastegi, Bergaran, astelehenean ateratako argazkian. TXOMIN MADINA

"GELA TXIKI, GRIS ETA HOTZ BATEN IZATEN ZIREN BISEAN BISEKOAK, BAINA OSO POLITA IZATEN ZEN"

txarrez, Euskal Herrian oso preso gutxi zeuden orduan eta daude gaur egun. Joanekoan pozik joaten nintzen, eurekin egoteko gogo handia nuelako, eta urduri ere egoten nintzen. Bueltatzerakoan, berriz, atea

ixterakoan entzuten zen *blan* indartsu hori eta han geratzen zirela. Itzulera zen gogorrena; izan ere, 5 urterekin, ez nuen ulertzen zergatik utzi behar nituen han. Astelehenean berriro eskolara, sekulako nekearekin, eta egunerokora ohitu behar.

Zein maiztasunekin joaten zinen gurasoak bisitatza?

Ama eta aita kartzelan genituen eta, tamalez, espetxe berean ez zeudenez –ama Jaenen eta aita Algecirasen edo Caceresen–, hilean behin joaten ginen, gu-
txienez, eta, askotan, hilean bi-

rritan. Horrek guztiak sekulako eragina dauka ume batengan. Alde onen bat aipatzearren, nabarmenduko nuke Euskal Herrian familia bat garela eta babes hori beti sentitu izan dugula.

Nolakoak izaten ziren bisitak?

Normalean, 40 minutu egiten genituen kristal batetik, eta gero, bisean bisekoak izaten genituen. Gela oso txiki, gris eta hotz baten fisikoki ukitzeko aukera izaten genuen. Hain egonaldi polita izaten zen, gela haren hoztasuna ahaztu egiten nuen.

Nola eragin dizu zuri gerora?

Nire izaeran eragin du. Ohi baino lehenago ardurak hartzea, ahizpa gaztea babesteko beharra sentitzen nuen... Eta, gerora, enpatia izan dut halako egoera bat bizi izan dutenekin; kasu baten berri izaterakoan, tripek buelta ematen didate oraindik. Saiatu izan naiz bidegabekeria hori ahal izan dudanean heinean salatzen... Ezin da ahaztu 110 umetik gora daudela egoera horretan; lehen bidegabea bazen, orain, egoera politikoa zein den ikusita, orduan eta bidegabeagoa.

Ohartzen zinen gertatzen zenaz?

Nekien bakarra zen nire ondoan ez zeudela. Maltzurkeriarik gabe, baina eskolan entzuten nuen gurasoak gaiztoak zirela espetxean zeudelako, eta zama hori gainean neraman. Gurasoak eurak eta izebak zein osabak saiatzen ziren euren modura egoera azaltzen, baina gogoratzen dudana da egun zehatz batzuetan bakarrik egon nintekeela gurasoekin. Horrez gain, asteroko telefono deia ere gogoratzen dut –grabatua zena, eta, beraz, baldintzatua–, asteko une bereziena zen. Eta gutunak elkartrukatzeko nituela ere gogoan dut; horiek ere beste pertsona batek irakurri zitzaizkeen...

Osintxun, Angiozarren eta Oxirondon ekintzaz beteta dator urtarrila

Goiena komunitatea

Jardun / BERGARA

Urtarrila ekintzaz betea dator Osintxuko, Angiozarko eta Oxirondoko ludoteketan. Osintxun akro-yoga izango dugu gaur; hilaren 18an, olo-gailetak egiten ikasteko saioa; hilaren 23an, la-saitasun boteak egitekoa; eta hilaren 31n, eskuetarako xaboa egingo dugu. Angiozarren, hilaren 15etik 19ra, Hollywood Astea ospatuko dugu; urtarrilaren 22an, patinekin ibiliko gara; eta urtarrilaren 29an, abilezia jolasak izango ditugu. Azkenik, Oxirondon, *Koloretako munstroa* ipuina –hilaren 16an–, Bertso oka –hilaren 23an–; eta ogia egiten ikasiko dugu –hilaren 29an–.

OHARRAK

Bedelkarren zozketa

Bedelkarren Gabonetako zozketako saridunak honako hauek dira: 6.508, 16.358, 23.775 (100 euroko sariak); eta 5.349, 8.523, 13.684, 25.763, 26.005 eta 36.211 (50 euroko sariak).

Oparitu Zuhaitz Bat

Urtarrilaren 18an liburutegian elkartuko dira, 19:30ean. Gaiak: Fiare banku etikoa, kooperatiba energetikoak eta Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoa, besteak beste.

HHI (EPA): DBH titulua

Bigarren lauhilekoan DBH titulua lortzeko matrikulazioa zabalik dago otsailaren 9ra arte. Izena emateko: 943 76 44 52.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Iaz ekainaren 28an Bergaran egin zen bailara mailako manifestazioa, *Transfobiarik ez* lelopean. MAITE TXINTXURRETA

Harrotasunaren aldarria, elkarte bihurtzeko bidean

Harrotasuna taldeko kideak Udaleko alderdi guztiekin batzartu ostean, elkarte moduan eratzeko helburua zehaztu dute: "Herriaren babesa dugula badakigu, eta Bergara aske baten bidean lagun izan nahi duen edonork gure ateak zabalik izango ditu"

Jokin Bereziartua BERGARA

"Ilusio handia dugu eta herriaren babesa dugula badakigu. Bergara aske baten bidean lagun izan nahi duen edonork ateak zabalik izango ditu". Harrotasuna taldeko Mireia Gallastegiren hitzak dira, 2018ra begira lanean dabil-tza-eta buru-belarri. Izan ere, 2017aren amaieran Udaleko al-

derdi guztiekin elkartu ziren eta lehen hartu-eman hark "emaitza positiboak" eman ditu: "Elkarlanean konpromisoa hartu genuen. Elkarte moduan inskribatzea proposatu ziguten, diru laguntzak jasotzeko eta bestelako erraztasun batzuk izateko. Alderdi guztien inplikaziorako gogoa sumatu genuen".

Hazia, Soraluzeko zebra-bidean Harrotasuna taldea iaz sortu zen, 2016an Soraluzen ezagututako ekimen batetik: "Urte hartako Harrotasun Egunerako zebra-bide bat margotu zuten han eta lagun artean komentatu genuen ideia ederra zela eta hori Bergara eraman behar genuela hurrengo urtean". Iaz maiatzean

elkartu ziren ortzadarraren koloreetako zebra-bidea errealitate bihurtzeko eta hortik etorri zen ekaineko ohiko osoko bilkuran aho batez onartutako mozioa paper hutsean ez geratzeko konpromisoa. Hainbat eskaera jasotzen ziren mozioan: Bergarako sarrera eta irteeretan *Bergara herri ez homofobia* dioten seinaleak jartzea, kale bati *Ekainak 28* izena jartzea, adierazpen ofizial baten *Udala ez homofobo* izendatzea, euren ekintzetan Udala-ren laguntza izatea...

Elkargunea facebooken

2018rako lehen helburua elkarte moduan eratzeko da. "Gehiturekin eta bailarako beste kolektibo batzuekin elkarlanean aritu nahi dugu, mahai-inguruak antolatze-ko edota film laburren bat ekoizteko, adibidez", gaineratu dute. Ateak "erabat" zabalik dituzte: "Edozein iritziri, eskaerari edota ideari zabalik gaude. Goazen denon artean herri aske bat sortzera!". Orrialdea dute Facebooken: www.facebook.com/harrotasuna.harrotasuna.



Harrotasunaren zebra-bidea margotu zuten Agorrosinen iaz. RAUL LOZANO

'Lehen harria', zebra-bide koloretsua

Harrotasunaren zebra-bidea margotu zuten iaz, ekainaren 29an, Agorrosin Kirol Gunearen atarian, eta ekitaldi xume hartan jasotako "babes handiak" aurrera egiteko indarra eman zion taldeari: "Herriar asko gerturatu ziren eta eragile batzuen babesa ere jaso genuen".



BERGARAKO UDALA

Ariznoa plazako zoladura aldatzeko lanak, martxan

Azken egunotan, epaitegiaren aurreko Ariznoa plazako zoladura aldatzeko lanetan ari dira Udaleko langileak. Espaloiko hainbat lauza apurtuta zeudenez, horiek aldatzen dabil-tza, eta, bide batez, zoladura aldatzen ere badihardute. Era berean, oinezkoendako

gunea hobeto zehazteko bordillo edo zintarri batzuk altxatu egingo dituzte. Udaleko Obra eta Zerbitzuen batzordeak aditzera eman duenez, aurreikuspena da lan horiek guztiak hurrengo zaturako, urtarrilaren 20rako, amaituta egotea.

Euskal Herriko Mus Txapelketarako lau bikoteak, zehaztuta

Euskal Herriko Mus Txapelketako Gipuzkoako kanporaketa Bergaran jokatu da, otsailaren 24an. Abenduaren 23an Artatse elkartean jokatu zen lehen kanporaketan 30 bikote hartu zuten parte eta orduan zehaztu ziren Gipuzkoako kanporaketan Bergara ordezkatzeko duten lau bikoteak: Txara eta Etxenagusi –herriko irabazleak izan ziren–, Juan Karlos eta Liberal, Pako eta Agirre eta Javi eta Teo izan dira. Herrialdeetako kanporaketako irabazleak final nagusirako sailkatuko dira, eta finala Ustaritzen (Lapurdi) jokatu da, martxoaren 10ean; bikote irabazleak 3.000 euro eta Kari-bera bidaia bat irabaziko ditu.

Aratusteetarako kartel lehiaketako lanak, astelehenera arte

2018ko Aratusteetarako jai egitarauko azala aukeratzeko lehiaketaren izen-emate epea astelehenean, hilak 15, amaituko da. Lanak udaletzeko hirugarren solairuan dagoen Kultura Zerbitzuan entregatu beharko dira, 13:00ak baino lehen. Herriarrek aukera izango dute botoa emateko, urtarrilaren 16tik 21era, www.bergara.eus webgunean. Izan ere, herriarren botoek %40ko balioa izango dute, eta epaimahaiko kideek hartuta erabakia aldaezina izango da.

Irabazleak 350 euroko balioa duten bonuak eskuratuko ditu, herriko komertzioetan trukatzeko. Oinarrien berri izateko: www.bergara.eus/eu/node/11016.



Bergara futbol elkarteko emakumezkoen taldea. MANU DIAZ

Igoera faseko helburua "lehiakorrak" izatea da

Bergarak denboraldi bikaina eginda lortu du Gipuzkoako Erregional Mailatik Euskal Ligara igotzeko fasea jokatzeko txartela; bihar, zapatua, hasiko dute ligaxka. Partidu "zaila" izango dute etxekoek: Anaitasuna izango dute aurrez aurre, Ipintzan

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Bergarak Euskal Ligarako igoe-ra fasea hasiko du zapatuan, 16:30ean, Ipintzan. Manolo Ortizek, Manu Sanchezek eta Manu Diazek zuzentzen duten taldeak denboraldi bikaina egin du eta ezustean lortu du igoe-ra fasea jokatzeko txartela. "Gure helburua aurten izan dugun maila datorren denboraldian izatea izango litzateke, baina uste baino hobeto ibili gara aurten", azaldu du Diaz entrenatzaileak.

Orain dela hiru urte jarri zuten berriro ere martxan nesken futbol proiektua: "Hainbat urte seniorretan talde barik egon ondoren, orain dela bi urte berriro atera genuen taldea", azaldu du. Hasiera batean, jende gutxiarekin hasi ziren eta gaur egun, 102 emakume dihardute futbolekin. "Senior mailan 25 jokalarik dute fitxa; horietatik zortzi kadete mailatik igotakoak dira", gaineratu du. Partidu askotan jende gaztearekin jokatu dutela nabarmendu du Diazek.

Lortutako emaitza nabarmen-tzekoa den arren, Diaz "pozik" dago taldea oso ondo entrenatzen delako, eta taldekideek duten jarraitasunak: "Oso futbolzaleak dira. Dinamika ona dute eta gaztetxoak oso ondo sartu dira taldean".

Harrobi sendoa dute

Harrobi sendoa izatearen garrantzia nabarmendu du Diazek: "Garrantzitsua da hori. Modu horretan, neskek badakite eurek nahi dutenera arte jokatu dezaketela futbolekin, eta ez dutela 14 edo 15 urterekin nahitaez futbola utzi beharko".

Taldeko dinamika ikusita, hemendik aurrera gozatzea da gokiela dio Diazek.

IGOERA FASEKO LEHENENGO LEHIA ZAPATUAN JOKATUKO DUTE, 16:30EAN, IPINTZAN

Anaitasunaren aurkako lehia

Bergarak ligako azkeneko jardunaldian lortu zuen igoe-ra fasea jokatzeko txartela, Mutrikuri 2-0 irabazita. Gipuzkoako Erregional Mailako hirugarren multzoan jokatu dute bergararrak. Igoera faseko lehenengo jardunaldian, Anaitasuna izango dute aurrez aurre. Partidu "zaila" izango dela dio Diazek: "Taldea gogorra da Anaitasuna. Ligan, euren aurka jokatu dute bi partidua galdu ditugu: etxean 0-3 eta han 2-0", azaldu du. Hala ere, Diazek nabarmendu du etxean talde lehiakorra izaten dela Bergara. Taldeko hiru entrenatzaileen helburua, baina, fase honetan lehiakorrak izatea eta ikastea da, eta baita jokalariek futbolaz gozatzea.

Gainerako multzotako taldeak gehituta, ondoko hamar taldeek jokatu dute igoe-ra fasea: Beti Gazte, Anaitasuna, Ostadar, Hondarribia, Lagun Onak, Touring, Intxaurdi, Urnieta, Eibar B eta Bergarak.



IPC-SPORT.COM

Jokin Etxabe, taldekide berriekin

Interpro Stradalli Cycling Academy izango da bergararraren talde berria. Taldekideak ezagutzeko aukera izan du, astebetez, Miamin, eta pozik itzuli da Etxabe. Denboraldi berria Indonesian hasiko du, goi mailako lasterketa batekin. Izan ere, UCI World Tourreko talde batzuk Indonesian izango dira. Onena ematen saiatuko da Etxabe 2018ko denboraldian.

Sagardotegira irteera egingo dute Pol-Pol mendi taldekoek

Mendi irteera berezia egingo dute otsailaren 3an, zapatua, Pol-Pol mendi elkarteko gazteek. Bera eta Irun arteko mendi ibilaldia egingo dute lehenengo, eta ondoren, sagardotegira joango dira bazkaltzera. Hain zuzen, Irungo Ola sagardotegian izango da bazkaria.

06:30ean irtengo dira autobus geltokitik, eta itzulerako autobusa 18:30ean izango dute, Irunen. Izena ematerakoan 20 euroko fidantza ordaindu beharko da. Mendi ibilaldia bost ordu ingurukoa izango da -20 kilometro-. Izena eman beharko da Pol-Poleko bulegoan: astelehenetan, eguenetan eta egubakoitzetan, 19:00etatik 20:00etara.

Soralucek Donostian hasiko du urtea Alde Zaharraren aurka

Bergara Soraluce saskibaloia taldeak Donostian jokatu du urteko lehenengo lehia. Alde Zaharraren aurka jokatu dute, domekan, 12:00etan. Bergararrak 19 punturekin sailkapeneko seigarren postuan daude; donostiarrak, aldiz, sailkapeneko 10. postuan daude. Ligako 13. jardunaldia izango da aste bukaerari jokatu dutea.

Gogor defendatu beharko dute eskubaloiko mutilek

Bergarako eskubaloia talde nagusiak hamargarren jardunaldiko partidua jokatu du bihar, 18:00etan, Labegaraletan. Legazpi izango dute aurrez aurre: "Taldea erasotzailea da Legazpi, eta golak erraz egiten dituzte. Irabazi nahi badugu, defentsan lan sendoa egin beharko dugu", azaldu du Josetxo Muniategik, eskubaloiko arduradunak. Orain arteko partiduetan, hiru irabazi, bat berdindu eta bost galdu dituzte mahoneroek. Zazpi punturekin zortzigarrenak dira sailkapenean.

Lehenengo taldearen ondoren, Bigarren Territorialak jokatu du Labegaraletan, Elgoibar liderraren aurka.

Eskuz binakako bi partidua jokatu dituzte gaur etxean

Bergarako Udal Pilotalekuan hiru partidua jokatu dituzte gaur, barikua. Eskuz binakako, nagusien mailan, bi partidua jokatu dituzte etxean: 21:30ean hasita, Bergara-Behar Zana, lehenengo mailan; eta, bigarren mailan, Bergara-Tartaloetxe. Infantilek ere gaur jokatu dute, etxean, 19:00etan: Bergara Gazteleku 1.



Ettxeko saltsak antzezlanaren irudi bat. TXALO PRODUKZIOAK

Seminarixoan antzezteko "gogoz" dator Laskurain

'Ettxeko saltsak' antzezlanaren aurkeztuko du aktore bergararrak bihar, zapatua, 19:00etan; horrez gain, gaur, barikua, Ibon Urizar 'Amorante' bakarlariak musika emanaldia eskainiko du areto berrian. Urizarren emanaldia 20:00etan izango da

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Mikel Laskurain aktore bergararrak Seminarixoa areto berrian antzeztuko du bihar, zapatua. Bergararrak badu "gogoa" aretoa barrutik ezagutzeko eta herriarren aurrean antzezteko.

"Gabonetan herrian egon naizen arren, oraindik ez naiz barrura sartu", azaldu du, "nahiz eta eliza horretan nahikoa ibili izan nintzen gaztetan". Herrian kultur ekitaldietarako areto baten beharra zegoela azaldu du Laskurainek: "Oso pobre geunden, areto baten beharra zegoen".

"Bultzada kulturari"

Herriko erdigunean horrelako areto bat izateak "kulturari bultzada" emango diola gaineratu du Laskurainek. Horrez gain, dagoeneko egitarau zabala antolatuta dutela nabarmendu du, eta orain herriarren erantzuna ikustea falta dela. Hori horrela, aste bukaeran aurkeztuko duten *Ettxeko saltsak* ikustera joateko

gonbita egin du antzezlaneko aktoreak. Emanaldia zapatuan izango da, 19:00etan, 8 euroren truke.

Umore ingelesa

Antzezlanaren endredoizko komedia dela azaldu du Laskurainek. Umore ingelesa da antzezlanaren oinarria, eta, horren inguruan, hainbat korapilo sortuko dira. "Ikusteko samurra den lana da. Ikusleek aktoreek eurek baino gehiago jakingo dute, eta barre asko egingo dute", azaldu du.

Antzezlanaren abuztuan estreinatu zuten, Donostiako Principal aretoan, eta, ordutik hona, hara eta hona dabilta lanarekin. 90 minutu irauten duen komedia da eta aktoreak hauek dira: Ai-

tzier Garmendia, Ane Gabarain, Mikel Laskurain eta Aitor Fernandino. Alan Ayckbourn antzerkigile eta zuzendari ingelesaren lana da *Relativity speaking* -jatorrizko izenburua-. Zuzendari lanetan Begoña Bilbao ibiliko da.

'Amorante'-ren musika

Gaur, barikua, beste ikuskizun batekin gozatzeko aukera egongo da Seminarixoan. *Amorante* bakarlaria -Ibon Urizar dago atzean- igoko da agertokira.

Gitarra, ukelelea, tronpeta, harmonia, zintzarria eta perkusioa joko ditu Urizarrek agertokian zuzenean. Horiekin batera, *looper* bat izango du eta soinu guztiak jaso eta nahastuko ditu gailu horrekin. Hainbat musikarien eragina du *Amorante*-k: Rodrigo Amorante brasildarra, Morante flamenko kantaria, Bixenta Mogel... tradizioa eta inprobisazioa nahastuko ditu agertokian. Emanaldia 20:00etan izango da, 8 euroren truke.

'ETXEKO SALTSAK'
ENDREDOIZKO
KOMEDIA INGELESA
AURKEZTUKO DUTE
SEMINARIXOAN

'Jenis Joplin' aurkeztuko du Uxue Alberdik gaztetxean

Elgoibartarrak helduendako argitaratu duen laugarren lana erakutsiko du gaur, egubakoitza, 18:00etan

A.E. BERGARA

Gaur, egubakoitza, *Jenis Joplin* liburuaren aurkeztuko du Uxue Alberdik, gaztetxean, 18:00etan. Angiolillo liburutegiak gonbidatu du Alberdik kartzela zaharrera; urrian argitaratu zuen elgoibartarrak liburuaren, eta oso harrera ona izan du. Durangoko Azokan liburu salduenetakoa izan zen.

Uxue Alberdik helduentzat argitaratu duen laugarren lana da *Jenis Joplin*. Bi ipuin bildumatan bere eta ingurunearen arteko aritu zen, hainbat gi-

rotan kokatu zuen irakurlea, ezagunetik arrotz nahian. Ondorengo bi nobeletan, aldiz, ohiko lekuari kanpotik begiratu nahi izan dio elgoibartarrak, memoria ariketa bat eginez beste begirada batez.

Istoriaren protagonista Alberdik adin bera duen Nagore Vargas da. "Pozgarria da ikustea nire belaunaldikoak direnak identifikatzen direla istorioarekin". Eta, bide batez, dio garaia dela "belaunaldi horrek lekukoa hartu eta gauzei ahotsa jartzen hasteko".



IMANOL GALLEGO

Domekara arte ikusgai daude

Aroztegi aretoko zeramika erakusketa domekara arte egongo da ikusgai. Bergarako Buztin-zale zeramika elkarteak antolatuta du, urtero moduan, eurek egiten duten lana ikustera emateko. Aurtun 40 urte bete ditu elkarteak, eta hori ospatzeko beste erakusketa bat egingo dute uztailaren 20tik 29ra. Elkartearen sortzaileen lanak ikusgai jarriko dituzte.

Mural ikastaroa eskainiko du Jokin Oregik zapatuetan

Beartek antolatuta, mural ikastaroa egingo dute datozen hilabeteetan. Jokin Oregi *Sortwo* artista bergararra izango da irakaslea. Grafitien eta muralismoaren historia landuko dute. Horrez gain, zirriborrotik muralera dagoen prozesua ere landuko dute; eta, muralak margotzeko aukera ere izango dute.

Urtarrilaren 27an hasiko dute ikastaroa, 10:00etan. Bost aste iraungo du eta eskolak zapatuetan izango dira, 10:00etatik 13:30era. Ikastaroaren kostua 40 euro izango da eta izena emateko ondoko helbidera idatzi behar da: beart.elkartea@gmail.com.

Muralak, ilustrazioak, animazio digitalak eta beste egiten dituzten *Sortwo* artistak. Nazioarte mailan jardun du lanean; hainbat jaialditan erakutsi ditu muralak Oregik.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, beheak / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-18 / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea esk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, beheak / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, beheak / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Frailekozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 beheak esk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk. / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, beheak / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka kalea 11, beheak
943 76 33 99 / 646 43 34 58

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

IGONE MORRAS

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18, solairuarte esk.
685 70 17 96

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprelitzes 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, beheak / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Laramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, beheak esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, beheak

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Gaztelekuak ateak zabalik ditu gazteendako

Udalaren Gazte Proiektuak eman ditu bere fruituak. Idolaz aisialdi taldea eta herriko zenbait gazte elkarlanean aritu dira eta herrian gazteendako zegoen hutsune horri erantzuna ematea lortu dute. Hala, gaztetxea gazteleku izango da aurrerantzean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Autonomiaz jardungo dute aurrerantzean herriko gazteek euren aisialdirako ekimenak eta ideiak sortzen. Izan ere, herrian zegoen aisialdi hutsuneari 15-18 urte arteko hutsuneari erantzuna ematea lortu dute. Gaztetxea itxura berrituta dator, eta gaztelekua izango da.

Gazte proiektua

Udalak iazko aurrekontuetan jada egin zuen Gazte proiektua eratzekeo ekarpena. Izan ere, gazteen aisialdiaren, gaztetxearen eta herriko lokalen gainean bazuen kezka. Horren guztiaren gaineko hausnarketa egin guran eta irtenbide bat bilatu guran abian jarri zuen Gazte proiektua. Orain, emaitzak hasiak dira herrian bistaratzeko: "15-18 urte arteko aisialdi-eskaintza hutsunea geneukan eta adin-tarte horretarako proiektua garatu gura genuen. Horretarako, Idolaz taldeari Udaletik eskatu

genion proiektuan laguntzeko. Iazko aurrekontuek ere baze-karten Gazte proiektua. Hala, egoteko toki baten inguruan eratu dugu proiektua, eta egoteko toki hori gaztetxea izango da. Nola funtzionatuko duen, gazteek landu dute. Orain arte, Idolazen laguntza izan dute, baina orain, apur bat diluitu

egingo da tutoretza hori eta beraien kabuz aurrera egiten dihardute", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Autonomia ardatz

Idolaz aisialdi taldearen eskutik egin du herriko gazte talde batek aurrera ekimen horrekin. Pozik azaldu dira inizatibarekin, eta

Idolaz taldearen gidaritzapean

"Herriko gazte kuadrilla batek egindako eskaeraren aurrean, Udalak laguntza eskatu zigun. Proiektu honetan gazte kuadrilla ezberdin horien arteko kohesioa, komunikazioa eta talde lana dinamizatzea izan da. Hau da, proiektu beraren inguruan azpitale ezberdinek zituzten ideiak talde handira eramanez eta guztien artean erabakitzen lagundu diegu", kontatu du Amaia Aranek, Idolazeko kideak. "Nork bere ideiak bota eta beraien artean taldean lan egiteko hainbat printzipio zehaztu zituzten gure laguntzarekin. Hemendik abiatuz, pixkanaka, lehen ideiak iritelen joan ziren, lehen erabakiak ere hartuz. Behin talde lanaren oinarri hori zehaztuta, gazteek era autonomoan jarraitu dute beraien artean elkartzen. Edozein zalantza argitzeko, hemen gaude prest".



Gazte bat gaztelekuko atea zabaltzen. IMANOL GALLEGU

erronkari ilusioz eta gogotsu heldu diotela azaldu dute. "2002tik aurrera jaiotako gazteok lokalatan batzeko ohitura izan dugu. Udalak, baina, aukera eman zigun gazte lokal horiek utzi eta gaztetxea gazteleku bilakatzeko", azaldu du inizatiba aurrera eramanez Oihane Lizarralde gazte antzuolarrak.

Orain, elkartzen diren gazteen artean konfiantza sortu, elkar ezagutu eta ideiak elkarbanatu gura dituztela dio Lizarralde: "Pixkana, datozen ideiak konpartitzen gabilta une honetan. Zein ekintza egingo dugun, aurrerago zehaztuko dugu. Izan ere, orain, asmoa da elkar ezagutzen joatea. Ateak irekita daude jada. Zabalik topatuko dute etorri gura dutenek gazte-

lekua ezagutzera eta konpartitzera", azaldu du.

Oihane Lizarralde adierazi du aukera on gisa ikusten duela proposamena. "Gure ingurukoak kinta berekoak hasi ginen ideia hau garatzen. Eta orain, zaharra goak diren gazteek ere egin dute bat aukera honekin". Elkar ezagutzeko eta gazte komunitate aberatsa sortzeko aukera gisa ikusten dutela eta etapa hau ilusioz abiatu dutela azpimarratu dute ekimenaren bultzatzaileek.

LOKALAK UTZI ETA GAZTE LOKALA EDUKITZEKO AUKERA EMAN DIE UDALAK HERRIKO GAZTEEI

Saharari laguntzeko kanpaina martxan dago aurten ere

Urtarrilaren 21era arte elikagaien bilketa egingo dute herriko dendetan, Tindufeko errefuxiatuei laguntzeko

Maidar Arregi ANTZUOLA

XIV. Piztu Itxaropena kanpaina abian jarri dute Herri Eskolak, Udalak, Sagiri elkarteak eta Anelkarrek. Hala, urtarrilaren 10etik 21era bitartean, elikagaien bilketa kanpaina egingo dute herrian.

Antzuolan ez ezik, Euskal Herri osoan aurrera eramango den kanpaina da; izan ere, Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkarrekin kanpaina jarri du martxan. "Elkartasun kanpainaren helburu nagusia saharar herriari elikagaiak helaraztea da, Tindufen (Aljeria) errefuxiatutako



Kaxak antolatzen, iaz. MAIDAR ARREGI

sahararrek gaur egun jasaten duten elikadura krisi larria ahal den neurrian arintzeko", azaldu du Anelkarrek.

Kanpainan parte hartzeko, honako elikagai hauek batu daitezke: hegazuak eta sardinak oliotan, arroza, azukrea, pasta, lekaleak... Helduentzako fardeak eta konpresak biltzea ere proposatu dute, horietatik baitira sahararrei bidaltzeko Estatu mailan egin den banaketan EAERI egokitu zaizkion bilketa gaiak.

Urtarrilaren 21era arte, Herri Eskolan, Aixa, Amaia eta Eroski dendetan jasoko dira elikagaiak.

Iaz 45 kaxa eta 688 kilo batu ziren antzuolarraren elkartasunari esker. Aurten, kopuru hori gainditzeko, herritarrei dei berezia egin die elkarrekin.

Odola emateko eskaera egin die antzuolarrak

Urtean hiruzpalau odol ateratzeko eginen ditu Antzuolako odol emaleen elkarteak. Datorren eguaztenean, urtarrilaren 17an, egingo dute urteko lehenengoa, Olanen etxean, 17:30etik aurrera. Begoña Lete elkarteak kideak odol-emaile berrien beharra azpimarratu du eta Antzuolako gazteak animatu gura ditu eguazteneko odol ateratzera: "Jaitzita dago odol emaleen kopurua. 65 lagun inguru batu izan gara azkenaldian. Lehen, 80tik gora... 100 ere batu izan gara. Gazteen beharra dago eta herritarrek animatu gura ditugu. Izan ere, gaixotasunendako eta istripu egoera askotan behar handia dago oraindik ere".

Baserrietako plastikoa batzeko egunak jarri dituzte

Debagoieneko Landa Garapen Elkarrekin jakinarazi du baserri inguruetako plastikoa batzeko 2018rako zehaztu den egutegia: urtarrilak 23, otsailak 27, martxoak 27, maiatzak 22, uztailak 24, irailak 25, urriak 23, azaroak 27 eta abenduak 18.

Plastikoa arratsaldean uztea eskatzen da, zehaztutako tokietan. Antzuolan, garbigunea dagoen tokian jasoko dute. Noiz behinkako zerbitzuak, betiere, aurrez telefonoz deituta (943-76 25 47). Baita plastikoa aipatzen ez den tokiren batean utzi nahi bada ere. Jasoko diren plastikoen artean daude, esaterako, berotegietakoak, siloa eta belar bolak estaltzeko dena.

Kaxeta iturria egokitu du Arrolak, auzolanean

laz, abenduan hasi zen Arrola Mendizale Elkartea Kaxeta iturria berreskuratzeko eta garbitzeko lanetan. Iturria eta aska txukundu dute hainbat herritarrek, auzolanean. Hala, bertatik igarotzen diren mendizaleek ura edateko aukera dute berriro ere

Maidier Arregi ANTZUOLA

Arrola Mendizale Elkartea aspalditik hartu du bere gain udalerriko iturri esanguratsuenak –Uzarragakoa, Lizarragakoa, Kaxetakoa...– garbitzeko eta bertako ura edangarri bihurtzeko konpromisoa. Hain zuzen, iturriok hainbat belaunalditan izan duten funtzioari eustea lortuko litzatekeela azpimarratu dute Arrola taldeko kideak.

Hala, iturriok ez daitezen gal, Arrola elkarteko kide nahiz antzular askok parte hartu dutela azaldu du Iñigo Ramirez de Okarizek, Arrolako kideak.

"Antzuolako iturri esanguratsuenak berreskuratu gura ditu Arrolak. Ildo horri jarraituz, aurtengo ekitaldian, iturri guzti horien jarraipena eta egokitzapena egin nahi dugu Arrolako kideok. Lehendabizi, Kaxeta iturriarekin hasi gara, aspaldi honetan garbitu beharra zeukan eta", azaldu du Arrola elkarteko kideak.



Kaxeta iturria berriro martxan. ARROLA MENDIZALE ELKARTEA

Kaxeta iturria abenduan garbitu zuten, eta, egindako lanei esker, bertako ura edan daiteke. Baina ez da edonolako ura: "Burdin-ura dakarren iturria da. Orain, erabilgarri dago eta edangarria izan dadin lan egin dugu", gaineratu du.

Trenbiderako sarbidea

Azpimarratzekoa da azken urteetan trenbideak ibiltarien eta mendizaleen artean hartu duen ospea. "Hori ikusita, antzeman dugu, agian, beharrezkoa dela Kaxeta iturrirako beste sarrera bat trenbidetik bertatik egitea. Eta, hain zuzen ere, hurrengo fasean, trenbiderako bide hori txukundu, garbitu eta egokitu egingo dugu", kontatu du.

Lan horiek udaberri bitartean egin gura dituzte Arrolako kideak. Auzolana oinarri, hortxe da, herritar orrendako, auzolanean parte hartzeko Arrolaren proposamena.

Herritarren ondare

"Pena da iturri hauek hainbat belaunalditan izan duten funtzioa galtzea. Beraz, helburua ere bada Antzuolak duen natura ondare hau berreskuratzeko eta herritarrei jakinaraztea".

EKITALDI HONETAN, ARROLAREN ASMOA DA HERRIKO ONDARE DIREN ITURRIAK KONPONTZEA



Bidea garbitu dute. ARROLA

Kaxeta iturrira joateko bidea

Lehen fasean, bidea, iturriaren ur-aska eta iturria garbitu dituzte, auzolanean, herritarrek; eta une honetan, ura edateko aukera ere badago bertan –ikus argazkiak–. "Bigarren fasean, berriz, Kaxeta iturrira joan ahal izateko bidea eskuragarriagoa egiteko asmoa ere badugu. Izan ere, trenbidetik iturrirako sarbidea errazagoa izatea gura dugu", azaldu dute.



NIRE USTEZ

MARIJO DEOGRACIAS KAZETARIA

Elur sasoia

Garai batean geu ere halaxe egoten ginen, inora joan ezinda, Lana esne fresko barik *MariBenin* dendan, arropak sukaldeko soketan eskegita kanpoan izoztu egiten zirelako, autobus barik, eskolara joan barik. Ohikoa izaten zen errepideak itxita geratzeko, elurragatik. Baina gurea ez zen inolako drama, ez zen tragediarik izaten. Gozamina izaten zen!

Are latzagoa izaten zen katuskekin Bergarara joatea, han ez baitzuen inoiz Antzuolan besteko elurterik egiten, eta barre egiten ziguten antzuolarroi, esajeratuak ginela leporatuta. Hor konpon! Elurragatik eskolara joan ezinda geratzen ginenak geu ginen, ez eurak!

Holako egun batean izan zen *TiaLuzenian* erakutsi zizkigula orduak *TioGoio*k. Ez dut ahazteko orduko elurtea; Antigua auzoko paraje hura eta gu euren sukaldean orduak ikasten, eskola orduan, elurretara atera aurretik.

Probetxuzko elurtea izan zen hura, komuniorako erlojua oparitu orduko ikasi genituen orduan Itziarrek eta biok. Bejondeiela!



GOIENA

Aratusteetan dantza egin nahi?

Oinarin dantza taldea dagoeneko Aratusteei begira dago. Otsailaren 11n ospatuko da Aratuste-domeka, eta hasiak dira prestaketa lanetan. Hala, entseguak hasiko dituzte, eta herritarrei parte hartzeko gonbidapena egin diete: "Martitzenetan egingo ditugu entseguak, Torresoroan, 20:15ean. Lehen urtarilaren 9an egingo dugu; animatu!", adierazi dute.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34



Baso ustiaketa, egunotan, Elgeta inguruan. L.Z.

Baserri bideen erabilera arautzeko neurri berriak

Baso ustiaketarekin eragiten diren kalteei aurre egiteko neurriak hartu gura ditu Elgetako Udalak eta erantzukizunen zerrenda eguneratu dute 2007a ezker indarrean den udal ordenantzan. Udalbatzak aho batez onartu du moldaketa

Larraitx Zeberio ELGETA

Elgetako Udalak aldaketak egin ditu udal titulartasuneko baso pisten edo bideen erabilera berezia arautzen duen ordenantzan. "Inbertsio garrantzitsuak egiten dira bide horiek egoera egokian mantentzeko, eta beharrezkoa ikusi dugu neurri bereziak hartzea zenbait jarduerak eragiten dituzten kalteen aurrean", adierazi du baserritarren batzordeko buruak, Sebastian Arantzabalek. "Gaiak nahiko buruhauste ematen ditu baserritarren batzordean eta aurrekontuan ere dezenteko kopurua da urtero inbertsioetan".

2007a ezker dago indarrean udal ordenantza hori, eta bide horietan erabil daitezkeen ibilgailuen ezaugarriak, zama eta abiadura arautzen ditu, besteak beste. "Baserritarrek eta baso jabeek beti adierazi dute baso ustiaketa ematen denean erantzukizuna ez dela soilik basoaren jabearena, baita egurra erosten duenarena eta garraioa egiten

duenarena ere", jakinarazi du Arantzabalek. Onartu diren moldaketak aspaldiko eskaera horri erantzuna emateko direla esan du.

Aldaketa nagusiak

Elgetako udalbatzak aho batez onartu zuen ordenantzaren aldaketa abenduan egindako osoko bilkuran. Azken finean, zehaztasunak gehitu dituzte ordenantzaren hainbat puntutan. Esaterako, udal baimenak eskuratzeko jarraibideak zehaztu dira, eta jaso da garraiorako erabiliko diren ibilgailuen datuak hobeto zehaztu beharko direla. Horrekin batera, jasota gelditzen dira ustiaketa jarduerak egiteko ordaindu beharreko

BASO USTIAKETAK ERAGITEN DITUEN KALTEEI AURRE EGITEKO NEURRI BERRIAK DIRA

tasen eta fidantza ekonomikoen nondik norakoak. "Aurrerantzean, derrigorrezkoa izango da baimen guztiak lanak hasi aurretik eskuratzeko. Baita eskatutako tasa eta fidantza ekonomikoak ordurako ordainduta izatea ere", esan du Arantzabalek. Nabarmenezkoa da aipaturiko agiriak edozein unetan erakusteko moduan eduki beharko dituztela ustiatzaileek eta garraiolariek. Arantzabalek esan du azken urteetan nabarmen bizkortu dela Foru Aldundiarekin eta basozainarekin dagoen komunikazioa.

Fidantzaren itzulera

Kalteak baleude, fidantza itzuliko da behin horiek konponduta, eta aurrerantzean bidearen egoeraren erantzule izango dira baimena eskatu duen pertsona zein bidearen erabilera egiten duenarena. Erantzule subsidarioak izango dira, berriz, ustiaketaren jabea edo jabeak, egurraren eroslea eta garraiolaria.

"Ahots polita dudala diote, eta gustatu egiten zait abestea"

UNAI CANTABRANA AMESTI MUSIKA IKASLEA

Gaztea izanik, badu zerbait berezia musikarako

L.Z. ELGETA

Otsailean beteko ditu 14 urte eta musika du zaletasun nagusi. Abestea du, batez ere, gustuko. **Herri mailako musika emanaldietan ikusi zaitugu. Gutxi dira abestera ausartzen direnak.**

Gustatzen zait, eta gure amari ere bai. Biak hasi ginen gitarra ikasten, orain dela pare bat urte. Askotan abesten dugu elkarrekin. Aurtun, pianoa ikasten ere hasi naiz. Gustura nabil.

Jendaurrean eroso sentitzen zara?

Batez ere, urduri egoten naiz, baina jotzen edo abesten hasi arte. Orduan, lasaitu egiten naiz.

Zure zaletasuna duten gazte asko daude Elgetan?

Elgetan ez dut uste. Bergaran ezagutzen dut bateren bat, baina nik oraindik asko ikasi behar dut. Elgetako musika irakasleekin dihardut. Askatasun handia ematen didate kantuak, eta abar aukeratzeko.

Zein musika mota duzu gustuko?

Pop doinuak ditut, bereziki, gustuko. Euskarazko kantu gehienak gustatzen zaizkit.

Herri mailako musika emanaldietan, gehienek pianoa edo gitarra jotzen dute. Zuk, gainera, abestu egiten duzu. Zer esaten dizu jendeak?



Unai Cantabrana Amesti, Elgetan. L.Z.

[Irribarre] Ahots polita dudala. Niri ere gustatzen zait zuzenekoetan entzuten dudana. Grabazioetan, aldiz, arraro entzuten dut nire ahotsa.

Abesten jarraituko duzu?

Bai, badut asmoa. Gitarra opari jaso nuen, baina pianoarekin aurrera egiteko diru apur bat aurreztu nahiko nuke, teklatu txiki bat erosteko. Etxean praktikatzeko ondo etorriko zait.

Gustatuko litzazuke musika talde bat osatzea?

Oraingoz, ez. Asko dut ikasteko, eta hori da lehentasuna orain.



ANTOLATZAILEAK

Urteroko ekitaldia Intxortan

Elgetako, Elorrioko, Bergarako eta Arrasateko herritar ugari elkartu ziren hilaren 7an, domeka, Intxortako tontorrean. Urtero moduan, hamarretakoa eta ekitaldia egin zituzten. Talde argazkia atera zuten, *Ez dugu aske izaterik* haiek gabe zioen pankarta zabalduta. Intxortatik bueltan, berriz, triki-poteoa egin zuten Elgetan.

Lehenengoz emakume bat bazkide Intxortan

Nagore Ojanguren Intxorta elkarteko bazkide da. Mugarri garrantzitsua da; izan ere, lehen aldia da emakume bat sozio sartzen dela. Hautagaitza aurkezteko ausardia aitortu behar zaio. Pozgarria da, aldi berean, sozioengandik jasotako erantzuna

Larraitx Zeberio ELGETA

Intxorta elkarteko kideek abenduaren 16an egin zuten urteko batzar orokorra. Hainbat erabaki hartu zituzten; besteak beste, lau bazkide erabiltzaile eta bi bazkide berri egitea. Gertaera oharkabea pasako zen bi bazkide horietako bat emakumezkoa izango ez balitz. "Jende asko gerturatu zaigu zorionak ematera. Zoriondu naute bere egunean sozio izateko aurkeztu ez ziren emakumeek ere. Akaso, une haietan ez zen aldaketa hain erraz izango. Orain, ikusi dute pentsatzeko modu haiek aldatu egin direla eta poztu egin dira ez aurkeztu arren azkenean aldaketa bat gertatu delako", esan du Nagore Ojanguren.

Bozketan, aldeko 30 boto, kontrako bost eta zuri bat jaso zituen. Hala, aitak Intxorta elkartearen orain arte izandako ordezkari itza jasoko du. Hitza eta botoa izango ditu batzarrean. Giltzak ere hartu ditu.



Nagore Ojanguren, Jose Antonio Ojanguren aitarekin, Intxorta elkartearen. L.Z.

Erabakia hartu eta gauzatu

Jose Antonio Ojanguren erabaki bat hartzeko unea etorri zitzaion 65 urtera iritsitakoan; bere ordezkari itza mantentzea edo ondorengo bati ematea. "Alabak ditut, eta, antzerako kasuak

izan direnean, alaben bikoteki-deei edo familiakoren bati eman zaie ordezkari itza. 35 bat urte daramatzat sozio hemen, eta, nik dakidala, ez da inoiz emakumerik aurkeztu", esan du. Hala eta guztiz ere, bestela jo-

katzea erabaki zuen. "Ahal izanez gero alaba bat aurkezteko pentsatu nuen. Hirurei egin nien proposamena. Bi kanpoan bizi dira, eta ez zitzaient interesatzen. Nagorek eman zidan baiezkua. Ondo atera da, eta pozik nago. Harro ere bai", adierazi du.

Zalantzak eta urduritasunak

"Zalantza ez zen aurkeztu edo ez. Zalantza zen ea zein eztabaida piztuko zen", azaltzen du alabak. "Azkenean, denen ahotan jartzen zara eta zalantzarik handiena zen ea Nagore Ojanguren moduan bozkatuko ninduten edo emakume izatea hartuko zuten kontuan. Lehen aukerak ez ninduen kezkatzen. Ikusteko zegoena zen bazkideak aldaketa baten alde ote zeuden".

Hautagaitza aurkezterakoan zabaldu zen ojangurendarren erabakiaren berri. "Jende asko etorri zen animoak ematera. Gauzak aldatzeko ordua zela esaten ziguten. Bozketa egunera arte, ordea, ezin jakin zer gertatuko zen. Aitarendako egun bereziki seinalatua izan zen. Azkenean, ni ez nintzen bertaratu. Hark eman zuen aurpegia".

Jose Antoniok gogoratzen du une oso berezia izan zela. "Azkenean, urduri zaude. Bozketa ez da eskua altxatuta, eta, lagunek lasai egoteko esaten badiute ere, amaitu arte ezin jakin erabakia zein den!... Pasa zen, jendeak erantzun zuen, eta kito!", gogoratzen du.

Hurrengoendako bidea zabalik

"Lau elkarte daude Elgetan: Ozkarbi, Intxorta, Mendi Mendian eta Gure Borda. Aurrerantzean, guztietan dute sarbidea emakumeek sozio moduan. "Herritar eta sozio askok zoriondu naute", dio aitak. "Nagore sartu delako baino gehiago, emakume bat sartu delako elkarte honetan". Bilobaren urtebetetze ospakizuna egiteko erabiliko du alabak Intxorta elkartearen lehenengo aliz sozio titular moduan.

"Ausartak izan gara? Ez dakit hori den hitza. Azkenean, zergatik esan behar nuen ezetz? Norbaitek eman behar zuen pausoa, eta jasotako erantzuna ona izan da", esan du Nagore Ojanguren. Jose Antonioren ustez, emakumezkoak aurrerantzean samurrago sartuko dira Intxorta elkartearen. "Badaude beste sozio batzuk nire kasuan. Orain dela urte batzuk, beste mentalitate bat zegoen elkartearen. Orduan, emakumeak sukaldean sartzea ere ez zegoen hain ondo ikusia. Aldatu egin da hori, zorionez. Jende gaztea dago eta beste ikuspuntu bat dauka. Horrela izan behar duela uste dut, gainera".

"AUSARTAK IZAN GARA? EZ DAKIT HORI DEN HITZA. AZKENEAN, ZERGATIK ESAN BEHAR NUEN EZETZ?"

Boluntarioak eskatu dituzte Erdi Aroko Elgeta birsortzeko

Bisita gidatu berezia egin gura dute otsailaren 11n, eta deialdia egin dute egitasmoak aurrera egin dezan

L.Z. ELGETA

Kale bakarrek herria zen Elgeta Erdi Aroan, eta hainbat lekutatik jasotako datuekin birsortu gura dute. "Antzezlan txikien bitartez erakutsi gura dugu zaldunen, inksidoreen eta emaginen –sorginen– Elgeta", adierazi du ahalegin horretan diharduen Nerea Villak. "Herritar guztiei, baina, batez ere, herriko neska-mutikoei erakutsi nahi diegu antzinako Elgeta zelakoa zen". Bisita gidatua antolatuta gura dute eta Inauteri-domekan egitea da asmoa, otsailaren 11n.

Ordu eta erdi inguru iraungo du saioak.

Herria girotzeko eta antzezlan labur horietan parte hartzeko boluntarioak eskatu dituzte. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena, urtarilaren 19rako. Taldea osatzen bada egingo du aurrera egitasmoak. "Antzerkiaren mundua gustoko baduzu edo probatu nahi baduzu, lagundu bisita gidatu honetan. Paper txikiak dira eta zure lanaren bitartez Elgeta Erdi Aroan nolakoa zen erakusten lagunduko duzu", esan du Villak.

Neska-mutikoendako abesbatza sortzeko proposamena

Lorea Larrañaga eta Maitena Mañarikua musika irakasleek 6 urtetik gorako neska-mutikoen abesbatza sortu gura dute. Proposamen berria da herrian, eta atzo, eguna, egin zuten lehenengo informazio bilera. "Hasierra bateko asmoa da saioak egunetan egitea, 18:30etik 19:00etara. Ez da beharrezkoa musika gelako ikaslea izatea, eta ekintza doan izango da", azaldu du Larrañagak. Interesatuak Larrañagarekin edo Mañarikuarekin harremanetan jarri besterik ez dute. "Ikusi nahi dugu elgetarren erantzuna zein den. Gabonetako ikuskizunerako hiru kantu prestatu genituen, eta umeak oso pozik aritu ziren".



IMANOL SORIANO

Herriko gaztetxoak ere pilotan

Errege egunean hamalau partidu jokatu ziren neska-mutikoen Gabonetako pilota txapelketaren barruan. Txapelkunak, aurten, Haitz Erostarbe, Unax Agirre, Janitz Isasi, Itxaso Askasibar eta Ander Sarasua izan dira. Kirol zinegotzi Mikel Elkorok eta kirol hezitzaile Etor Garatek banatu zituzten sariak. Parte-hartzaile guztiek jaso zuten oparia.



Jolaserako eta aparkatzeko erabiltzen da egun agustindarren eliza osteko espazioa. O.E.

Lur azpiko aparkalekurik ez da egingo Olaiturrin

Inguruan bizi diren familiei galdetu die Udalak, baina gutxi agertu dute garajea erosteko edo alokatzeko interesa. Udala proiektua esleitzeko pleguak prestatzen ari da eta helburua da proiektua bera aurten izatea esku artean

Oihana Elortza OÑATI

Jolaserako eta ibilgailuak aparkatzeko erabili izan da Olaiturri, eta, proiektu berriaren barruan, erabilera biak uztartzeko aukera ote dagoen aztertu du Udalak: lurzorua gainean eraikin bat eta azpian aparkalekua. Lur azpiko aparkaleku hori, baina, ez litzateke publikoa izango. Kalegoienekoa eta Zubikoakoa egonda, Udalak ez du uste premiarik dagoenik herrian beste aparkaleku publiko bat egiteko. Egitekotan, baina, oraingo proiektuarekin batera egin daitekeela pentsatuz, inguruan bizi diren herritarrei egin die galdera aparkatzeko toki horren beharra ikusten duten edo ez; gehienek ezetz erantzun dute.

Gutunak

Hain zuzen ere, lur azpian 72 ibilgailurendako tokia egongo zen, erosteko edo alokatzeko aukerarekin. 24.000 euro inguru kostako zen garaje bakoitza, gutxi gorabehera.

Abenduan, Olaiturri inguruko kaleetan –Aita Madina, kale Zaharra, Lizaur arkitektoa...– bizi diren 500 familiari gutunak bidali zien Udalak, garajea erosteko edo alokatzeko interesa zuten edo ez jakiteko. 60 baieztasun jaso gero proiektua aurrera ateratzeko prest azaldu zen Udala, baina erdira ere ez zen heldu interesdunen kopurua. Hala, Olaiturrin erabilera askotariko eraikina egingo dute, baina lur azpiko aparkalekurik ez.

Eraikina

Eraikina egiteko proiektua aurten izango du esku artean Udala. Dagoeneko hasi dira esleipen prozesua martxan jartzeko pleguak lantzen. "Pentsatu behar

dugu, adibidez, zenbateko edukiera izango duen bai zutik edo baita eserita ere; herri bazkari bat, bertso saio bat edo beste ekintza bat antolatzeko moduko espazioa izatea; kirola egin ahal izatea... Eraikinak, goitik bakanrik ez, alboetatik ere estaltzeko modukoa izan beharko du", azaldu du Hirigintzako zinegotziak, Irati Etxeberriak. Hori guztia kontuan hartzeko, Udaleko sailak elkarlanean ari dira, bakoitzak bere beharrak izan daitezkeen zerrenda bateratzeko: "Batez ere, Kultura, Ongizate eta Kirol sailak".

Pleguak osatutakoan esleitu egingo dira lanak eta hautatua izan den enpresak proiektua egingo du. Proiektu hori aurten izatea espero du Udalak eta lanak hasi aurten hasi gura ditu. "Han dauden harmailak kendu egingo diren edo ez aukeratzen den proiektuak esango du. Berez, erreka parerainoko espazioa dute aprobetxatzeko, 1.600 metro koadro", dio Etxeberriak.

**ERREKA
PARERAINOKO
ESPAZIOA EGONGO DA
APROBETXATZEKO,
1.600 METRO KOADRO**

Teknologia berriak eta ekonomia, Bizipozerako gaiak

55 urtetik gorako herritarrei zuzendutako eskolak izango dira eta hilaren 24an hasiko dira

O.E. OÑATI

55 urtetik gorako pertsonei zuzendutako formazio aktiboko programa da Bizipoz eta bosgarren edizioa beteko du hilabete honetan. Hilaren 24tik martxoaren 21era bitartean emango dituzte aldi honetako eskolak eta izena emateko epea zabalik egongo da 22ra arte.

Eguaztenetan

Egingo diren tailerrak astean behin landuko dira eta bi ordu iraungo dute. Saioak aditu batek dinamizatuko ditu, programaren arduradunekin batera. Adituak denbora mugatua izaten du bere azalpen teorikoa emateko eta saioa talde txikietan ariketa dinamikoak eginez osatzen da, ikasitako teoria praktikan jarritik. Eguaztenetan izango dira saioak eta tutoretzak ere egingo dituzte.



Telefonoa esku artean. PXHERE

Aurreko edizioko partaideek proposatutako gaiak kontuan hartuta, bosgarren edizioan, teknologia berriak eta zahartzaroan ekonomiari buruzko gaiak landuko dituzte. Interesa duenak Ongizate Zerbitzuetan eman dezake izena.

Urteko batzar nagusia egingo du etzi Santa Klara ermandadeak

Santa Klara ermandadeak urteroko bilera egingo du domekan, urtarrilaren 14an. 12:30ean, joan den urtean, 2017an, hildakoen aldeko meza esango dute Bidarretan. Ondoren, urteko batzar nagusia egingo dute Bidaurretako sakristian. Ermandadearen egoera ekonomikoa zein den azaldu, eta urteko erronkak zehaztuko dituzte.

Olaburuko irudia aldatu egingo dute, eta fatxada margotu

Zubillagako Olaburu enplegu zentroko irudia aldatu egingo dute. "Berria izango da hango logoa eta lotura izango du Olalan espazioak duen irudiarekin; familia berekoak izango dira, nolabait esatearren. Gune biek lotura izango dute", azaldu du Irati Etxeberria zinegotziak. Zentroko fatxada ere margotu egingo dute.

Oñatiko ikerketa proiekturako laguntza eska daiteke

Dagoeneko zabalik dago Oñatiko Udala Grant beka eskatzeko epea. Oñatiko herriari ekarpena egiten dioten ikerketa proiektuak sustatu gura dituen beka da eta Oñatiko Lege Soziologia Masterreko ikasle izandakoek eta une honetan direnek eska dezakete, baita Lege Soziologia Institutuarekin harremana duten ikerlariak ere. 4.000 eurokoa da beka.

Batutako eskolako materialaren zati bat Saharara bidali dute

Eskolako materialarekin batera oinetakoak eta jostailuak ere batu zituzten Gabonak aurretik Oñatiko hainbat puntutan, eta batutakoaren zati bat Tindufeko kanpalekuetara bidali dute dagoeneko. Batutako guztiarekin hiru bidalketa egingo dituzte eta hau izan da lehenengoa; maiatzean eta urrian egingo dituzte beste biak.



Ugarkaldeko geltokian jarriko dute markesinetako bat. OIHANA ELORTZA

Aurrera doa Herribusa, berrikuntzekin

Herribusak probaldian izaniko harrera ikusirik, egitasmoari forma ematen dihardu Oñatiko Udalak. Esleipen prozesua abiatu zuen uztailan, eta amaitzen dihardute prozesua. Hurrengo asteetan jakinaraziko dute zeinek kudeatuko duen zerbitzua

Iker Oñate OÑATI

Herribusari forma ematen hasia da Oñatiko Udala. Eta jada esleipen prozesua amaitzen dihardu: Leintz eta Cuadra enpresen proposamenak dituzten mahai gainean. Hain zuzen, Udalak 8 urterako kontratua sinatuko du adjudikazioa bere egiten duen enpresarekin, 2 urte gehiago luzatzeko aukerarekin. Eta herriguneko zerbitzuaz gain, Arantzazukoa ere horren esku geldituko litzateke; beraz, bateratuta leudeke prezioak –eta bonuak–.

Egitasmoari forma emateko, bestetik, udal ordezkariak urtarilean onartu gura lukete zerbitzuaren ordenantza. "Erabile-ra arauak eta halakoak adostu gura ditugu. Proiektuari forma eman, nolabait", argitu du Irati Etxeberrriak, Hirigintza eta Zerbitzuetako zinegotziak.

Hainbat aldaketa

Fase berrian, hainbat aldaketa izango ditu zerbitzuak. Besteak beste, 5 eta 18 urte bitarteko

herritarrek bidaia ordaindu beharra izango dute –40 zentimo–; gaur artean, doan zerabilten zerbitzua. Gainerakoan, ostera, berdin jarraituko du bidaien prezioak; alegia, euro 1 ordaintzen segituko dute 18 urtetik gorakoek. Horri lotuta, dena den, Etxeberrriak gogorarazi du bidaia bonuak eskuratzeko aukera ez dela baztertuko: helduek 5 euro ordaindu beharko dute hamar bidaiako sortaren truke; eta besteek, 2,1 euro –5 urtetik beherakoek ez dute ordaindu beharrik izango–.

Hiru markesina berri

Berrikuntzekin jarraituz, bestalde, hiru markesina jarriko dituzte herrigunean, Ugarkaldeko, Errekaldeko –herri eskolaren parean– eta Kasablankako geltokietan. Eta, horiez gain, geltoki adierazle diren posteei eta Lurraldeko markesina batzuek osatuko lukete gaurerako arte.

ENPRESA BERA KUDEATUKO DITU HERRIGUNEKO ETA ARANTZAZUKO AUTOBUS ZERBITZUAK

Bestalde, bere horretan mantenduko dute zerbitzuaren ordutegia –herriguneko eta Arantzazukoa–. Alegia, astelehenetik egubakoitzera bitartean, ordu erdian behin pasako da autobusa herriguneko gaurerako arte.

Ordutegia, bere horretan

Bestalde, bere horretan mantenduko dute zerbitzuaren ordutegia –herriguneko eta Arantzazukoa–. Alegia, astelehenetik egubakoitzera bitartean, ordu erdian behin pasako da autobusa herriguneko gaurerako arte.

Arantzazura joateko autobusa, berriz, domeka eta jaiegunetan mantenduko dute: 07:30etik 13:30era, ordubetako maiztasunez irtengo da; eta, bazkalostean, 16:30ean eta 17:30ean –Oñatiko irteera orduak dira horiek–.



Parrokiako kriptara eginiko bisita. GOIENA

Bertako produktuak sustatu gura ditu Turismo Bulegoak

laz, 50.000 bisitari ingururi egin zieten harrera herriko turismo egoitzek. Erronka berriak finkatu dituzte

I.O. OÑATI

Urtea bukatuta, baloraziorako unea iritsi da. Bada, Oñatiko Turismo Bulegoak egin du berea. "Oro har, pozik gaude lorturikoarekin. Erronka batzuk finkatu genituen; tartean, familiak eta lagun taldeak erakartzea. Esan dezakegu lortu dugula hori, turismo jasangarriaren testuinguruan, betiere", dio Ikerne Altubek, Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziako arduradunak. Guztira, 50.000 bisitari inguru izan dira turismo egoitzetan. Azaldu du, gainera, gora egin duela herrian lotan geratzen den pertsona kopuruak. "Alor horretan, bilakaera izan du herriak. Autokarabanan gunea eta aterpetxea ditugu tartean", dio.

Hala, aurrera begira jarria da herriko Turismo Bulegoa. Eta bi erronka nagusi ditu finkaturik datorren urterako: herriko produktuen erakuslehoi izatea

eta www.oñatiturismo.eus webgunea garatzea –bertako zerbitzuen eta produktuen erreserbak ahalbidetzea, esaterako–. Hori horrela, eta bertako produktuen sustapenari dagokionez, Turismo Bulegoarekin harremanetan jar daitezkeen egin die Altubek herriko ekoizleei, "euren produktuez informatzeko". Horrekin lotuta, bi sustapen bide litzuzke aurreikusirik: "Produktuak bulegoan bertan saltzea edo horren inguruko informazioa eskaintzea, bisitaria ekoizlearengana berarengana joan dadin".

Oñati, Fiturren

Turismoaren bueltako nazioarteko azoka egingo dute urtarilaren 17tik 21ra bitartean, Madril: Fitur. Eta, besteak beste, Oñatiko turismo eskaintza eza-gutzeko aukera izango da han. Zehazki, Euskadi Basque Country markapean joango da hara.

Urteko lehen odol ematea egingo dute gaur, egubakoitza

Urte berria hastearekin jakinarazi dute odol ateratzeetako egutegia. Bada, gaurko finkatu dute lehen hitzordua; gura duenak Enpresa Fakultatean izango du odola emateko aukera, 17:00etatik eta 19:00etara. Herri-tarrei dei egin diete odola eman dezaten. "Hilero izaten den deialdiren batera hurbildu daitezela", diote boluntarioek.

'Berbetan' aurkeztuko dute kultura etxean gaur arratsaldean

Berbetan dokumentala aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, kultura etxeko zinema aretoan; 19:00etarako finkatu dute hitzordua. Hain zuzen, *Oñati danazana* egitasmoan eginikoa laburbiltzen du ikus-entzunezkoak; horrez gain, entzungai ditu Kale Barrian jarririko erakusketaren bueltan hainbat herritarrek emaniko iritziak.



Neska-mutikoak, errugbian. GOIENA

Eskola Kirola, berrituta datorren ikasturterako

Orain arteko Eskola Kirolaren gaineko azterketak ondorioztatu du aldaketak beharrezkoak direla. Aldaketa horiek irailetik aurrera nabarituko ditu erabiltzaileak; esaterako, astean zeharreko saioek eta asteburukoek lotura zuzena izango dute

Miren Arregi OÑATI

Abenduaren 21ean egin zen oso bilkuran, Udalararen eta sortu berria den Eskola Kirolaren Elkartearen arteko akordioa onartu zuen aho batez udalbatzak.

Hitzarmen horrek jasotzen du, besteak beste, Udalak elkarteari diru laguntza emango diola eta udal instalazioak erabiltzeko aukera izango dutela.

Gipuzkoan aitzindari

Gipuzkoan aitzindari izango den egitasmoa da Eskola Kirola Elkartea sortzea. Urteetan egon da eskola kirola Oñatin, kiroldegiak koordinatuta, eta hori instituzionalizatu egin da orain, elkarte izaera hartuz.

Hiru ikastetxeek osatzen dute elkarte Udalararen babesarekin: Txantxiku Ikastolako Errektore Kontseiluak, kooperatiba moduan; Elkar Heziko fundazioak; eta Urgaineko guraso elkarteak. "Orain, kontu korrante bakarra dago, adibidez, eta elkartetik zuzenduko da egitasmoa", azal-

du du Kirol zinegotziak, Borja Moiuak.

Ikastetxe bakoitzak bere funtzioa du. "Txandaka egingo dute. Orain, Urgainekoek zuzendari-tza izango dute, Elkar Hezikoeak diru kontuak eramango dituzte eta komunikazioa, berriz, Txantxiku Ikastolakoek. Hiruzpalau urtetarako lanak izango dira, eta gero, berriz txandakatuko dituzte", adierazi du Moiuak.

Berrikuntzak

Elkartea irailean hasi zen lanean, ikasturtearekin batera. Egungo eskola kirolaren jardunean aldaketak sartzen hasi dira eta datorren ikasturtean nabaritu-ko dira aldaketa horiek. "Orain arte Eskola Kirolean astean zehar

ESKOLA KIROLA KUDEATUKO DUEN LANGILE BAT KONTRATATUKO DA LASTER

egiten ziren ekintzek ez zuten loturarik asteburuan egiten zirenekin. Irailetik aurrera, biek harremana izango dute. Hau da, astean zehar entrenamendu saio bat egingo da, asteburuko partiduari begira", dio Eskola Kirola Elkarteko komunikazio arduradun Aitor Guridik. "Seguru asko, matrikulazio kopurua jaitxi egingo du horrek, baina kalitatean asko irabaziko da", gehitu du. Gainera, kirol berriak txertatzen ere joango dira, pixkanaka, eta entrenatzailearen figura ere aldatu egingo da. "Orain arte, gurasoek egiten zuten lan hori, eta datorren urtetik aurrera formalizatu egingo da hori ere".

Eskola Kirolean datorren ikasturtera begira egingo diren berrikuntzak kudeatzeko eta hemendik aurrerakoak antolatze-ko, langile bat kontratatuko da laster. Jardunaren %50 bideratuko du Eskola Kirolera eta gainontzekoa kirol teknikariari laguntzera.

%50eko hobaria izango dute familia ugariak kiroldegian

Bazkide txartelean, lehen aldiz, %50eko hobaria izango dute familia ugariaren agiria aurkezten duten familiek

M.A OÑATI

Albiste onak ekarri ditu 2018ak familia ugariarentzat. Lehenengoz, %50eko hobaria izango dute Zubikoa kiroldegiko bazkide txartelean. Deskontua jasotzeko, tituluaren kopia eraman behar da kiroldegira, hilaren 15a, astelehena, baino lehen. Egun horretan hasiko dira 2018ko bazkide txartelak kobratzen kiroldegian.

2018ko udal ordenantza fiskalean jaso zen hainbat udal zerbitzuren prezioetan kolektibo jakin batzuei hobaria emateko aukera. Hain zuzen, testuinguru horren barruan kokatzen da honako neurri hau; alegia, Zubikoa kiroldegian bazkide diren familia ugariak %50eko hobaria aplikatzea. Hobariari etekina ateratzeko, baina, familia ugari direla egiaztatu beharko dute familiek, eta, hala, titulu hori

ziurtatzen duen ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da; Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen du -Udalak ez du herriko familia ugarien erroldarik-.

Hilaren 15a baino lehen

Hobariaren berri emanez gutun bat bidali da kiroldegiko bazkide diren familien etxetara, eta baita 21 urtez azpiko bazkideen etxetara ere. Mila gutun baino gehiago bidali ziren abenduaren erdian, eta bertan zioen abenduaren 21a arteko epea zutela familiek dokumentazioa entregatzeko. Arazo batzuegatik, baina, hainbat eta hainbat familiak berandu jaso zuten gutun hura, eta, hori horrela, epe berria ipintzea erabaki da. Bazkide txartelak kobratzen hilaren 15ean hasiko dira, eta, beraz, hori izango da dokumentazioa aurkezteko azken eguna.


Aloña Mendik indartsu ekingo dio bihar bigarren itzuliari

Lehenengo itzuli bikainaren ostean, bihar jokatu-ko du bigarren itzuliko lehenengo partidua, Idiazabalen kontra.

M.A OÑATI

Erregional Mailako Aloña Mendi futbol taldeak bihar, zapatua, jokatu-ko du bigarren itzuliko lehen partidua, Idiazabalen kontra. 15:30ean hasiko da hori, aurkariaren zelaian, Arizkorretan. Idiazabal hamalagarren postuan dago une honetan. Aloña Mendi, aldiz, 33 punturekin, sailkapeneko lehenengoa da, eta bigarren postuan dagoen Eibar taldeari bost puntuko aldea ateratzen dio.

Baikorrak izateko arrazoirik ez dute falta, beraz, Gotzon Urzelaireren mutilek. Lana ongi egin dute lehen itzulian, eta hor dau- de emaitzak. "Dena den, bigarren itzulia lehenengoa baino gogor- ragoa izango da; seguru, bihar Idiazabal eta datozen partidue- tan beste taldeak ere desberdin aurkituko ditugula, indartsuago, eta guk lana gogor egiten jarrai-



Mikel Palacios, baloiairekin. I.S

tu beharko dugu", dio Aloña-ko jokalaria Joseba Irizarrek. Taldearen egoerari buruz galdetu- ta, honela azaldu du jokalaria- k: "Gogotsu gaude; izan ere, taldea sendotu egin da eta bigarren itzuli honi ekiteko gertu ikusten dugu geure burua".

Bittor Zubiagirre eta Aitor Tatiggi bertsolariek osaturiko bikotea, *Bertso berriak, elkarri jarriak* saioan. IMANOL SORIANO

Bertsolari gazteak, nor baino nor gehiago

Bertsolari gazteen sariketak antolatu ditu Txinparta bertso eskolak, lehenengoz. Bada, 18 urte arteko bertsolariek jardungo dute herriko hainbat lekutan, txapela irabaziguran. Urtarrilaren 27an egingo dute lehenengo saioa, Arrano tabernan

Iker Oñate OÑATI

Errege egun bezperako bertso saioa ajea atzean utzita, aurrera begira jarria da Txinparta bertso eskola. Hain zuzen, oraingoan, bertsolari gazteak izango dira protagonista –tartean, sei oñatiar–; herriko hainbat gunetan jardungo dute –Arrano, Pako eta gaztetxea–. Hiru saiotan banatu dute txapelketa, beraz. "Oro har, esan daiteke beti bertsolari berdinek dihardutela bertso saioetan. Bada, horren kontra, bertsorako espazioa eskaini gura diegu ohikoan agertoki gainean egoteko aukera ez duten horiei", aitortu du Gontzal Belategik, egitasmoaren antolakuntza taldekoak.

Kanporaketa saioetan, binaka

Ohiko formatua alde batera utzita, parte hartzaileek binaka jardungo dute kanporaketa saioetan. Eta horietako bakoitzean puntu gehien erdietsi dituen bikotea zuzenean sailkatuko da finalerako. Ostera, segidan pun-

tu gehien eskuratuta dituenak jardungo du eurekin batera. Guztira, hiru bikoteak jardungo dute finalean, beraz.

Aipatu beharrekoa da, dena den, soilik bertsolari batek jantzi ahal izango duela txapela. "Finalean hobekien jardun duen bikotea osatzen duten bertsolariek buruz burukoa jokatu dute. Hor, onenak eskuratuko du txapela", argitu du Belategik.

Hiru saio

Esan bezala, orotara, hiru saio izango dituzte gozagai bertsozaleek. Hain zuzen, urtarrilaren 27an egingo dute lehen kanporaketa, Arrano tabernan; 18:30era finkatu dute hitzordua. Aitor Tatiggi eta Bittor Altube; Gontzal

KANPORAKETA SAIOETAN HIRU BIKOTEK ESKURATUKO DUTE FINALERAKO TXARTELA

Belategi eta Asier Ibarguren; Urko Arregi eta Gartxot Ramirez; eta Aritz Irigoien eta Haizea Arana bertsolariek jardungo dute egun horretan nor baino nor gehiago.

Bestetik, otsailaren 3an egingo dute bigarren kanporaketa; Pako tabernan egongo dira orduan, 17:00etan hasita. Kasu horretan, Bittor Zubiagirre eta Andoni Mujika; Xabi Agirre eta Ane Peñagerikano; Garazi Navarro eta Oihana Arana; eta Ane Beloki eta Iratitz Sarasola izango dira agertokian.

Beste urrats bat

Aurretik ere izan da bertsolari gazteei agertoki gainean egotea ahalbidetu dien ekimenik herriarriak. Bertso berriak, elkarri jarriak. Orduan ere herri ezberdinetako bertsolariek ziharduten, herriko gaztetxean eginiko saioan. "Horren jarraipena litzateke egitasmo berria. Bidean egindako beste urrats bat. Serioagoa, halaber", dio Belategik.

'Pinotxo'-k eman duenarekin "pozik" dira Ganbara Txikikoak

Musikala atzean utzita, egitasmo berriak dituzte esku artean; *Gure mitologia, euskal mitologia*, adibidez

I.O. OÑATI

Pinotxo, hariekin lotu gabe musikalaren emanaldi bira bukatuta, Ganbara Txikikoak "pozik" dira egitasmoak eman duenarekin. "Antzokiak bete egin ditugu. Eta poztekoa da hori", azaldu du Aitor Biain zuzendaria. Izan ere, Oñatin ez ezik, Donostian, Bilbon, Iruñean eta Lazkaon ere izan dira musikalako protagonistak.

Bestalde, egitasmoaren bueltan jardun dutenen lana eskertu gura izan du Biainek: "Lantalde ederra osatu dugu". Gaineratu

du denborarekin hainbat aldaketa egin dituztela argiztapenean zein attrezzoan, eta "txalo asko" jaso dituela ekinbideak.

Bada, aurrera begira jarriak dira jada, musikala agertoki gehiagotara eramateko eskaintzak jaso dituzten arren. "Oraingoz, Pinotxo kutxan sartzea erabaki dugu, esku artean ditugun proiektu berriei heltzeko", argitu du. Zehazki, ikastetxeetako abesbatzekin egin ohi duten kaleko emanaldiaz aparte, *Gure mitologia, euskal mitologia* egitasmoarekin dihardute.



AMAIA TXINTXURRETA

Gatzagarren erretratuak

Leintz Gatzagako herritarren erretratuekin osatutako erakusketa dago ikusgai kultura etxean, urtarrilaren 22ra bitartean. Hain zuzen, astelehenean ireki zituen lehenengoz ateak; Joxefe Diaz de Tuesta argazkilaria arrasatearrak aurkeztu zuen egitasmoa. Besteak beste, Gatzagako udal ordezkariak eta herritarrak izan ziren aurkezpenean.

Vancouver musika taldeak kontzertua eskainiko du Pakon

Kontzertua eskainiko du Vancouver musika talde legazpiarrek Pako tabernako agertokian. Gaurko finkatu dute hitzordua; 22:00etan hasiko dute emanaldia. Rock klasikoaren bueltan diharduen taldeak 2017an kaleratu zuen azken lana: *Pasa a la acción*. Hain zuzen ere, egunerokotasunari loturiko gaiak izango dira entzungai.

Ekain-Txou pailazoa egongo da Antixena gaztetxean domekan

Ekain-Txou pailazoaren bisita izango du herriko gaztetxeak urtarrilaren 14an, domeka, 18:00etan. Kiku eta Mizke gozoki dendetan daude sarrerak eskuragarri, 5 euroren truke –2 urteko haurrek ez dute ezer ordaindu beharrik izango–. Gertazkotan, egunean bertan ere egongo da sarrerak erosteko aukerarik, gaztetxean bertan.



Ezkerretik hasita, Txomin de Vega, Unai Larrea eta Jon Fernandez, jaitsieretan Larreak erabiltzen duen bizikletarekin. X.U.

"Azkar jaistea frenoak ez ukitzea baino gehiago da"

TXOMIN DE VEGA, UNAI LARREA ETA JON FERNANDEZ DH-KO PILOTUAK

Euskadiko Txirrindulari Federazioak 2017an egindako lan onagatik saritu ditu ibarreko hiru pilotuak. Euren kategorian Openeko onenak izan dira

Xabier Urzelai ANTZUOLA

Uztailean Antzuolan egindako DH lasterketak *–Downhill–* ziklismoko kirol modalitate hori gehiago gerturatu zuen Debagoienera. 2018an ere lasterketa antolatuko dutela baieztatu dute antzuolarrek, eta erretratuko hiru lagunak *–ibarreko beste pilotu batzuekin batera–* irteera puntuan izango dira, aldapa behera aurkituko dituzten oztopo guztiak azkar, oso azkar, gainditzeko helburuarekin. 2017an azkarrenak izan dira.

Txomin [elgetarra, master 30 kategorian Euskadiko txapelduna], zeu zara hiruren artean beterranoena. Zenbat urte DH egiten?

Txomin: Hamaika urte daramatzat. Egia da lehen baino denbora laburragoa daukadala, eta

"BIZIKLETA HAUEK OSO GARESTIAK DIRA ETA JAITSIERAK EGITEKO BAKARRIK BALIO DUTE"

errazagoa dela enduroa egitea DH baino. Elgetan lagunak ere enduroa egiten dute, eta azken boladan hori izan da joera. Gainera, Elgetan ez dugu DH egiteko zirkuitu aproposik.

Zer behar da, bada, DH egiteko?

Txomin: DHko bizikletek ez dute balio aldapa gora ibiltzeko. Eta, entrenatzera joateko, norbaitek egin behar ditu erremonete lanak; hau da, bizikleta 4x4 ibilgailura sartu eta mendira igotzen lagundu behar digute; oinez igo behar da bestela. Entrenatzeko

pare bat ordu badituzu, ez dago DH egiterik, hobe da enduroko bizikleta hartu eta etxe inguruan buelta bat eman.

Lasterketetan, ze alde dago bi modalitateen artean? Izan ere, enduroa indartsu sartu da.

Txomin: Bietan hartzen dira denborak aldapa beherako tramuetan, baina enduroan, tramu baten amaieratik bestearen hasierara bizikletan joan behar izaten da, eta hor ere denbora konkretu bat errespetatu behar izaten da. DHn, berriz, jaitsierek bakarrik balio dute, eta bizikletak bereziki aldapa behera azkar egiteko diseinatu daude: frenoak, suspentsioak, geometria, pisua... bizikleta bereziak dira. Bestalde, DH modalitateak urte gehiago daramatza gure artean; enduroa berriagoa da, baina indartsu sartu da.

Unai [antzuolarra, junior mailan Euskadiko txapeldun], non izaten dituzue lasterketak?

Unai: Lasterketa gehienak Euskal Herrian bertan izaten ditugu, eta Espainiako Txapelketa-ra joan garenean Euskadiko Selektzioarekin joan izan gara.

Zer behar da DHn ondo ibiltzeko?

Unai: Arlo psikologikoa oso garrantzitsua da, frenoak askatzea ezinbestekoa da. [Barre]

Txomin: Bueno, hori baino gehiago behar da. Frenoak buruarekin askatu behar dira [Barre], eta hori ere poliki-poliki ikasten da.

Jon [kadete mailan Euskadiko txapeldun], zelan joan da urtea?

Jon: Bada, egia esatearren, oso ondo. Emaizta onak lortu ditut txapelketetan, eta Espainian egin ditudan lasterketan denbora onak egin ditut. Urte hasieran ez nekien zenbat lasterketa egin ahal izango nituen, ikasketak... Baina bai, oso pozik geratu naiz.

Lagungarria izango da herrian bertan DH egiten duten lagun gehiago izatea, ala?

Jon: Bai, zalanztza barik. Elkarrekin entrenatzeko, bidaiak egiteko... Oso lagungarria da inguruan lagun gehiago izatea. Sarritan, jaitsiera bat zelan egin ondo ez dakizunean, ondokoen aholkuek balio handia dute, eta,

"DH MODALITATEAK URTE GEHIAGO DARAMATZA HEMEN, BAINA ENDUROA INDARTSU SARTU DA"

horrez gain, lagunak tramu konkreturen bat zelan egiten duten bertatik bertara ikusteak izugarri laguntzen du.

Aurten herrian antolatu dute DH lasterketa. Zelako esperientzia izan da?

Jon: Oso polita. Aurreikusten genuena baino jende gehiago etorri zen lasterketa ikustera, eta, hain zuzen, eskerrak eman gura dizkiet denei. Bestalde, lasterketa antolatzeko beharrezkoak genituen baimenak eta bestelakoak ere lortu genituen, eta gauza polita izan zen herri-tarren aurrean horrelako bat egitea. 2018an ere DH lasterketa egongo da herrian.

Txomin, gazte hauek beterranoek baino beldur gutxiago izango diete aldapa behera har daitezkeen kolpeei, ala?

Txomin: Ez pentsa, gutxitan egiten dituzte nik baino denbora hobeak. [Barre] Lehen ere aipatu dugu ondo jaisteko frenoak ez ukitzearekin batera gauza gehiago behar dela, eta hori esperientziak ematen dizu: burua hotz mantentzen, jaitsieran bide egokia aukeratzen... Egia esan, gustura ibili naiz aurten. Master 30 kategorian irabazi dut, baina benetan begiratzen dugun sailkapena *scratch*-ekoa da *–sailkapen orokorra–*. Hor bigarren eta hirugarren postuak egin ditut, eta bai, pozik geratu naiz egingako urtearekin.

Lokatza Ziklismo Eskola barruan zaudete eta Oiarzun Bike taldean diharduzue. Ez da erraza izango babesleak aurkitzea.

Unai: Ez da erraza, ez. Bizikletak, esaterako, gure poltsikotik erosten ditugu, baina askoz prezio merkeagoan [erretratuko bizikleta, esaterako, Unairena da, eta 9.000 euro balio du, nahiz eta berak prezioaren laurdena ordaindu duen]. Halako laguntzak ezinbestekoak dira, guk ezin ditugu-eta halako dirutzak ordaindu.

Zer eskatzen diozue 2018ari?

Txomin: 2017a bezain ona izan dadila, ez dut gehiago eskatuko.

Unai: Bada, nik iazkoa baino urte hobeagoa espero dut. Gainera, 23 urtez azpiko kategoriarara pasako naiz, eta hor koska bat aurrera egin gurako nuke.

Jon: Ni junior mailara pasatuko naiz, eta hor, lehenengo urtekoa izanda, bigarren urtekoekin lehiatuko naiz. Ea 2017a bezain txukun ibiltzen garen.



Burdinola Irristaketa Taldeko kide batzuk, taldearen arropa berriarekin. AGUSTIN OIANGUREN

Lehiatzeko gertu dago Burdinola klub berria

HOCKEY-A Domekan aurkeztuko dute Debagoieneko hockey taldea; horretarako, lagunarteko partiduekin batera Euskadiko Ligako bi partidu jokatu dituzte etzi Labegaraietan; "Klubeko ateak zabalik daude", adierazi du Agustin Oiangurenek

Xabier Urzelai BERGARA

Berez irailean sortu zuten Burdinola Irristaketa Taldea, eta orain arte Hanka Labanka izenarekin lehiatu diren taldeak izen berriarekin dabilta aurtengo denboraldian. "Hanka Labankatik bereiztea erabaki dugu, eta klub berria sortzea, azken batean, helburu ezberdinak ditugun bi talde garelako. Hanka Labanka sortu zen herriarren artean irristaketa kirol jarduera moduan zabaltzeko helburuarekin, baina guk aurrerago joan gura dugu, lehiatu egin gura dugu. Izan ere, azken urteotan, hockey taldeak sortu ditugu, Euskadiko Txapelketan jarduten dugu eta harrobiarekin ere lanean ari gara. Horregatik erabaki dugu hobe dela gure bideari ekitea", adierazi du Agustin Oiangurenek.

Domekan hockey partiduak

Domekan ofizialki aurkeztuko dute kluba, eta, ospakizun modura, hainbat hockey partidu

antolatu dituzte Labegaraietan: "Horietako bi partidu ofizialak izango dira. Arratsaldeko lehenengo orduan, 14:00etan hasita, kategoria txikietako taldeek lagunartekoak jokatu dituzte. 17:15ean, berriz, Euskal Liga barruan, kadete mailakoen partidu ofiziala izango da; 19:00etan seniorrek jokatu dute".

Harrobian hasi eta goraino

Burdinola Irristaketa Talde berriaren erronka da kategoria guztietan ordezkaritza izatea –egun, 50 kide inguru dira–, eta etorkizunean senior mailako taldean jokatu duten jokalariekin gaztetatik lanean hastea: "Orain gaudenok berandu hasi ginen patinatzen, eta, horren-

HARROBIAREKIN LANEAN DIHARDUTE, ETA ESKOLA KIROLEAN ERE ARI DIRA HOCKEYA ZABALTZEN

bestez, hockeyan jokatzen. Orain, baina, benjamin mailatik hasita kategoria asko ditugu taldean. Bada, egun kadete mailan dabilenak nagusiago egiten direnean senior mailara iritsiko dira –batzuk badabilta jokatzen–, eta lehen taldeak orduan egin ahal izango du aurrerapausoa".

Orain arte partidu ofizial bakarra irabazi du lehen taldeak ligan: "Euskal Ligan bost talde gaude, eta poztasun galanta hartu genuen Mirandako Lobos taldeari 8-6 irabazi genienean. Orain, helburua da hockeya Debagoienean zabaltzea, eta jendea patinatzeko aukera ematea. Nagusiak irristatzen ikasi eta hiru hilabetera hasten dira hockeyan. Noski, euren mailan, oinarritzekoan. Gazteek, berriz, azkarrago hartzen diote neurria kirol honi". Bada, kirola ezagutarazteko lanean, martxora bitartean eskola kiroleko saioak egingo dituzte Arrasaten, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Aramaion...

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA	SENIOR EMAKUMEZKOA	GIPUZKOAKO TXAP.
EUSKAL LIGA	Lauburu-Eskoriatza	Sesiñena Aloña-Aritz.
Leintz Arizm.-Erandio.	Gaur. 21:00. Ibarra.	Domeka. 12:00. Zubikoa.
Zapatua. 16:00. Mojategi.	SASKIBALOA	Soraluce BKE-Lau Bide
OHOREZKO ERREGIONA.	EBA	Zapatua. 18:00. Bergara.
Añorga-Bergara	MU-Grupo Santiago	GIP. BIGARREN MAILA
Zapatua. 16:45. Rezola.	Zapatua. 18:30. Iturripe.	Bergara-Elgoibar
Vasconia-Mondra	GIPUZKOAKO LEHEN M.	Zapatua. 19:30. Labegar.
Zapatua. 17:30. Puio.	Aloña Mendi-Viento S.	ERRUGBIA
Aretxabaleta-Hondarri.	Zapatua. 18:00. Zubikoa.	EUSKADIKO TXAPELKE.
Domeka. 16:30. Ibarra.	GIP. BIGARREN MAILA	ART-Baztan
ERREGIONAL PREFERE.	Alde Zahar.-Sora. BKE	Domeka. 12:00. Mojategi.
Elgoibar-Aretxabaleta	Domeka. 12:00. Donosti.	GAZTEAK
Zapatua. 16:30. Mintxeta.	GIP. HIRUGARREN M.	Gaztedi-Arrasate
Lagun Onak-Mondra	Aloña Mendi-Zarautz	Zapatua. 13:30. Gasteiz.
Domeka. 17:00. Azpeitia.	MU-Ostadar	PILOTA
Eibar-Bergara	Domeka. 16:00. Iturripe.	PILOTA FEDERATUA
Zapatua. 16:00. Unbe.	SENIOR EMAKUMEZKO.	Oñati:
Idiazabal-Aloña Mendi	Eskoriatza-Oiarso	Gaur. 18:30etan hasita
Zapatua. 15:30. Idiazabal.	Gaur. 20:15. Manuel M.	lau partidu.
EMAKU. IGOERA FASEA	ESKUBALOA	Bergara:
Bergara-Anaitasuna	EUSKADIKO TXAPELKE.	Gaur. 19:00ean hasita
Zapatua. 16:30. Ipintza.	Fagor Indust.-Urduliz	partidu bat, eta 21:30ean
ARETO FUTBOLA	Zapatua. 18:15. Zubikoa.	hasita beste bi partidu.
NAZIONAL MAILA	U.Deusto-Ford Mugarri	Aretxabaleta:
UDA Aretxabal. (atsedena)	Zapatua. 18:00. Bilbo.	Gaur. 19:00ean hasita lau
EUSKADIKO TXAPELK.	EUSKADI. TXAP. EMAK.	partidu.
Mondrate (atsedena)	Aloña Mendi-Basauri	Arrasate:
Eskoriatza (atsedena).	Zapatua. 16:30. Zubikoa.	Gaur. 20:30ean hasita bi
GIPUZKOAKO LIGA		partidu.
Mondrate-Zarautz		
Zapatua. 17:30. Musakol.		

FUTBOLA Aretxabaletak Hondarribia hartuko du domekan Ibarran

Ohorezko Erregional Mailan UDA da etxean jokatu duen ordezkari bakarra. Saillapenean atzealdean dagoen Hondarribiaren bisita izango dute Ibarran (16:30). Bergarak Añorgan jokatu du bihar (16:45) eta Mondrak Vasconiaren zelaian (17:30). Leintz Arizmendiko neskek, berriz, Mojategin jokatu dute zapatuan, Erandioren kontra (16:00).

ESKUBALOA Fagor Industrialek Urduliz hartuko du bihar

Gabonetako oporraldiaren ostean, bueltan da Euskadiko Txapelketa. Hala, Fagor Industrial taldeak seigarren postuan dagoen Urdulizen bisita izango du bihar Zubikoan (18:15). Ford Mugarri Arrasatek, berriz, Deustun hasiko du 2018a (zapatua, 18:00). Emakumezkoetan, Aloña Mendik ere etxean jokatu du, bihar, 16:30ean, Basauriren kontra.

SASKIBALOA MUK etxean hasiko du bigarren itzulia

MUK etxean jokatu du bigarren astez jarraian, eta biharko partiduekin bigarren itzuliari ekingo diote (18:30, Iturripe). Lehenengo itzuli honetan batutako zenbakiak baino hobeak –lau garaipen– izan beharko dira bigarren itzulikoak, eta saillapenaren erdian dagoen Grupo Santiagoren kontra hasi behar dute horretan.

ERRUGBIA Azken sailkatu Baztanekin hasiko dute urtea

ARTko ordezkariak domeka eguerdian jokatu dute 2018ko lehen partidua, eta saillapenean azken postuan dagoen Baztan izango dute aurrean (12:00). Etxekoek ia hilabeteko oporraldia izan dute; bigarren itzulian lehenengoan egindako lana errepikatzen badute –lau garaipen eta 19 puntu–, ez dute mailari eusteko arazorik izango.

"Helduentzako narrazio probokatzaileak dira"

MONICA CRESPO IDAZLEA ETA IRAKASLEA

Amatasunari buruzko helduentzako hamabost ipuin bildu ditu 'Las madres secretas' liburuan idazle bergararrak; abenduan Bilboko Azkuna Zentroan aurkeztu zuen

Aitziber Aranburuzabala BERGARA Txikitatik izan du Monica Crespo (Bergara, 1974) irakurtzeko eta idazteko afizioa. Gaur egun, ofizio ere badu, idazketa tailerrak ematen ditu-eta orain dela hamazazpi urtetik hona. Horrez gain, Soziologian lizentziaduna da eta Bergarako UNEDen irakaslea da ikasgai horretan. *Las Madres secretas* (Base, 2017) lehen liburua argitaratu berri du.

Hamabost ipuinekin osatu duzu liburua. Zelakoak dira?

Amatasunarekin lotutako gai asko daude: bikote harremanak; ama izateko desiraren edo ez izatearen arteko kontraesanak; familia ereduak, seme-alaba eta gurasoen arteko harremanak... Fikziozko kontakizunak dira: batzuk, errealista itxurakoak; eta fantastikoak beste batzuk. Asmatutako egoera eta pertsonak dira, eta, nola ez, irakurri, begiratu eta bizi dudanetik elikatu naiz. 162 orri ditu liburua. **Zergatik amatasunari buruz?**

Arduratzan nauten gaiei buruz idazten dut, ulertzen ez dudanez edo errealtatean aldatu gura dudanaren gainean. Aurrez aipatu ditudan gai horiek guztiak, orokorrean, pertsona guztien gai zentralak dira. Era berean, emakume moduan, asko interesatzen zait topikoak eta amatasunaren begirada idealizatua apurtzea, eta baita amatasunari buruzko beste kontakizun posible batzuk eskaintzea ere. **Bederatzi urtetan idatzitako lanen aukeraketa egin duzu. Zelakoa izan da horiek idazteko prozesua?**

Samur esaten da, bai, bederatzi urte! Idazketa prozesu bat izan da eta orain dela bi urte pentsatu nuen, amatasunari buruzko hainbat idatzita nituela ikusita, liburu baten biltzea. Urteetan zehar ipuin ezberdinak idazten joan naiz eta sorta honetarako aproposak iruditzen zitzaizkidanak biltzen eta gordetzen joan naiz.



Monica Crespo idazle bergarra Bilboko Azkuna Zentroan. AZKUNA ZENTROA

"EMATEN DITUDAN IDAZKETA TAILERREK ETENGABE IKASTEN JARRAITZEKO AUKERA EMATEN DIDATE"

Zeini gomendatuko zenioke?

Helduentzako idatzita dago, narrazio motzak gustuko dituztenendako. Egia esan, ipuin horiek irakurtzeko interesa lotuago dago literatura sentikortasunarekin eta errealtatearekiko begirada batekin konektatzea erekin, jorrazten duen gaiarekin baino. Jakitun naiz irakurketa aztoragarria eta kritikoa dela, probokatze eta estereotipoak apurtzeko; hori da, behintzat, nire asmoa.

Zelako harrera izan du orain arte? Egia esan, ikaragarria! Bilboko Azkuna Zentroan aurkeztu nuen, abenduan, Jon Bilbao eta Vicente Huici idazleek lagunduta. 100 lagun izan ziren eta asko kanpoan geratu izan ziren edukiera kontuengatik. Jaso ditudan kritikak oso onak dira. Madrillgo, Bartzelonako eta Donostiako aurkezpenak prestatzen ari gara

orain; aukera sortuz gero, Bergaran ere pozik aurkeztuko nuke. **Non dago salgai?**

Edozein liburu dendatan eta Amazonen aurkituko duzue. **Txikitako zaletasuna ogibide duzu orain; zelakoa izan da bidea?**

Irakurtzen ikasi nuenetik, irakurle amorratua naiz. Denborarekin, idazteko gogo heldu zen, nahiz eta ez duzun horren kontzientzia perspektiba batetik begiratu arte. Madrilen sortu zuten Letren Eskolari buruz irakurri nuenean, argi ikusi nuen hara joan nahi nuela, baina institutuan nenbilen oraindik. Geroago, Soziologian lizentziatu, eta askotariko idazketa tailerrak egin nituen; besteak beste, Buenos Airesen eta Turinen. Egun, Getxoko Kultur Aretoan eta Leioako Kultur Egoitzan idazketa tailerren irakasle naiz eta Bilboko Udalarekin eta Azkuna Zentroarekin kolaboratzen dut. **Izango da zuk sinatutako besterik?** Beti ari naiz zerbait idazten, zuzentzen, argitaratzea merezi duen esperoan. Hortaz, baietz espero dut! Interesatzen zaizkidan hainbat ipuin ditut eta aspalditik lantzen ari naizen eleberri bat ere bai.



Inpernuko ikuskizuna Andoaingo Bastero aretoan. GAIKZA PEÑAFIEL

Xabi Solanoren 'Inpernuko' ikuskizuna Amaia antzokian

Etzi, domeka, 20:00etan eskainiko dute askotariko diziplinak batzen dituen trikitiari buruzko lan berria

A.A. ARANBURUZABALA ARRASATE

Ez da ohiko musika kontzertu bat; antzerkia, ikus-entzunezkoak eta dantzak ere baditu abenduan Andoaingen estreinatu zuten *Inpernuko* lanak. Xabi Solano eskarmentu handiko musikariaren marka du, taularen gainean beste bost musikari dauden arren: Kris Solano arreba, Zigor DZ -Esne Beltzako DJa-, Txus Aranburu, teklak jotzen; Arkaitz Miner, mandolinarekin; eta Haritz Beristain *Txiki* bateria-jolea.

Inpernuko hauspo izenarekin ere ezagutzen den musika tresnaren historia kontatzen duela

dio Solanok: "Garai historiko ezberdinetako pasarteak jasotzen ditu: *Esne zopak* DVDan bildu genituen trikitiari ezagunen testimonioak eta nireak ere bai".

Aktore eta dantzari bergararrak Mikel Laskurain aktorea eta Edu Muruamendi dantzaria eta koreografoa ere Solanoren abentura berrian daude. "Ana Elordik eta biok hiru esketx egiten ditugu; besteak beste, Etxeberritxoren eta Lajaren paperean sartuta. Saio alaia da; aurreko emanaldietan aretoa bete egin dugu", dio Laskurainek.

Debagoieneko udal biblioteken 'Neguko gida' berria kalean da

Liburuez gain, musika CDak eta DVD berriak jaso dituzte, adin tarte ezberdinendako gomendioak eginda

A.A. ARRASATE

Irakurzaletasuna bultzatzeko azkeneko hilabeteetan argitaratutako lanen aukeraketa egin eta proposamen berriak eskaintzea du *Neguko gida*-k helburu.

2005ean abiatu zuten egitasmoa eta gaur egun, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Bergarako, Oñatiko, Aramaioko eta Legazpiko udal bibliotekak argitaratzen dute elkarlanean. Urtean bi gida argitaratzen dituzte: *Biblioporrak* izeneko udan eta, garai honetan, *Neguko gida*.

8.500 ale inprimatu dituzte oraingoan. "Papereko formatua biblioteka guztietan eskuratu daiteke, eta, modu digitalean nahiago izanez gero, gure webguneetan, Facebooken eta, eskatuz gero, PDF dokumentua bidaltzeko aukera ere badugu", azaldu du Arrasateko Bibliotekako Asun Agirianok.

Azkeneko aldietan moduan, Iraide Olaizola azpeitiarrarena da gidaren irudia. "Loreak marraztu ditu; udan liliak aukeratu zituen eta oraingoan, berriz, andere-mahats gorriak".

OROIGARRIA

Juan Carlos Pizarro Molina



2018ko urtarrilaren 4an hil zen, 36 urte zituela.

Beti bihotzean eramango zaitugu.

Sandra, lera eta zure Arrasateko familia guztiaren partetik.
Arrasaten, 2018ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

Juan Carlos Pizarro Molina



2018ko urtarrilaren 4an hil zen, 36 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Arrasaten utzi dituzun lagun guztien partetik.
Arrasaten, 2018ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

Juan Carlos Pizarro Molina

(Ikastolako gurasoa)



2018ko urtarrilaren 4an hil zen, 36 urte zituela.

Har beza familiak gure atsekabe-mina.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2018ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

Anastasio Arabiotorre Lasuen

(Aitor Arabiotorreren aita)



2018ko urtarrilaren 10ean hil zen.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Kurtzebarri BHIko langile, guraso eta ikasleak.
Aretxabaletan, 2018ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

Ramona Armendariz Nos

(Pili Beitiaren ama)



2018ko urtarrilaren 10ean hil zen.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Kurtzebarri BHIko langile, guraso eta ikasleak.
Aretxabaletan, 2018ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

Pio Beitia Irasuegui



2018ko urtarrilaren 6an hil zen, 90 urte zituela.

Basoa euriz bustia
sartzen doa eguzkia
betiko gugan geldituko da
eman diguzun guztia.
Maite zaitugu, aیتa Pio.

Zure bilobak: Jon, Mikel, Ainhoa, Leire, Uxue, Maien, Julen, Amets, Harkaitz eta Iraitx.
Aramaion, 2018ko urtarrilaren 12an.

HILDAKOAK

Maria Milagros Erostarbe Astigarraga.

Oñatin, abenduaren 28an. 98 urte.

Ana Rodriguez Fortes.

Arrasaten, hilaren 1ean. 49 urte.

Antonio Bengoa Urrejola.

Aretxabaletan, 2an. 88 urte.

Dolores Perez Ramos.

Arrasaten, hilaren 1ean. 75 urte.

Laura Alvarez Seara.

Arrasaten, urtarrilaren 2an. 90 urte.

Luzia Arrizabalaga Irasuegi.

Arrasaten, hilaren 3an. 94 urte.

Herminia De Poza Martinez.

Arrasaten, hilaren 4an. 100 urte.

Francisco Javier Mendez Luque.

Eskoriatzan, 4an. 44 urte.

Juan Carlos Pizarro Molina.

Arrasaten, hilaren 4an. 36 urte.

Anton Amozarrain Sologaistoa.

Arrasaten, 5ean. 88 urte.

Jose Mari Arregui Irastorza.

Bergaran, hilaren 5ean. 89 urte.

Bernarda Aranburuzabala Leturiaga.

Bergaran, 5ean. 87 urte.

Pilar Mendiaratz Elexpuru.

Arrasaten, urtarrilaren 6an. 82 urte.

Pio Beitia Irasuegui.

Aramaion, urtarrilaren 6an. 90 urte.

Jose Leturiaga Arrizabalaga.

Arrasaten, urtarrilaren 7an. 81 urte.

Enrike Landaluze Goikolea.

Arrasaten, urtarrilaren 8an. 93 urte.

Carmen Ugarte Arregi.

Arrasaten, urtarrilaren 8an. 95 urte.

Aurelio Taboada Dobarro.

Bergaran, urtarrilaren 8an. 68 urte.

Martzelino Iturbe Irazoki.

Bergaran, urtarrilaren 9an. 67 urte.

Ramona Armendariz Nos.

Oñatin, urtarrilaren 10ean. 83 urte.

Antonina Eizagirre Barrenetxea.

Aretxabaletan, 4an. 74 urte.

Benita Elorza Telleria.

Oñatin, urtarrilaren 7an. 101 urte.

Edita Enparantza Urzelai.

Oñatin, urtarrilaren 9an. 86 urte.

OROIGARRIA

Francisco Javier Mendez Luque

(Nahia Mendezen aita)



2018ko urtarrilaren 4an hil zen, 44 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Kurtzebarri BHIko langile, guraso eta ikasleak.
Aretxabaletan, 2018ko urtarrilaren 12an.

OROIGARRIA

Javi Mendez Luque



2018ko urtarrilaren 4an hil zen, 44 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

San Kristobal afariko txoferrak.
Eskoriatzan, 2018ko urtarrilaren 12an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 12 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

Zapatua, 13 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30

Domeka, 14 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15

Astelehena, 15 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99

Martitzena, 16 FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26

Eguaztena, 17 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

Eguena, 18 SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 12 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Zapatua, 13 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

Domeka, 14 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

Astelehena, 15 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63

Martitzena, 16 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Eguaztena, 17 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74

Eguena, 18 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

ORATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 12 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Zapatua, 13 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Domeka, 14 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Astelehena, 15 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Martitzena, 16 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguaztena, 17 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Eguena, 18 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2018ko abuztuaren 15era arte:

IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2018 osoan:

MOZOS: Iparragirre 2

943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

Juan Erostarbe Aranburu



2017ko urtarrilaren 6an hil zen, 83 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 13an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunera joango zaretenoi eskerrak sendikoen izenean.
Oñatin, 2018ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA



Jose Leturiaga Arrizabalaga

2018ko urtarrilaren 7an hil zen, 81 urte zituela.

*Lagunen lagun, kontu kontalari,
baserritar txantxikutarra.
Patxo bat.
Etxekoak.*

—

Eskerrak gurekin momentu latz hauetan egon zareten guztioi.

Arrasaten, 2018ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA



Enrike Landaluze Goikolea

2018ko urtarrilaren 8an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Baita ere Debagoieneko Ospitalean lagundu diguzuen guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.

Arrasaten, 2018ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA

Juan Luis Lizarralde Iturbe



2017ko abenduaren 29an hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan zuen babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Arrasaten, 2018ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA

Pio Beitia Irasuegui



2018ko urtarrilaren 6an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ondra meza domekan izango da, urtarrilaren 14an, 11:00etan, Aramaio Uribarri auzoko San Esteban elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Aramaion, 2018ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA

Maria Milagros Erostarbe Astigarraga
(Jose Miguel Plazaolaren alarguna)



2017ko abenduaren 28an hil zen, 98 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ondra meza urtarrilaren 13an izango da, zapatua, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2018ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA

Antonio Bengoa Urrejola



2018ko urtarrilaren 2an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

—

Ondra-meza domekan izango da, urtarrilaren 14an, 12:00etan, Aretxabaletako Arkarazo auzoko Millan Donea parrokian. Bertaratuko zaretenoi aurrez eskerrik asko.

Aretxabaletan, 2018ko urtarrilaren 12an.

URTEURRENA



Tere Azurmendi Zabaleta

2017ko urtarrilaren 27an hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2018ko urtarrilaren 12an.

URTEURRENA



Joseba Rementeria Osa
'Txoske'



2017ko urtarrilaren 4an hil zen, 81 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2018ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA



Jose Mari Arregui Irastorza

2018ko urtarrilaren 5ean hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hileta-elizkizunetara etorri, samin-agurrak bidali eta gurekin egon zareten guztioi, familiaren izenean.

—

Zure emaztea, Emilia.

Bergaran, 2018ko urtarrilaren 12an.

URTEURRENA

Lucia Rodriguez Blazquez



2017ko urtarrilaren 29an hil zen, 81 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2018ko urtarrilaren 12an.

URTEURRENA



Jose Ignacio Beitia Gorrochategui

2017ko urtarrilaren 12an hil zen, 67 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2018ko urtarrilaren 12an.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Murubide kalean, 50 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainua, despentsa, trastelekua eta —nahi izanez gero— garaje itxia. Hirugarren solairuan dago eta gela guztiek ematen dute kanpora, bainuak ezik. Igogailua, jarri berria. Dena egoera oso onean. Erdialdetik oso gertu. Aukera paregabea. Telefonoa: 943 533 827

Oñati. Uharkalde auzoan, 45 metro koadroko babes ofizialeko etxebizitza salgai. Sukalde-egongela, bainugela, logela bat, terraza handi eta zoragarria, garaje plaza eta trastelekua. Telefonoa: 699 01 44 12

103.ERRENTAN EMAN

Angiozar. Eraberritutako etxebizitza errentan ematen da Angiozarren: hiru logela, sukalde-egongela, bi komun, aseoa txiki bat eta txokoa dauzka, hainbat solairutan banatuta. Berokuntza, tximinia eta

hari musikarekin, bizitzera sartzeko moduan. Gutziz ekipatuta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 33 18 70

104.ERRENTAN HARTU

Arrasate. Erdialdean etxebizitza errentan hartu nahiko nuke. Gehienezko prezioa 600 euro. 618 28 91 28

Arrasate. Lanagatik Arrasatera etorri garen bikote euskalduna, errentan hartzeko etxebizitza bila. Gehienez bi logelakoa. 610 85 04 67 (Maitane) edo 689 06 03 87 (Manex)

Bergara. Bikote arduratsua gara eta etxea errentan hartu nahi dugu. Harremanetarako: 620 79 95 48 (Iraitz) edo 628 61 40 34

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Gauetan zaintza lanak egingo nituzke. Baita ospitalean ere. 616 20 49 83

Arrasate. Nagusiak zaintzeko gertu nago, arratsaldez, gauetz edota asteburuetan. 632 83 32 44

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko, sukaldean, garbiketan eta abarrean aritzeko. Botikekin lan

egindakoa naiz eta erreferentziak. 631 86 83 69

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 602 32 76 80

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta legezko agiriak ditut. 677 00 90 26

Debagoiena. Emakumea umeak zaintzeko gertu. 696 84 19 51

Debagoiena. Esperientziadun mutila gertu, orduka edo gauetan, nagusiak zaintzeko edota garbiketarako egiteko. 722 78 34 78

Debagoiena. Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, jardun osoz zein orduka. 615 06 28 04

Debagoiena. Neska gertu orduka nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. 622 24 27 58

Debagoiena. Sukaldaria lan egiteko gertu. Esperientzia handia dut pinxoak, menuak, ogitarteko eta abarrak prestatzen. 666 83 21 95

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, garbiketan zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten ere bai. 673 78 08 99

Debagoiena. Zaintza eta garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia daukat. 634 94 30 78

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke arratsaldetan, gauetan edota etxean bertan bizi izaten. 603 25 79 96 (Marta)

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Ingelesa. DBH bigarren mailako eskola partikularrak emango dizkidan norbait beha dut. Batez ere, ingelesa. 609 54 74 12

502. EMAN

Eskola partikularrak Oñatin. Eskola partikularrak ematen ditut. Magisteritzako ikaslea naiz. 688 86 74 80

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Gorbeia txakurkumeak. Urriaren 30ean jaiotako txakurkumeak saltzen dira 30 eurotan. Ama Gorbeia eta aita Border Collie arrazakoak. Animaliekin lanerako edo etxeko lagun bezala erabil daitezke. Telefonoa: 687 32 99 57

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

'ZAINITZA BAINO GEHIAGO' DOKUMENTALA

'Huhezinema 2017' Egubakoitza, 21:00



GOIENA

ARANTZA TAPIARI ELKARRIZKETA

'Harira' Martitzena, 21:00

EGUBAKOITZA, 12	ZAPATUA, 13	DOMEKA, 14
10:00 Hemen Debagoiena 11:00 Onein 11:30 Hemen Debagoiena 12:30 Kulturriketak: Iturño-Beobide 13:00 Kantari 13 13:30 Hemen Debagoiena 14:30 Gaurkoak 14:45 Kulturriketak: Iturño-Beobide 15:15 Hemen Debagoiena 16:15 Gaurkoak 16:30 Onein 17:00 Gaurkoak 17:15 Kulturriketak: Iturño-Beobide 17:45 Gaurkoak 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Kantari 13 19:30 Adil Iskanbila 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 Huhezinema 21:30 Amaia DJ 22:00 Hemen Debagoiena 23:00 Amaia DJ 23:30 Huhezinema	09:00 1 2 3 Hemen da Miru 09:30 Kantari 15 10:00 Kantari 16 10:30 Hemen Debagoiena 11:30 Astearen errepasoa 12:30 Ikustenda: Hi gaztel! Erlantz 13:00 Huhezinema 13:30 Kulturriketak: Iturño-Beobide 14:00 Amaia DJ 14:30 Hemen Debagoiena 15:30 Erreportajea: Auzoko 16:00 Amaia DJ 16:30 Kantari 15 17:00 Kantari 16 17:30 Huhezinema 18:00 Ikustenda: Hi gaztel! Erlantz 18:30 Kulturriketak: Iturño-Beobide 19:00 Huhezinema 19:30 Ikustenda: Hi gaztel! Erlantz 20:00 Adil Iskanbila 20:30 Erreportajea: Auzoko 21:00 Astearen errepasoa 22:00 Kulturriketak: Iturño-Beobide 22:30 Erreportajea: Auzoko 23:00 Hemen Debagoiena	09:00 1 2 3 Hemen da Miru 09:30 Kantari 15 10:00 Kantari 16 10:30 Onein 11:00 Amaia DJ 11:30 Huhezinema 12:00 Erreportajea: Auzoko 12:30 Ekoetiko telesaila 13:00 Ur eta Lur: Ola 13:30 Onein 14:00 Hemen Debagoiena 15:00 Astearen errepasoa 16:00 1 2 3 Hemen da Miru 16:30 Kantari 15 17:00 Kantari 16 17:30 Huhezinema 18:00 Ikustenda: Hi gaztel! Erlantz 18:30 Kulturriketak: Iturño-Beobide 19:00 Onein 19:30 Huhezinema 20:00 Adil Iskanbila 20:30 Amaia DJ 21:00 Ekoetiko telesaila 21:30 Erreportajea: Auzoko 22:00 Hemen Debagoiena 23:00 Kulturriketak: Iturño-Beobide

ASTELEHENA, 15

ASTE BUKAERAKO KIROLOAREN ERREPASOA

'Harmailatik'

21:30

MARTITZENA, 16

TXOMIN MADINAREKIN EGUNEKO ERREPASOA

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.



GOIENA

EGUAZTENA, 17

EGUNEKO ALBISTE NAGUSIAK

'Gaurkoak'

14:30

EGUENA, 18

ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAJEAK

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

DEBAGOIENA

Esperientziadun ile-apaintzailea behar da. Kontratu mugagabea. Soldata interesgarria. Bidali curriculumara: peluqueria1710@gmail.com edo 688 63 46 34

Udalaitz auto kontzesionarioak elektromekanikaria eta mekanikaria behar ditu.

Interesatuok helbide honetara idatzi: udalaitz@otola.org edo telefonoz deitu: 943 711870



Fagor Taldeko parte diren Kooperatibek lan-poltsa osatu behar dute. Jarraian aipatzen diren titulazioak dituzten pertsonetara interes berezia dute:

- Industria adarreko Erdi Mailako Zikloa.
- Industria adarreko Goi Mailako Zikloa.
- Ingeniaritza (Elektrikoa, Mekanikoa...).

Aipatu Taldeko edozein Kooperatibetan lan egiteko aukera zabalak izanik, interesatuak beraien curriculum vitae-ak ondoko helbide elektronikoan bidali behar dituzte: personal@fagorcooperas.es eta, helbide elektronikoan ez dagoen, posta bitartez ondoko helbidera:

FAGOR, S. COOP.
Hautaketa Zerbitzua
San Andres, z.g.
20500 ARRASATE-MONDRAGON

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 17 euro 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokerosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARAI:

- Irizar, 92 m², 3 gela, biatzei sartokia. 297.000€.
- Arriola, 180 m², aldiria: 4 gela, igogailu. Biatzei sartokia. 373.500€.
- Bonaria herrikoak, Agirre San Martin Auzoan. Ekipatu oso. Kartzelak-prezioa.
- Arriola, 89 m², 3 gela, trastelekua, igogailua. 180.000€.
- Zabala, 78 m², 3 gela, igogailua. Biatzei sartokia. 140.000€.
- Medion, 180 m², 4 gela, trastelekua, berriak. Biatzei sartokia. 150.000€.
- Bonaria, 70 m², 3 gela, egokitasun, biatzei sartokia. 135.000€.
- Moraleja, 75 m², 3 gela, igogailua, egokitasun, berriak. Gorte itxo berri. 91.000€.
- Moraleja, 92 m², 3 gela, igogailua, trastelekua eta garajea berri. 125.000€.
- Arriola, 89 m², 3 gela, trastelekua. Biatzei sartokia. 130.000€.
- Moraleja, 77 m², igogailua, biatzei eta biatzei berriak. Biatzei sartokia. 110.000€.
- Irizar, 92 m², 3 gela, igogailua, biatzei sartokia. 100.000€.
- Sorren-Aleto, 79 m², 2 gela, igogailua. Biatzei sartokia. 142.000€.
- Medion, 75 m², 2 logela, berriak, biatzei sartokia. 169.000€.
- Moraleja, 90 m², 4 logela, berriak garajea. Igogailua. 190.000€.
- Sorren-Aleto, 81 m², 2 log. igogailua. Gorteak berriak. 340.000€.
- Medion, 190 m², 2 logela. Igogailua. Biatzei sartokia. 185.000€.
- Moraleja, 80 m², 3 logela, trastelekua, igogailua. Egokitasun. 125.000€.
- Moraleja Agirre (Egokita), 84 m², 4 log. garajea berri. 208.000€.
- Paseo Irizar, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 160.000€.
- Moraleja, 57 m², 2 log. Berriak. Biatzei sartokia. 118.000€.
- Zabala, 70 m², 3 logela. Biatzei sartokia. 127.000€.
- Bilbao-Aleto, 54 m², 2 logela. Berriak. Igogailua da. 92.000€.

ANGIOZAR:

- Berriak, 60 m², 2 logela, berriak berriak. Trastelekua. 80.000€.
- Bonaria, 235 m², biatzei eta bi atzekoak egiteko berriak. 250.000€.

OSINTXU:

- Quintas, 92 m², 3 log. igogailua. garajea. Etxe berria. 150.000€.
- Quintas, 61 m², 3 logela eta trastelekua. 118.000€.
- Quintas, 70 m², 2 logela eta igogailua. 62.000€.

UBERA:

- Bonaria eta 15 hektareako lursaila (pinak eta zelak). 470.000€.

ANTZUOLA:

- ERAKUNTZA BERRIA (PISUAK ETA GARAJEA) HERRI ERDIAN KOKATUTA - KALITATEKO MATERIALAK GARAJEAK BEHEKO SOLAIRUAN-IGOGAILUA GARAJERAKO. PREZIOAK: 167.000 - 250.000 Euro artetan.
- Arizola, 71 m², 2 logela. Ez du aldiririk, trastelekua. 80.000€.
- Gorbeia, 70 m², 2 logela. Ez du aldiririk, berriak. 130.000€.
- Bonaria, 65 m², 2 logela. Ez du aldiririk, berriak. 180.000€.
- Bonaria, 90 m², 3 logela. Trastelekua, egokitasun. 190.000€.
- Kaleak, 85 m², 3 logela, igogailua. 180.000€.
- Gorbeia, 65 m², 2 logela, igogailua. Aukera oso. 91.000€.
- Bonaria, 65 m², 2 logela, igogailua, garajea berri. Biatzei sartokia. 180.000€.

ELGETA:

- Torreola, 77 m², 2 logela. Berri. Oso onak.

ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
Amalur Karpio Azpitarte
Urtarrilaren 16an, 3 urte. Zorionak gure neskatila polittlenari, bere egunean. Bere osaba Gorka, amama Resu eta aitaita Txomin.




ARRASATE
Alazne Canales Losa
Urtarrilaren 14an, 10 urte. Zorionak, Alazne! 10 urte. Emakume txiki bat zara, laztana. Patxo handi bat etxeko eta lagun guztien partetik. Bereziki aitak, amatxok eta Aitorrek.



BERGARA
June Gabilondo Kapelastegi
Urtarrilaren 13an, 5 urte. Zorionak, printzesa. Patxo potolo bat etxeko eta, bereziki, Naiaren partetik. Asko maite zaitugu!



ARRASATE
Kepa Maidagan Pagaldai
Urtarrilaren 12an, 11 urte. Zorionak, txapeldun. Egund on-ona pasatu. Patxo handi bat, etxekuen partetik.




ANTZUOLA
Aiur Rodriguez Jauregui
Urtarrilaren 10ean, 4 urte. Zorionak, Aiur, danon partetik. Musu handi bat.



ARRASATE
Maren Uribetxebarria Quevedo
Urtarrilaren 9an, 11 urte. Gozatu, zoriontsu izan eta ez ezazu irribarre hori inoiz galdu. Zarena zarelako, maite zaitugu! Aitaxo eta amatxo.




OÑATI
Amets Azpiazu Urtzelai
Urtarrilaren 9an, urtebete. Zorionak etxeko denon partetik.



BERGARA
Xabat Ernabide Sebal
Urtarrilaren 9an, urtebete! Gure txikixa handitzen! Patxo handi-handi bat, familiariaren partetik.



ARRASATE
Esti Saldaña Morales
Urtarrilaren 8an, 42 urte. Zorionak, ama! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat, etxeko danon partetik!. Asko maite zaitugu!



BERGARA
Danel Urrutia Arribillaga
Urtarrilaren 8an, 3 urte. Zorionak, Danel! 3 urte! Zelako handixa zaren, pottolo! Muxu handi bat etxeko eta, bereziki, Anartzzen eta Pedroren partetik.



OÑATI
Eneko Azurmendi
Urtarrilaren 6an. Zorionak zure 25. urtemugan! Urte berri honek ea klementinez gozatzeko une zoragarriak eskaintzen dizkizun! Muxuak!



ARRASATE
Pili Seco Moreno
Urtarrilaren 6an, 50 urte. Zorionak, amatxo! Urtebetetze borobila eta berezia dauketzu aurrean eta halaxe ospatuko dogu sorpresaz betetako egund batekin!



ARRASATE
Garazi Nin Ugalde
Urtarrilaren 5ean, 6 urte. Handitzen handitzen, hasi naiz handitzen... Zorionak, Garazi! 6 urte! Egund politxa pasatu eta ondo-ondo ospatu! Pila bat maite zaitugu!



ARRASATE
Ane Aranzabal Vitoria
Urtarrilaren 2an, 8 urte. Zorionak, printzesa. Oso ondo pasatu urtebetetze egunean. Muxu potolo pila bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Garaitz Alonso Dalmau
Abenduaren 31n, 8 urte bete ditu. Zorionak etxeko partetik.



ARRASATE
Elene Zubizarreta Gorosabel
Abenduaren 30ean, urtebete. Zorionak, sorgintxo! Patxo handi bat etxeko danon partetik. Urte zoragarria izan da!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

TXUTXU-MUTXUAK



1

1. Ana eta Ramon
Urtarrilaren 9an, Ana Urzelaik eta Ramon Azkarraga-Urizarrek zilarrezko ezteiak bete zituzten. "Zapatuan, urtarrilaren 13an, ospatuko dugu familia artean. Zorionak eta musu handi bat, etxeko guztien partetik. Segi horrela urte askoan!".



2

2. Saski erotikoaren jabeak
Abenduaren 31n Martxantere taldeak egindako saski erotikoaren zozketaren irabazlea 799 zenbakia izan da eta saria The Cemen Crew taldeak irabazi du. "Eskerrik asko denoi, zuen alea ongietorria izango da", diote *martxantere*.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



ROCKINBILBO

ARRASATE Xabi Solano Band taldearen kontzertua

Inpernuko izeneko kontzertua egingo du taldeak. Eskusoinuaren magia entzuleen belarrietan sartu eta bizitzari irribarre bat eskaini zioten trikitilari guztiei omenaldia egingo die. Sarrerak, 15 euro. *Etzi, domeka, Amaia antzokian, 20:00etan.*



IMANOL SORIANO

BERGARA 'Etxeko saltsak' antzezlan

Komedia bat. Aktoreak gaizki-ulertuen etengabeko kate dibertigarrian dantzan ibiliko dira. Aitziber Garmendia, Ane Gabarain, Miren Gojenola, Mikel Laskurain eta Aitor Fernandino oholiza gainean. Sarrerak, zortzi euro. *Bihar, zapatua, Seminarixoa, 19:00etan.*

EGUBAKOITZA 12

OÑATI Odol ateratzea

Urteko lehen deialdia. *Enpresagintzan, 17:00etan.*

BERGARA 'Jenis Joplin' liburuaren aurkezp

Uxue Alberdi egilea bera egongo da ekitaldian, Angiolillo liburutegiak gonbidatuta. *Gaztetxean, 18:00etan.*

ARAMAIO Herri Curriculumaren aurkezp

Proiektua azaltzen duen dokumentala eta Porrotx pailazoaren emanaldia. Irekia. *Kultura etxean, 18:30ean.*

OÑATI 'Berbetan' dokumentalaren aurkezp

Oñati dana zana izeneko girotze fasean egin zen egitasmoan egindako ikus-entzunezkoa. *Kultura etxean, 19:00etan.*

ARRASATE Beñat Arzadunen berbaldia

Mozambiken lanean diharduen Arzadun gonbidatu dute hango lanei buruz berba egin dezan. *Kulturaten, 19:00etan.*

BERGARA Amorante bakarlaria Iban Urizar bakarka. Seminarixoa, 20:00etan.

OÑATI Vancouver taldea

Legazpiko taldearen zuzeneko. *Pako tabernan, 22:00etan.*

ZAPATUA 13

ARETXABALETA Aratusteetako bazkarirako txartelen salmenta

09:00etan ipiniko dituzte salgai. *Arkupen, aipatutako orduan.*

OÑATI Eskola kirolaren hasiera

Lehen jardunaldia egingo dute. *Zubikoan, 09:00etan.*

OÑATI Aratusteetako entsegua

Oñatiko Inauteriak prestatzeko. *Errekalden, 12:00etan.*

ARETXABALETA Aratusteetako karrozak eta mozorroak

Gaztetxoendako tailerra. *Gaztelekuan, 16:30ean.*

ESKORIATZA Sukaldaritza saioa

Gaztetxoendako ekintza. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

ARRASATE Aratusteetako mozorroak eta karrozak

Gaztetxoendako tailerra. *Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.*

OÑATI 'Gatza' erakusketa'

Joxefe Diaz de Tuestaren bilduma. *Kultura etxean, 18:00etan.*

DOMEKA 14

ARETXABALETA Mendi irteera:

Arlaban-Hiruerreketa-Atxorrotx Aretxabaleetako Guraso Foroaren eta Murrukixo mendizale elkartearen

eskutik, familiendako irteera egingo dute.

Autobus geltokian, 09:15ean.

ESKORIATZA Mendi ibilaldia:

Arlaban-Hiruerreketa-Atxorrotx Gure Ametsa jatetxetik gora, Hiruerreketaraino, Deba ibaiaren sorlekua bisitatu, Atxorrotx zeharkatu eta Eskoriatzara buelta. *Gorosarri autobus geltokian, 09:20ean.*

ARETXABALETA 'Eolo 68' antzezlan

Zirika Zirkus taldearekin. Eolo 68 izeneko pertsonaia abentura berrien bila joango da hegan, baina hegazkinaren motorra hondatu eta irudimena jarri beharko du martxan. Sarrerak, hiru euro. *Arkupen, 12:00etan.*

BERGARA Taila erakusketa

Bergarako taila eskolakoek egindako bilduma ikusteko azken eguna da gaur. *Aroztegin, 12:00etan.*

BERGARA Txistulari bandaren kontzertua

Udaletxeko arkupeetan egingo dute emanaldia. *Aipatutako lekuan, 13:00etan.*

BERGARA Hockey partiduak

Burdinola Irristaketa Klubaren aurkezp

Labegaraietan, 15:00etan.

ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko umeendako eta euren familiendako jolasak, Okendoko ludotekan. *Aipatutako lekuan, 17:00etan.*

ARRASATE Aratusteetako mozorroak eta karrozak

Gaztetxoendako tailerra. *Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.*

ARETXABALETA Filma: komedia bat

Gaztetxoendako emanaldia. *Gaztelekuan, 18:00etan.*

ESKORIATZA Pelikula: akziozkoa

Gaztetxoendako emanaldia. *Gaztelekuan, 18:00etan*

OÑATI 'Ekain txou' ikuskizuna

Jolasak, mimika, abilezia eta umorea bateratzen dituen ikuskizuna, haurrendako, gazteendako eta helduendako. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 18:00etan.*

ANTZUOLA 'Oraindik hemen gaude' pelikula

Jatorrizko bertsioan emango dute filma, euskarazko azpituiluekin. *Torresoroan, 18:30ean.*

ASTELEHENA 15

BERGARA 'Ciencia por una vida mejor' hitzaldia

EHUko irakasle Juan Inazio Perez Iglesiaren berbaldia, gazteleraz,

Goienagusik gonbidatuta. Irekia herritar guztiendako. *Seminarixoa, 10:00etan.*

ESKORIATZA Makinarekin josten ikasteko ikastaroa

Gazteleraz egingo dute. *Kultura etxean, 18:00etan.*

OÑATI 'Mindfulness' ikastaroa

Pepa Bojoren ikastaroa, Jabetze eskolaren baitan. *Bidebarrietan, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Astro-argazkigintza' erakusketa

Aranzadi Zientzia Elkartearen bilduma ikusgai, hilaren 31ra arte. *Arkupen, 18:00etan.*

ARRASATE Formigalera eski irteera

Urtarrilaren 20-21 ean egingo dute. Izenak, gaur, Besaideren bulegoan. *Aipatutako lekuan, 18:30ean.*

MARTITZENA 16

ESKORIATZA 'Zuk zeuk sortu' tailerra

Birziklatutako materiala, kartoi mehea, gometxak eta margoak erabiliz eskulanak, bi txandatan: 17:00etan eta 18:00etan. *Ludotekan, aipatutako orduetan.*

ARRASATE 'Emakume raketistak. Iragana eta etorkizuna' erakusketa

Gaur inauguratuko dute bilduma. *Kulturaten, 18:00etan.*

ARRASATE Formigalera eski irteera
Urtarrilaren 20-21ean egingo dute. Izenak, gaur, Besaideren bulegoan. *Aipatutako lekuan, 18:30ean.*

ESKORIATZA Beñat Arzadunen berbaldia
Mozambiken lanean diharduen Arzadun gonbidatu du Mundukide fundazioak hango lanei buruz berba egin dezan. *Kultura etxean, 19:00etan.*

ELGETA Mendi federatu agiriak
Urtarrileko martitzenetan elkarteko bazkide egiteko zein federatu txartelak ateratzeko aukera dago Kantsatzeke mendi taldearen lokalean. *Aipatutako lekuan, 19:00etan.*

OÑATI Aratusteetako entsegua
Oñatiko Inauteriak prestatzeko entsegua. *Errekalden, 20:00etan.*

ARRASATE Zinema emanaldia
Agnieszka Holland zuzendariaren *The spoor* pelikula emango dute. *Amaia antzokian, 20:30ean.*

EGUAZTENA 17

BERGARA San Anton jaiak
Sanantonabat auzoan. *Aipatutako lekuan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka
Sasoiko produktuak eta baserritarren produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 15:30ean.*

OÑATI Irrati tailerraren bigarren saioa
Kontxi Lopezen tailerra, Jabetza eskolaren baitan. *Bidebarrietan, 18:00etan.*

ARRASATE Formigalera eski irteera
Urtarrilaren 20-21ean egingo dute. Izenak, gaur, Besaideren bulegoan. *Aipatutako lekuan, 18:30ean.*

BERGARA Batzarra, Artatse elkartean
Urteko lehen batzarra egingo dute elkarteko kideek hainbat gairi buruz

berba egiteko. Ostean, luntxa egingo dute. *Aipatutako lekuan, 19:00etan.*

BERGARA 'Maudie, el color de la vida' pelikula
Aisling Walsh zuzendariaren pelikula ikusgai, 7 urtetik gorakoendako. Sarrerak, hiru euro. *Zabalotegin, 20:00etan.*

ARRASATE Aratusteetako kartel lehiaketa: azken eguna
Lanak BAZen entregatu behar dira. Bailaran erroldatuta dagoen edonork parte har dezake 2018ko Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketan. Irabazleak 400 euro lortuko ditu. *Lanak, BAZ-en.*

EGUENA 18

ESKORIATZA Jolas musikatuak
Musikaren erritmoari eta melodiar jarraituz, jolasak egingo dituzte neska-mutikoeekin: aulkia ren jokoa, erlaxazio ariketak, dantzak... *Ludotekan, 17:00etan.*

ARRASATE Literatura solasaldia
Asier Serranoren *Linbotarrak* liburuaren gaineko saioa egingo dute. Liburu horrekin Xabier Lete III. Poesia Saria irabazi zuen Serranok. *Kulturaten, 18:15ean.*

ESKORIATZA Zinekluba
Sofia Coppolak zuzendutako *La seducción* pelikula emango dute. Colin Farrell eta Nicole Kidman dira protagonistak. Debalde. *Zaldibarren, 19:00etan.*

OÑATI Zine-kluba
Lynne Ramsay zuzendariaren *En realidad, nunca estuviste aquí* pelikula emango dute. Joaquin Phoenix eta Alessandro Nivola dira protagonistak. Sarrerak, bost euro. *Kultura etxean, 20:00etan.*

ARRASATE 1280 Almas taldea
Jim Thompson idazlearen liburuan du oinarria Bogotako taldeak. 1992an sortutako taldeak rock doinuak lantzen ditu. European biran, geldialdia egingo dute Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Suburbicon
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Paddington 2
Zapatua: 17:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

El caso Sloane
Domeka: 19:30.
Emoji
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Perfectos desconocidos
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Ferdinand
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Asesinato en el Orien Express
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

EIBAR

COLISEO

Una vida a lo grande
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Que baje Dios y lo vea
Zapatua: 17:00.
Un bolsa de canicas
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Que baje Dios y lo vea
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GORBEIA

Thi Rai: rumbo a Vietnam
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:00, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00.
Se armo el belen
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 18:00.

Entre ellas
Zapatua eta domeka: 20:10.
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 22:30.

Una bolsa de canicas
Zapatua eta domeka: 17:50.
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 20:15.

Handia
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:50.

Star wars
Egubakoitzetik domekara: 19:10, 22:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:10.

El extranjero
Egubakoitza: 16:30, 20:30, 22:30.
Zapatua: 16:00, 20:10, 22:30.
Domeka: 16:00, 20:10.
Astelehenetik eguenera: 20:15, 22:30.

Coco
Egubakoitza: 18:30.
Domeka: 12:15, 18:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00.
Ferdinand
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:05.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

Insidious
Zapatua: 20:10, 22:30.
Domeka: 20:10.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

El instante mas oscuro
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:00.

El gran showman
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

Perfectos desconocidos
Egubakoitza: 20:15, 20:30.
Zapatua: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

BOULEVARD

Tres anuncios en las afueras
Egunero, martitzena izan ezik: 16:30, 18:50, 21:10, 23:30.
Martitzena: 16:30, 18:50.

El instante mas oscuro
Egunero, martitzena izan ezik: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena: 17:00, 22:15.

Thi Mai: rumbo a Vietnam
Egubakoitzetik eguenera: 15:55, 18:00, 20:05, 22:10.
Zapatua: 00:15.

The jungle bunch
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 17:45.

Perfectos desconocidos
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 17:50, 20:30, 22:30.
Zapatua: 00:30.

El gran show
Egunero, martitzena izan ezik: 15:50, 18:00, 20:10, 22:20, 00:30.
Martitzena: 15:50, 18:00, 20:10.

Jumanji
Egubakoitzetik eguenera: 16:20, 18:45, 21:10.
Zapatua: 23:40.

Coco
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:10.

Insidious
Egunero, martitzena eta eguena izan ezik: 16:00, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.
Martitzena: 16:00, 18:15, 20:20.
Eguena: 16:00, 18:15.

Que baje Dios y lo vea
Egubakoitzetik eguenera: 18:20, 20:25, 22:30.

Wonder
Egubakoitzetik eguenera: 20:15.

The disaster artist
Egubakoitzetik eguenera: 22:40.

Star wars
Egunero, martitzena izan ezik: 16:00, 19:00, 22:00.
Martitzena: 16:00, 19:00.

Ferdinand
Egubakoitzetik eguenera: 16:10, 18:20.

Molly's game
Egunero, martitzena izan ezik: 19:45, 22:25.
Martitzena: 19:45.

Dando la nota
Egubakoitzetik eguenera: 20:35.

Asesinato en el Orient Express
Egubakoitzetik eguenera: 22:35.

Sola en casa
Egubakoitzetik eguenera: 16:30.

FLORIDA

Tres anuncios en las afueras
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

Perfectos desconocidos
Egubakoitzetik domekara: 18:35, 20:30, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 18:00, 20:15, 22:30.

El instante mas oscuro
Egunero, martitzena izan ezik: 17:30, 20:00, 22:30.

Thai Mai: rumbo a Vietnam
Egubakoitzetik domekara: 18:35, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

The disaster artist
Egunnero, martitzena izan ezik: 18:00, 20:20, 22:30.
Martitzena: 18:00, 22:30.

KRITIKA

Molly's game ★★☆☆☆

Zuz.: Aaron Sorkin. **Herr.:** AEB (2018). **Aktoreak:** I Jessica Chastain, Idris Elva, Kevin Costner.

Emakume azkarra eta erakargarria

ANTONIO ZABALA

Aaron Sorkin gidoilari ospetsua zuzendari lanetan sartu da *Molly's game* pelikularekin. Kontatzen duen istorioa benetan gertatutakoa da. Molly Blomm famatu egin zen Los Angelesen eta New Yorken izugarrizko poker partidak antolatzeagatik. Mafia errusiarrak parte hartu izan zuen partida batzuetan. Hori horrela, Molly axilotu eta epaitu egin zuten. Partida horietan, aktoreek, zuzendariak, musikariek eta beste pertsona ezagun askok parte hartu zuten. Horregatik guztiagatik, Mollyren

kasuak oihartzun handia izan zuen.

Molly filmaren protagonista nagusia da. Alde batetik, bere istorioa ikusten dugu; eta, beste alde batetik, bera da pelikulako narratzailea. Denbora osoan bere ahotsa entzuten dugu, ikusten ari garen istorioak gidatzen. Pelikularen hasieran, gazte zeneko gertakizun garrantzitsu bat ikusiko dugu, eta, hortik aurrera, bere bilakaera eta hazkundera, emakume arrakastatsua izan arte. Molly emakume azkarra

eta erakargarria da, baina filmaren azken zatira arte ez zaigu azaltzen barrutik nolakoa den. Ez zaizkigu sentimenduak azaleratzen. Hori horrela, Aaron Sorkinek ez du lortzen hezur-haragizko pertsonaia sortzea. Euren arteko elkarrizketa distiratsuak ez dira naturalak. Partidak nolakoak ziren ezagutzeko aukera ematen du. Horiek Mollyren barneko istorioarekin duten zerikusia ez da batere sendoa. Pelikula itxurosoa da, baina nahiko arrunta.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

Porno Eskola

Harrituta geratu nintzen. Porno Eskola zabaldu behar zutela Gasteizen. *Porno* hitza irakurri bezain pronto, hainbat irudi etorri zitzaizkidan burura. Bai, badakizu nolakoak. Eta gogoratu nintzen Gasteizen egin zutela lehen "euskal film pornoa", duela urte batzuk: *Marranas con ganas*. Euskal Herrian grabatutako lehenengoa, ez baitzuten euskaraz grabatu –gidoia sakona eta luzea izango zen–.

Porno izarrak sortzeko ote? Irakurtzen jarraitu nuen. Pornoak sortutako ereduak kritikoki begiratzea zuen helburu eskolak: heziketa sexualean sakontzea, pornografiari buruzko gida didaktiko bat erabilita. "Konturatu ginen nerabeei sexuarekin zuten lehenengo kontaktua pornoa zela: ikastolan duten heziketa sexualak hutsuneak ditu edo gurasoei galdetzeak lotsa ematen die", zioen Iratxe Gil sexologoak. Txalogarria iruditu zitzaidan.

Ez du hilabete iraun. Itxi egin dute, guraso talde erlijioso baten mehatxuengatik. Euren seme-alabak perbertitu egingo dituzten beldur dira. Edozein umemokok ikus dezake pornoa Interneten. Baina eskoletan horri buruzko hausnarketarik ez, mesedez. Hobe da ezikusiarrena egin eta maitasun erromantikoaren ideia elikatzen jarraitzea.

BUKATZEKO

Itxita dute apustua, sega eta aizkora eskuan

Ekainean jokatu dute apustua, Oñatin. Oraindik, baina, zehazteke dituzte leku eta egun zehatzak. Hain zuzen ere, segoviarren aurka jardungo dute debagoiendarrek, aizkora eta segan. 1.000 euro eta antxumea daude jokoan

Iker Oñate OÑATI

Batek apustua bota eta besteak hartu. Horixe da Euskal Herrian oraindik ere bizirik dirauen ohitura. Bada, gaur-gaurkoz, Debagoienean bada apusturik itxita, noiz egingo zain: kana erdiko hamar enbor ebaki behar dituzte, eta gero, ordu eta erdiko sega saioa egin. Arkaitz Lizarralde oñatiarrak eta Alex Azkargorta aretxabaletarrak Daniel Españaren eta Jose Benitoren aurka jardungo dute nor baino nor gehiago, ekaineko egun baten Oñatin egingo duten saioan; oraindik zehazteke dituzte leku eta egun zehatzak.

"Segoviako bikotea sarri dator Euskal Herrira halako apustuak ikustera. Halako batean, esku hartzeko gogoa sartu omen zitzaientzen, eta guri bota ziguten erronka, Azkoitiko frontoiko saioan ginela; ezagunak ditut. Baiezkoa eman genuen", azaldu du Lizarralde. Aurrez aurreko apustua izan zen, hitzez eginikoa –ohi bezala–. Eta lekukoak zitu zuten; beraz, jasota dago apustua. 1.000 euro eta antxumea jokatu dituzte. "Egun berezia izango da, duda barik", dio Lizarralde. Hain zuzen, ez dute gura egitaraua saio soil batera



Goian, Lizarralde, segan; behean, Lizarralde eta Azkargorta. ARKAITZ LIZARRALDE

mugatzerik; apusturako finantziario hitzordua aprobetxatuz, hainbat ekintzaz osaturiko egitaraua sortu gura dute. "Orain, zein beste ekintza egin ditzakegun pentsatzen gabilta. Eta hitzordua herriko auzoren bateko jaiekin bat badator, hobeto", dio. Kasu horretan, herrian jokatzeko duenari dagokio apustua jokatzeko hitzordua prestatzea. Eta Lizarralderen esku dago hori: "Saioa prestatu beharra dugu lehendabizi; besteak beste, zelaia eta egun egokia zehaztu behar ditugu. Eta ekintza sorta itxi beharra ere badugu. Orain, horretan gabilta buru-belarri".

Ogibidea, aizkoraren bueltan

Oñatiarrak berak eginiko aizkorak erabiliko dituzte apustuan, Arkaia Speed Axe markakoak. Horixe baitu Lizarralde ogibide: "Herri kirolen bueltan nabilenean, aizkorak egiteko jende beharra zegoela ikusi nuen. Horretan hasia erabaki nuen, beraz". Gaur-gaurkoz, herrialde askotariko aizkolariak ditu bezeroen artean; jende ezaguna ere bai. Besteak beste, berak eginiko hainbat aizkora darabilte Aitzol Atutxak eta Iker Vicentek.

Eta ezin uka oraindik ere bide luzea dutela herri kirolerako apustuek. Besteak beste, Lizarralde badu beste apustu bat esku artean: Abadiño lagun baten kontra jardungo du, Apatamonasterio kirolerako jaietan –Abadiño–. Ekintzaz beteriko egitarau baten parte da apustu hori. Esan daiteke, horrenbestez, oso erroturik dagoela herri kirolerako apustuen jokoak. Oraindik bide luzea du egiteke.

HARIRA
GOIENA TELEBISTA

URTARRILAREN 16AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN
GONBIDATUA: ARANTXA TAPIA, EKONOMIAREN GARAPENA ETA
AZPIEGITURETAKO SAILBURUA
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA

BABESLEA:

Markiegi

goiena
Zu hemen zaude.

